# DURANGOKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN I. BERDINTASUNERAKO PLANA 2009-2011

ELHUYAR
aholkularitza

DURANGO
Udala · Ayuntamiento

Durangon, 2009ko otsailean

# 1. SARRERA

1. SARRERA ........ 3
2. PLANAREN DISEINUA EGITEKO ERABILITAKO METODOLOGIA........ 4
3. GENERO-BERDINTASUNAREN MARKO KONTZEPTUALA ........ 6
4. GENERO-BERDINTASUNAREN POLITIKETARAKO ARAU-MARKOA ........ 8
5. DURANGON EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA LORTZEKO ESTRATEGIAK ........ 12
6. DURANGOKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUN PLANERAKO EGITURA ETA KUDEAKETA ........ 13
7. DURANGOKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUN PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGITEKO EREDUA ........ 19
8. DURANGOKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUN PLANAREKIN LOTUTAKO HELBURUAK ........ 24
9. GLOSATEGIA ........ 107
10. ERANSKINAK ........ 110

# SARRERA

Berdintasun Planaren diseinua Durangoko Udalak **Elhuyar Aholkularitzarekin** izandako hitzarmenaren emaitza da. Berdintasun Planaren diseinua egiteko **parte-hartzean oinarritutako prozesu bat** landu dugu eta prozesu horretan egindako lanarekin txostena osatu dugu:

- Diagnostikoa oinarritzat duen **Durangoko Emakume eta Gizonen I. Berdintasunerako Plana**ren indarraldia egungo legegintzaldiarekin dago lotuta (2008-2011).

Planak gizon eta emakumeen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea eta Euskal Autonomia Erkidegoko gizon eta emakumeen berdintasunerako IV. Plana ditu erreferentzia gisa. Arau hauek, alde batetik, berdintasunerako politikak eta baliabide estrategikoen ezarpena bultzatzen dituzte administrazioaren barruan, eta bestetik, herritarrentzako jarduketak emakumeen berehalako beharrei erantzun ahal izateko.

4/2005 Berdintasunerako Legea, zein EAEko IV. Berdintasunerako Planak erreferentziazko lege marko izateaz gain, balio izan dute udalaz gaineko erakundeekin koordinatuta jarduteko, helburuak, neurriak eta estrategiak finkatzeko esparru metodologiko gisa.

Durangoko Emakume eta Gizonen I. Berdintasun Plana prozesu parte-hartzaile baten bidez bideratua izan da. Horretarako, 9 lantalde osatu dira Durangoko populazioaren eragile adierazgarriekin: herritarrak, politikariak, Udaleko eta Erakunde autonomoetan eta sozietate publikoetako teknikariak eta gizarte-eragileak. Guztira, 74 pertsonak hartu dute parte, 49 (%66) emakume eta 25 (%34) gizon. Guztiei, eskerrak eman behar dizkiegu egin dituzten ekarpenengatik.

Azkenik, Berdintasun sailak eta Udaleko ordezkari politikoek Berdintasun Plana adostu dute. Plan honek Udalaren eta Udalerriaren ezaugarri eta beharrei erantzuten diela uste dugu.

Durangoko Emakumeen eta Gizonen I. Berdintasunerako Plana garatzen duen dokumentu hau hamar atal nagusitan egituratzen da. Lehenbizikoan sarrera agertzen da; ondoren, erabilitako metodología, hirugarren atalean genero-berdintasunaren marko kontzeptuala; hurrengoan, zehazturiko neurrien euskarri den lege markoa aipatzen da; bosgarren puntuan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko erabiltzen diren estrategiak azaltzen dira; hurrengo atalean, egitura eta kudeaketa; jarraian, burutu beharreko ebaluazioaren eta jarraipenaren eredua azaltzeko atala dator; eta azkenik, helburuak, ekintzak, estrategiak eta esleituriko erantzukizunak garatuko dira. Dokumentuaren amaieran erabilitako hizkera teknikoa ulertzeko lagungarria hiztegia eta dokumentuaren informazioa osatzeko beharrezko eranskinak daude.

## 2.PLANAREN DISEINUA EGITEKO ERABILITAKO METODOLOGIA

Berdintasun Planaren diseinua egiteko herritarren parte-hartzea bermatu duen prozesua jarri da martxan, diagnostikoaren fasean egindako moduan. Horretarako, honako lantalde hauek sortu ditugu:

| LANTALDEAK | PARTAIDEAK |
|---|---|
| **UDALA**<br>Lantalde 1 | Teknikariak eta arduradun politikoak |
| **HEZKUNTZA**<br>2 lantalde<br>▪ Ikastetxeetako gurasoak<br>▪ Irakasleak | (Durangoko gazteekin beste lantalde bat osatzea aurreikusi genuen, diagnostiko fasean egindako moduan, baina hainbat saiakera egin ondoren ezinezkoa izan da talde hau sortzea).<br>Hezkuntzaren arloarekin zer ikusia duten eragileak:<br>(Landako ikastetxea, Zabalarra, Kurutziaga Ikastola, San Antonio-Sta Rita Ikastetxea) |
| **ELKARTEAK**<br>Lantalde 1<br>▪ Kultura- , gizarte- eta kirol-elkarteak | Elkarteen arloarekin zer ikusia duten eragileak:<br>Kirol-elkarteak, kultura eta gizarte-elkarteak; gazte-elkarteak.<br>(Gerediaga Elkartea, Anbotopeko saskibaloi elkartea, Izar gaztea, Palentziako zentrua, Geu be, Errotari Mikologi taldea, Xake taldea, Gorabide, Kondaira, Tabirako, Jappoo elkartea, Berbaro elkartea). |
| **ENPLEGUA ETA LANA**<br>Lantalde 1 | Enplegua eta lanaren arloarekin zer ikusia duten eragileak: sindikatuak, merkatari-elkarteak...<br>(CCOO, UGT, EHNE, Zabaltzen-Sartu, Esnearen Liga, Mas dendak) |
| **HIRIGINTZA, GARRAIO PUBLIKOA ETA INGURUMENA**<br>Lantalde 1 | Hirigintza, garraio publiko eta ingurumeneko arloekin zer ikusia duten eragileak eta gai honetan interesa duten herritarrak.<br>(Alde zaharreko auzokide elkartea, Agenda 21eko kideak, ENBA, Landa 21) |
| **OSASUNA**<br>Lantalde 1 | Osasunaren arloarekin zer ikusia duten eragileak eta gai honetan interesa duten herritarrak.<br>(Drogramenpekotasun zerbitzuak, Minbiziaren aurkako elkartea, ASTCORE-ASC. Enfermos y Transp. de corazón y pulmón, ENBA, Landa 21). |
| **EMAKUME ELKARTEAK**<br>Lantalde 1 | Emakume elkarteetan parte hartzen duten eragileak<br>(Bilgune feminista, Andereak eta CPM) |

Talde bakoitzak Berdintasun Planaren oinarriak landu ditu eta bere arloarekin erlazionatutako helburu eta proposamenak plazaratu ditu. Plana diseinatzeko tresna garrantzitsuena *Durangoko Emakume eta Gizonen Berdintasun Diagnostikoa* izan da, 2007-2008an herritarren parte-hartzearekin eta Elhuyar Aholkularitzaren laguntzarekin egindakoa. Diseinu fasean, diagnostiko fasean parte hartutako pertsona askok parte hartu du.

Taldeekin egindako saioetan honako alderdi hauek landu ditugu:

- 1. Bilera: Diagnostikoan jasotako ondorioen azterketa egin da eta esparruetako helburuen zehaztapena, beti ere, ardatz estrategikoak kontuan hartuz.
- 2. Bilera: Bigarren saioaren helburu nagusia, 1. saioan proposatutako helburuak lortzeko beharrezko ekintzak eta metodologia zehaztea izan da. Saio honetan esku-hartze esparruetako eragileek Planaren garapenean parte hartzeko modua ere zehaztu da, jarraipenerako eta ebaluaziorako funtzioak azpimarratuz.

Beste lantalde batean emakume eta gizonen aukera berdintasunaren esparruetan lan egiten duten eragileak elkartu ditugu: emakume elkarteak: Bilgune Feminista, Andereak, eta CPM. Talde honekin, esku-hartze esparru guztietan landutakoa aztertu eta osatu dugu. Horretarako, bi bilera egin ditugu.

Guztira, Planaren diseinuaren prozesuan parte hartu duten taldeak 8 izan dira.

Prozesu osoan zehar, komunikazio-lanari garrantzi berezia eman zaio herritarren parte-hartzea lortzeko eta Durangon bizi diren pertsona guztiek prozesuan parte hartzeko gonbitea jaso dutela bermatzeko. Martxan jarritako komunikazio-ekintzak hauek izan dira:

- Diagnostikoaren prozesuan parte hartu zutenei gutunak bidaltzea
- Ikastetxeetara bisitak egitea, guraso elkartei gutunak eta ikasleen bidez irakasleei gutunak bidaltzea.
- Durangoko atarietan deialdia/gonbidapena jartzea
- Elkarteei eskutitzak bidaltzea eta telefono-deiak egitea saioetara gonbidatzeko
- Durangoko komunikabideak erabiltzea: Anboto astekaria, Durango irratia eta Durango telebista.

Lantalde guztiekin lana egin ondoren, jasotako ekarpen guztiak kontuan hartuz osatu dugu Plana. Horrez gain, Plana, orain arte, Durangoko Udaleko Berdintasun Sailak martxan jarritako ekintzekin, “2008-2009 Emakumeen indarkeriaren aurkako Ekintza-Planean” jasotako proposamenekin eta “Durangoko Udalerrian emakumeentzako hiri debekatuaren mapan” jasotako proposamenekin osatu dugu.

# 3. GENERO-BERDINTASUNAREN MARKO KONTZEPTUALA

Atal honetan, planaren oinarri kontzeptual diren printzipio orokorrak garatuko dira. Printzipio hauek Durangoko aukera-berdintasunaren arloan egiten diren politikak bideratuko dituzte, benetako berdintasuna eragozten dituzten oztopoei aurre eginez eta emakume eta gizonen berdintasuna sustatuko duten neurriak proposatuz.

Berdintasunaren kontzeptua aztertu aurretik, sexu-genero sistema aipatzea beharrezkoa ikusten dugu. **Sexu-genero sistemak** jarraian azaltzen diren bi elementuen identifikazio-harremana ezartzen duten mekanismo soziokulturalei egiten die erreferentzia:

- **Sexua**: Eraikuntza natural bat da, berarekin jaiotzen gara. Gizakiak eme eta ar bezala definitzen gaituzten ezaugarri fisiko, biologiko, anatomiko eta fisiologikoak dira. Datu genitalen arabera ezartzen dira.

- **Generoa**: Gizarte batek, une soziokultural zehatz batean, emakume eta gizonei ezartzen dizkien ezaugarri, jarrera eta jokabide bereizgarriak dira. Kontzeptua dinamikoa da (hau da, genero-rolen eduki zehatzak momentu historikoaren eta gizartearen arabera aldatzen dira).

Berdintasunaz hitz egiterakoan, berdintasuna osatzen duten hiru aldeak aipatu behar dira: alde positiboa, alde negatiboa eta konpentsazioa. **Alde positiboaren** arabera, pertsona guztiak gara berdinak; berdintasunaren **alde negatiboak**, berriz, honako ideia hau ematen du berritua: edozein diskriminazio motaren debekua badago ere, legeak ez du bermatzen bazterketak desagerraraztea. Azkenik, desberdintasunak benetako berdintasuna bermatzeko neurriekin orekatzea du **helburu-konpentsazioak**. Alde horiek kontuan izanik, Berdintasun formala eta Benetako berdintasuna bereizten dira generoen ikuspegitik.

**Berdintasun formala** emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzen duten erakundeen arau eta legeei dagokie. Diskriminaziorik ezaren printzipioa dakar, legeen aurrean berdintasuna izatea, hots, zuzenbideko berdintasuna, ez izatezko berdintasuna. Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko beharrezkoa baldintza bada ere, ez da nahikoa. Halaber, hauxe aitortzen du Europako Kontseiluak (1982): “Emakumeen eta gizonen berdintasuna, gizakiaren arrazoiaren eskakizuna bada ere, ez da errealitatea, ideal demokratikoak aldarrikatzen dituzten gizarteetan ere.”

**Benetako berdintasuna** tratu berdintasuna da. Pertsonaren sexuan oinarrituriko diskriminaziorik ezan, zuzenekoan eta zeharkakoan, islatzen da. Zuzeneko diskriminazioa dago pertsona batek beste batek baino tratu hobea jasotzen duenean sexua edo sexuarekin lotutako beste edozein inguruabar dela-eta. Zeharkako diskriminazioa da gertaera batek sexu bereko pertsonen proportzio handi bati kaltea dakarkionean oinarri-oinarrian.

Printzipio honek bereizketaren ideia dakar izatezko berdintasunerako beharrezko bitartekotza lez. Bitartekotza horrek aukerak eta emaitzak behar dituenez gero, beharrezkoa da **Aukera-berdintasunean** lan egitea, hots, gizonekin alderatuta berdintasunaren arloan duintasunez tratatuak izateko eskubidean.

Aukera-berdintasunaren helburua esku hartzeko markoa sortzea da, gizarteko arlo guztietan baldintza, ikusgarritasun, autonomia eta erantzukizun berekin askatasunez parte hartzeko modua ematen diena emakumeei eta gizonei. Kalitate terminoa da eta giza eskubideekin lotuta dago zuzenean. Emakumeen bizitza-kalitate handiagoa lortzeko tresna da, eta horretarako, ekintza positiboak erabiltzen ditu.

**Ekintza positiboak** aldi-baterako neurriak, abiapuntua eta tratamendu berezia dira aukera-berdintasunak lortzeko. Beste neurri mota batzuekin du lotura, helmuga den **diskriminazio positiboarekin**: hasieran emaitzak bermatzen dituzten neurriak dira. Abiapuntuan desabantailak dituztenen aldeko estrategia batean datza ekintza positiboa, hain zuzen abantaila daramatenen mailara iritsi daitezen. Hala, une jakin batean aukera-berdintasunera iritsiko da.

Ekintza horiek **Ekintza positiboko planak edo Berdintasun planak** deritzenetan biltzen dira. Izan ere, helburuak egituratzen dituzten tresna politikoak eta administratiboak dira, aukera-berdintasuna lortzeko jarduketa zehatzak bideratzen dituztenak.

Emakumeei buruzko Munduko Hitzaldietan garatu dira emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez gizarte erakundeetan, tokiko politikan edo erakunderik nagusienetan diseinatu diren politikak. Topaketa horien helburua aukera-berdintasuna nazioarteko politiken agendetan txertatzea da. Kongresu haietan aurrerapenak egin ziren harik eta gaur egun generoko Jabetze eta Zeharkakotasunaren inguruko estrategiak aplikatu beharraren inguruko adostasunera iritsi arte (Beijing, 1995).

**Genero-ikuspegia** udalean aplikatzeak esan nahi du sistematikoki plangintza, garapen eta ebaluazio fase guztietan, emakumeen eta gizonen egoerak, baldintzak, beharrak eta nahiak aintzat hartzea, betiere desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna udalaren politika eta jarduketa guztietan sustatzeko helburu eta neurri espezifikoak txertatuz. Errealitatea genero-ikuspegitik aztertzeak honako hau suposatzen du:

- Emakume, gizon eta hauen erlazioen errealitatea aztertzerakoan egoten diren joera sexistak plazaratzea.
- Emakume eta gizonen desberdintasunaren atzean dauden egitura-faktoreak identifikatzea, desberdintasun hauek sortu edo birsortzen dituzten diskriminazio-era guztiak atzemanez.
- Genero-erlazioak birdefinitu, emakumeen egoera agerian utziz, emakumeen beharrak eta interesak kontuan hartuz eta emakumeak gizarteari egiten dion ekarpenari balio handiagoa emanez.

# 4. GENERO-BERDINTASUNAREN POLITIKETARAKO ARAU-MARKOA

Emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa, baita sexuaren ziozko edozein bereizkeria-mota beren beregi debekatzea ere, arau juridiko batzuetan daude jasota.

Emakumearen aurkako bereizkeria-era guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioak (NBEren Biltzar Nagusiak 1979ko abenduan onetsi zuen, eta Espainiar Estatuak 1984ko otsailean berretsi) emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa aldarrikatu zuen. Konbentzio horren 2. artikuluan, ondoko konpromisoa hartu zuten KBEko kideek: «printzipio hori legeen bidez edo beste bitarteko egoki batzuk erabiliz benetan betearazten dela bermatzea».

Beste alde batetik, 1999ko maiatzaren 1ean Amsterdamgo Ituna indarrean jarri zenetik, emakumeen eta gizonen berdintasuna Europar Batasunaren funtsezko printzipio bilakatu da. Europar Batasunaren Ituneko 3.2. artikuluarekin bat, Batasuneko eta kide diren estatuetako politika eta ekintza guztietan integratu behar da emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatu eta horien berdintasuna sustatzeko helburua.

Azpimarratzekoa da Toki Bizitzan emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Europako Karta, Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseiluak proiektu baten testuinguruan (2005-2006) idatzitakoa, beste hainbat eragilerekin batera. Europako toki-gobernu eta eskualdeetako gobernuei zuzendutako idatzia da. Karta honetan aipatzen da tokiko eta eskualdetako agintariak, populazioarengandik hurbilen dauden gobernu-eremuak izanda, desberdintasunen iraunkortasuna eta birsortzea ekiditeko eta berdintasunezko gizartea lortzeko esku-hartze maila egokienak direla. Esku-hartze eremu hauetan beste toki-eragileekin elkarlanean arituz, emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko ekintza zehatzak martxan jar daitezke.

Euskadiko Autonomia Estatutuaren 9.1 artikuluak, Espainiako Konstituzioan xedatutakoari aipamen bat eginez, berdintasunerako eskubidea eta sexuaren ziozko bereizkeriarik eza aldarrikatzen da. Horrez gainera, Estatutuaren 9.2.d artikuluan zera adierazten da: herri-aginteek pertsonen eta taldeen berdintasunerako baldintzak sustatzeko eta hori lortzeko oztopoak ezabatzeko betebeharra dutela, berdintasun hori benetan eta modu eraginkorrean gauzatu dadin.

Era berean, Eusko Legebiltzarrak, otsailaren 5eko 2/1988 Legea onartuta (Emakumearen Euskal Erakundea sortarazteari buruzkoa da lege hori), lege horren zioen adierazpenean jasotzen den bezala, lehen mailako gaitzat jo zuen emakumeekin bereizkeriaz jokatzeko era guztiak benetan

ezabatzea eta emakumeek gure Erkidegoko alor guztietan esku hartzeari bultza egiteko beharrezkoak izan daitezkeen neurriak hartzea; halaber, bere gain hartu zuen arlo horretan ekintza bateratuari indar egiteko lana ere[1].

Azken urteetan, Administrazioan aukera-berdintasuna bultzatzeko arauak eta ekintza positiboko planak egin dira Euskal Autonomia Erkidegoan toki, lurralde eta autonomia mailan. Tokiko administrazioari dagokionez, bi erreferentzia hartuko ditugu Durangoko Emakumeen eta Gizonen I. Berdintasunerako Plana garatzeko: Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen IV. Berdintasunerako Plana (VIII. legegintzaldiko gidalerroak).

Lege horrek jauzi kualitatibo handia dakar genero mainstreaming-a edo zeharkakotasuna aplikatzeko norabidean, zeren eta lege hori baino lehen "emakumearentzako" politika espezifikoak sortzeko praktika baitzen oinarria. Hala, 1998an, Eusko Legebiltzarrak, Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko 2/1988 Legea onetsita, lehentasunezkotzat jo zuen emakumeen diskriminazio modu guztiak desagerraraztea eta emakumeek EAEn eremu guztietan parte hartzea sustatzeko beharrezko neurriak hartzea. Halaber, arlo horretan ekintza koordinatua bultzatzeko eginkizuna hartu zuen bere gain.

4/2005 Legean, beren beregi aipatzen dira tokiko administrazioak, eta horrek bete-betean harrapatzen du Durangoko Udala. Zehazkiago, hauxe esleitu zaio tokiko administrazioari udalei dagokien eskumenei buruzko I. Tituluko 7. artikuluan:

***1.– Gizon eta emakumeen berdintasunaren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dagokie, banaka edo herri horietako mankomunitateen bitartez edo legea betetzeko eratutako mankomunitateen bitartez, honako eginkizun hauen arabera:***

***a) Egiturak, programak eta prozedurak egokitzea eta sortzea genero ikuspegia administrazioan txertatzeko.***

***b) Ekintza positiboko neurriak betearaztea toki mailan.***

***c) Toki mailako programazioa gobernuaren plangintza orokorraren eremuan eta foru aldundien programazioa.***

***d) Estatistika eguneratuak egokitzea eta gordetzea, toki-mailan esku hartzeko eremuetan gizon eta emakumeen egoera desberdina ezagutzea ahalbidetuko duten estatistikak hain zuzen.***

***e) Emakumeek eta gizonek toki mailan duten egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.***

***f) Gizon eta emakumeen desberdintasunaz eta berdintasuna sustatzeko beharrezko neurriez jabearazteko jarduerak egitea toki-mailan.***

***g) Tokiko araudiaren jarraipena egitea, baita gizon eta emakumeen berdintasunaren printzipioaren araberako aplikazioa ere.***

---

[1] 4/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, Emakume eta Gizonen Berdintasunerakoa

*h) Gizon eta emakumeen berdintasunari buruzko bitartekoez eta programez informatzea eta bideratzea herritarrak, baita diskriminazio anitza jasaten duten emakumeen oinarrizko eskubide sozialen jabetza bermatzeko programez edo zerbitzuez ere.*

*i) Programak edo zerbitzuak ematea, diskriminazio anitza jasaten duten emakumeen oinarrizko eskubide sozialez jabetzea bermatzeko asmoz, betiere zerbitzuen izaera dela-eta udal mailan eman behar badira.*

*j) Gizon eta emakumeen bizitza pertsonala eta familia eta lana bateratzeko gizarte-komunitateko bitartekoak eta zerbitzuak ezartzea, betiere, zerbitzuen izaera dela-eta udal mailan eman behar badira.*

*k) Erlazioak eta parte hartzeko eta lankidetzarako bideak ezartzea beste erakunde publikoekin eta pribatuekin, baldin eta beren helburuen edo eginkizunen arabera gizon eta emakumeen arteko berdintasuna toki-mailan lortzea bultzatzen badute.*

*l) Toki-mailan gertatzen diren sexu-diskriminazioak detektatzea eta horiek desagerrarazteko neurriak hartzea.*

*m) Haien eskumenen barruan agindu dakiekeen beste edozein eginkizun.*

*2.– Tokiko administrazioek aurreko paragrafoan ezarritako funtzioak eraginkortasunez betetzen laguntzeko, administraziook Euskal Autonomia Erkidegoaren laguntza teknikoa izango dute, baita foru administrazioen sustapen-neurri egokiak ere.*

Eta “Gizon eta emakumeen berdintasunerako planak” izeneko II. tituluaren 15. artikuluan, hauxe zehazten da:

***“Foru aldundiek eta udalek berdintasunerako planak edo programak onetsiko dituzte, Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorretan ezarritako gidalerroekin eta esku hartzeko ildoekin bat etorriz, eta ondorengoa bermatuko dute, beharrezko bitarteko material eta ekonomikoak eta giza bitartekoak erabiliz: foru aldundietako sailetan, erakunde autonomoetan eta sozietate publikoetan eta menpeko beste erakunde publikoetan edo horiekin lotutakoetan eraginkortasunez eta koordinatuta betearaztea planetan eta legean ezarritako neurriak. Udalek banaka edo mankomunitate gisa edo horretarako eratuko diren mankomunitate gisa egin ditzakete jarduketak. Hartara, Eusko Jaurlaritzaren laguntza teknikoa eta foru aldundien diru-laguntza izango dute, bereziki, ekonomi eta kudeaketarako ahalmen txikiena dutenek”.***

Bestalde, Emakundek 2006an onetsitako **EAEko Gizon eta Emakumeen berdintasunerako IV. Plana** argitaratu du2. Plan horretan, VIII. Legegintzaldian berdintasunaren arloan euskal botere publikoen jarduera bideratu behar duten gidalerroak bildu dira. Aurreko hiru planak indarrean izan diren hiru urteetako eboluzioaren eta aurrerapenen emaitza gisa sortu da, Gizon eta Emakumeen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen onespena irekitzen duen marko berrian.

[2] Plana helbide honetan aurki daiteke: www.emakunde.es

EAEko Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako IV. Planak bere egin ditu ekintza positiboa eta genero-ikuspegia edo mainstreaming-a txertatzea. Estrategia horiek gehitze-efektua dakarte eta berdintasunerako helburuak lortzen laguntzen dute. Zehazkiago, IV. Planean, lau ardatz bildu dira, berdintasunaren arloan esku hartzeko zutabe handiak biltzen dituztenak –mainstreaming-a, jabetza eta gizarte-politikan parte hartzea, baterako erantzukizuna eta bateratzea eta emakumeen kontrako indarkeria-; eta bestetik esku-hartze horiek diseinatzeko, ezartzeko eta betearazteko eremu instituzional nagusiak egituratzen dituztenak: kultura, hezkuntza, lana, gizarteratzea, osasuna, hirigintza eta ingurumena. Arlo horietan, datozen urteetan landuko diren berdintasunerako politiken arloko lehentasunak zehazten dira ardatz estrategikoetan.

Horren ondorioz, Durangoko Emakumeen eta Gizonen I. Berdintasunerako Plana diseinatzeko, aipaturiko bi neurri horiek eta bertako mandatuak hartu dira, garaturiko oinarrizko printzipioak udal honetan egokitzeko eta zehazteko.

# 5. DURANGON EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA LORTZEKO ESTRATEGIAK

| BERDINTASUN PLANA | | | |
|---|---|---|---|
| GENERO MAINSTREAMINGA | AHALDUNTZEA ETA PARTE–HARTZE POLITIKOA | BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA | EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA |
| ZER DA?<br>Politika publikoetan genero ikuspegia integratzea. Genero-ikuspegia integratzen badugu, esku-hartze publikoan emakume eta gizonen egoera, baldintza eta premia ezberdinak modu sistematikoan aintzat hartzea lortuko dugu, batzuen eta besteen abiapuntua kontuan hartuz. | ZER DA?<br>Ardatz hau emakumeen kontzientziazio-prozesuekin lotuta dago (banakakoa eta taldekoa). Emakumeak gizarte, politika eta ekonomia alorretan indartzea beharrezkoa da aukera-berdintasuna lortzeko. Emakumeak kanpoan uzten ez dituen botere-eredu berri bat eraikitzea da ardatz honen azken helburua, emakumeen autonomia fisikoa, ekonomikoa, politikoa eta soziokulturala lortuz. | ZER DA?<br>Bizitzaren maila guztiak harmonizatzea du helburu ardatz honek, horretarako bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea erraztuz. Nola?<br>▪ etxeko lanetan gizonek erantzunkidetasuna izan dezaten bultzatuta;<br>▪ enpleguaren egiturak bizitza pertsonalaren eta familiaren beharretara egokituta;<br>▪ eta, zerbitzu sozio-sanitarioak eta laguntza ekonomikoak egokituta. | ZER DA?<br>Emakumeen eta gizonen arteko desorekaren adierazpen larrienetako bat da emakumeen aurkako indarkeria. Giza eskubideen urraketa larria eta onartezina da eta desagerrarazteko ezinbestekoa da biktimei babesa eta arreta emateko neurriak eta baliabideak antolatzea. |

# 6. DURANGOKO EMAKUME ETA GIZONEN I. BERDINTASUN PLANERAKO EGITURA ETA KUDEAKETA

Durangoko Emakume eta Gizonen I Berdintasun Plana, aipatu bezala, 4/2005 Emakume eta Gizonen Berdintasun Legearen eta EAEko Gizon eta Emakumeen berdintasunerako IV. Planaren arabera kudeatu behar da. Ondorioz, Planak Udaleko maila guztietan berdintasun-politiken garapena, eraginkor bihurtu behar du.

Berdinsareak, Eudelek eta Emakundek idatzitako "Tokiko berdintasun planak diseinatzeko, kudeatzeko eta balioesteko gidak", Planaren prozesu osoan zehar (diseinua, kudeaketa eta ebaluazioa), udaleko berdintasun politikaren ardura duen ordezkari politikoaren lidergoa eta parte-hartzea beharrezkoa dela aipatzen du. Lidergoa edozein Planetan arrakastarako ezinbesteko baldintza izanik, alkatearen, Aitziber Irigoras, eta Berdintasun Arloaren ardura duen zinegotziaren, Goiztidi Diaz Basterra, lidergoa eta aliantza funtsezkoak dira.

Plana **zeharkakotasunaren** ikuspegitik egingo da, hots, udalaren arlo eta zerbitzu guztiek bere gain hartutakoa da, bai ekintzen kudeaketa ekonomikoetan eta burutzapenean islatu den konpromiso formal gisa, bai emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunaren aldeko konpromiso formal gisa; konpromiso pertsonal horrek erantzukizunak bere gain hartzeko eta berdintasunerako politiken arloko gaikuntza saioetan izateko prozesuan izango du isla. Hala, helburu oro lortzeko, helburu bakoitzarekin lotzen da udaleko arlo arduraduna.

Plazaratutako helburuak eta Plana orokortasunean garatzeko hainbat lan-esparru edo egitura beharrezkoak dira. Hauetako bakoitzak bere funtzioak izango ditu. Jarraian, proposatutako egiturak eta funtzioak azaltzen ditugu:

## 6.1. Berdintasun saila

**Berdintasun planaren garapen eta jarraipen koherente eta koordinatua bermatzea**

| Funtzioak | Parte-hartzaileak | Iraupena |
|---|---|---|
| • Planaren testuinguruan aurrera eramango diren ekintza guztiak bultzatzea eta koordinatzea, planak koherentzia izan dezan.<br>• Planak esleitutako ekintza eta helburu zehatzak garatzea<br>• Planaren garapenean inplikatutako egitura guztiak koordinatzea<br>• Helburu eta denboren betetze-mailaren jarraipena egitea<br>• Neurri-zuzentzaileak proposatzea eta neurri hauen ezarpena baloratzea<br>• Planaren komunikazioa egitea<br>• Lortutako helburuak mantentzeko beharrezko ardurak zehaztea eta tresnak kudeatzea | • Berdintasun teknikaria(k)<br>• Programetan parte hartzen duten kanpo-eragile eta erakundeak. | 2009-2011 |

## 6.2. Berdintasun Kontseilua

**Berdintasun planaren garapen eta jarraipen koherente eta koordinatua bermatzea**

| Funtzioak | Parte-hartzaileak | Iraupena |
|---|---|---|
| • Berdintasunaren gaiaren inguruan Udalari aholkua ematea<br>• Helburu eta denboren betetze-mailaren jarraipena egitea<br>• Neurri-zuzentzaileak proposatzea eta neurri hauen ezarpena baloratzea<br>• Emakume-elkarteen arteko elkarlana bultzatzea<br>• Iritzia eta analisirako gaitasuna sortzea | • Berdintasun teknikaria(k)<br>• Emakume-elkarteetako ordezkariak<br>• Emakumeak (norbanakoak)<br>• Beste elkarteetako ordezkariak<br>• Alderdi guztietako ordezkari politikoak<br>• Sindikatuen ordezkariak<br>• Inmigrazio saileko ordezkaria | 2009-2011 |

| 6.3. Berdintasunerako Batzorde Politikoa<br>**Planaren inplantazioa, jarraipena eta ebaluazioa bermatzea** | | |
|---|---|---|
| **Funtzioak** | **Parte-hartzaileak** | **Iraupena** |
| • Planaren helburuen betetze-mailaren jarraipena eta kontrol politikoa egitea<br>• Neurri-zuzentzaileak proposatzea eta neurri hauen ezarpena baloratzea<br>• Berdintasun Kontseilutik jasotzen diren proposamenak lehenestea. | • Berdintasun zinegotzia<br>• Arduradun politikoak<br>• Berdintasun teknikaria<br>• Berdintasun kontseiluaren ordezkaria(k) | 2009- 2011 |

| 6.4. Sailen arteko berdintasunerako mahai politikoa<br>**Barneko Berdintasun Planaren garapen tekniko koherente eta koordinatua bermatzea eta baita Planaren jarraipena egitea ere** | | |
|---|---|---|
| **Funtzioak** | **Parte-hartzaileak** | **Iraupena** |
| • Sail guztietatik berdintasun-politiketan garatzen diren erabakiak koordinatzea<br>• Helburu eta denboren betetze-mailaren jarraipena egitea<br>• Neurri-zuzentzaileak proposatzea eta neurri hauen ezarpena baloratzea<br>• Udaleko Berdintasun Plana era egoki batez garatzeko beharrezko tresnak eta baliabideak bermatzea eta ardurak zehaztea | • Berdintasun zinegotzia<br>• Sail bakoitzaren arduradun politikoa<br>• Berdintasun teknikaria | 2009- 2011 |

## 6.5. Sailen arteko berdintasunerako mahai teknikoa

**Barneko Berdintasun Planaren garapen tekniko koherente eta koordinatua bermatzea eta baita Planaren jarraipena egitea ere**

| Funtzioak | Parte-hartzaileak | Iraupena |
|---|---|---|
| • Planaren testuinguruan aurrera eramango diren ekintza guztiak bultzatzea eta koordinatzea, planak koherentzia izan dezan.<br>• Helburu eta denboren betetze-mailaren jarraipena egitea<br>• Neurri-zuzentzaileak proposatzea eta neurri hauen ezarpena baloratzea<br>• Planaren komunikazioa egitea<br>• Lortutako helburuak mantentzeko beharrezko ardurak zehaztea eta tresnak kudeatzea | • Berdintasun teknikaria/k<br>• Sail desberdinetako teknikariak<br>• Berdintasunaren alde lan egin nahi duten udaleko langileak | 2009- 2011 |

## 6.6. Herritarren mahaia

**Planaren jarraipena eta balorazioa egitea**

| Funtzioak | Parte-hartzaileak | Iraupena |
|---|---|---|
| • Helburu eta denboren betetze-mailaren jarraipena egitea<br>• Neurri-zuzentzaileak proposatzea eta neurri hauen ezarpena baloratzea<br>• Iritzia eta analisirako gaitasuna sortzea | • Berdintasun teknikaria<br>• Berdintasunaren alde lan egin nahi duten herritarrak<br>• Lantaldeetako ordezkariak | 2009-2011 |

2009ko ekitaldian, ************ €-ko aurrekontua izango du Udaleko Berdintasun Sailak, hots, udalaren kontuen urteko aurrekontu osoaren % *******.

Plan honen **edukiak** kargu politikoekin, udalaren eta erakunde autonomoetan eta sozietate publikoen teknikariekin eta gizarte eragileekin adostu dira hausnarketa-aldi baten ondoren. Herritarren ekarpena garrantzitsua izan denez, feed-back-erako bidea zabaltzen da. Honen bidez gizarte eragileek planaren burutzapenari buruz dituzten iritziak bilduko dira urtero. Horretarako, buruturiko ekintzei buruzko informazioa eman eta balorazioa bilduko da jarraipenerako tresna baten bidez.

EAEko IV. Berdintasunerako Planean garatzen den egiturak finkatzen du planaren egitura, hots, arloetan zeharkakotasuna dakarten ardatzek eta arlo bakoitzari edukia ematen dioten helburuek.

Azaldu denez, zeharkakotasunerako **lau ardatz nagusiak** dira planaren elementurik esanguratsuenak: genero-mainstreaming-a, gizarte-politikako jabetzea eta partaidetza, bizitza pertsonala eta familia eta lana uztartzea eta baterako erantzukizuna eta emakumeen kontrako indarkeria.

Bestalde, jarduteko oinarrizko **zortzi arlo** ezartzen dira: Udalaren zerbitzu orokorrak, euskara eta kultura, kirola, hezkuntza, lana, gizarteratzea, osasuna eta hirigintza, garraio publikoa eta ingurumena.

Ardatz bakoitzeko helburuak zabaltzen dira arlo bakoitzean. Horiek guztiek ebaluazio **adierazleak**, ekintzak errazteko **estrategiak**, **ekintza** horiek eta esleituriko pertsonal **arduraduna** dituzte.

Aurkezten diren ekintzak gomendaturiko estrategien garapen zehatzagoa eta konkretuagoa dira, eta **Tresna** motako identifikazio bat gehitu da, erakundeen jarduera mota guztiak sailkatzeko asmoz. Jarraian, tresna bakoitza definituko da:

- Ezagutza: gai jakin baten inguruko ezagutza handitzeko ekintzak dakartza hala nola ikerketak, azterlanak eta era guztietako azterketak.
- Jabearaztea: talde jakin bat edo talde-multzo jakin bat informatzeko, komunikatzeko edota jabearazteko ekintza guztiak dakartza, hala nola kanpainak egitea, parte hartzeko prozesuak, hitzaldiak, jardunaldiak eta kongresuak.
- Trebakuntza: talde bateko edo talde-multzo bateko berdintasunerako politikak garatzeko edo betetzeko gaitasunak emateko eta sustatzeko ekintza guztiak dakartza.
- Zerbitzuak eta bitartekoak: berdintasunaren helburua errazten duten giza baliabideak, baliabide ekonomikoak, azpiegiturak edo edozein eratako baliabideak handitzeko ekintza guztiak eta horretarako zerbitzuak dakartza.
- Arauak: berdintasuna errazten duen edozein araudi mota sortzea edo egokitzea dakar.
- Jarraipena: ekintza edo arau baten betetze-maila edo arrakasta edo porrota aztertzeko ekintza guztiak biltzen ditu, hala nola prozesuaren, emaitzen eta eraginen ebaluazioak.

# 7. DURANGOKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO I PLANAREN JARRAIPEN ETA EBALUAZIO EREDUA

2009-2011 Berdintasun Plana urteko planen bidez antolatu eta garatuko da. Urte bakoitzaren hasieran, urte horretan martxan jarriko diren ekintzak identifikatu eta planifikatuko dira eta ekintzen aurrekontua ere eginda egongo da. Urte amaieran, egindakoa eta egin gabekoa baloratuko da eta hauxe kontuan hartuz eta hiru urterako Plana dela kontuan hartuz, hurrengo urteko plana zehaztuko da.

Era honetan, urteko planak eta hauen aurrekontuak ebaluazioarekin lotura estua izango dute. Aipatutako ebaluazioa, sortuko diren egitura guztietan aldizka egingo da urtea amaitu aurretik.

Ezarriko dugun ebaluazio ereduari esker, baterako gogoeta egin ahal izango da ekintzak planifikatzerakoan, plana burutzen ari denean eta plana amaitutakoan. Horrek planaren jarduerei, emaitzei eta eraginei buruzko balorazio-irizpenak emateko beharrezko informazioa emango digu, irizpen oinarrituak eta komunika daitezkeenak. Horren ondorioz, ekintza doitzeko eta geroko ekintza hobetzeko modua emango duten erabakiak hartzeko ondorioak eta gomendioak lortuko dira.

Une honetan ebaluazio eredu bat ezartzea interesak helburu hauen inguruan planifikatzea da:

- Durangoko Emakumeen eta Gizonen I. Berdintasunerako Plana aplikatzearen emaitzak ezagutzea.
- Emaitza horiek planean zehazturiko irizpideen arabera baloratzea.
- Planaren ekintzekin berekin eta datuak biltzeko prozesuarekin lotutako arazoak.
- Geroko planak aplikatzeko gomendioak ezartzea.
- Informazio interesgarria egituratzea eta erreferentzia izan daitezkeen adierazleak egitea.

Ebaluazio eredu horren ezaugarri nagusia metodologia partehartzaileak eta mistoak erabiltzea da, baita jarraitua izatea, jarduteko arduradunen esleipena eta ekintzak hobeto sistematizatzeko proiektu guztiak batzea eta emaitzak bilatzea ere. Jarraian, ezaugarri horiek azalduko dira:

- Ebaluazio mistoa da, Udalaren beraren barne pertsonalak, pertsonal politikoak eta teknikoak parte hartu dutelako; udalaren erakunde autonomoetan eta sozietate publikoetako pertsonal teknikoak, gizarte eragileek eta kanpoko pertsonalak; eta pertsonal teknikoak, Udaleko Berdintasun Saileko teknikariak eta kanpo aholkularitza batek.

- Etengabeko ebaluazioa da, zeren eta esku hartu behar duen arlo bakoitzean berdintasunean dauden aurrerapenak ezagutzeko erreferentzia gisa balio duen diagnostikoa egiten baita. Ekintza eta helburu bakoitza amaitu ondoren, arduradunek eta inplikaturiko pertsonak ekintzon garapenean izandako lorpenak eta zailtasunak baloratuko dituzte. Hartara, helburu bakoitzak bere adierazleak ditu. Adierazle horiek zer neurtu behar den adieraziko dute eta berdintasunaren garapena interpretatzen lagunduko dute. Planaren indarraldia amaitutakoan, planaren betetze-maila ebaluatuko da.

- Arduradunekin egin beharreko ebaluazioa da. Ebaluazioko une bakoitzak bere arduradunak ditu: hasierako ebaluazioa sailen arteko mahai teknikoak jarriko du martxan arduradun politikoekin batera (sailen arteko mahai politikoa); Urteko jarraipen eta ebaluazioa Emakume Kontseiluak, Sailen arteko mahai teknikoak, sailen arteko mahai politikoak, Berdintasunerako Batzorde politikoak eta Hiritarren mahaiak egingo dute.

- Emaitzak gehituz egingo den ebaluazioa da, zeren eginiko prozesu guztiak laburbilduko baitira eta guztizko emaitzen balorazio orokorra eta azkena emango baita.

- Eta, azkenik, emaitzen ebaluazioa da, ekintzen produktuen (jarduerak, materialak, laguntzak) eta ondorioen azterketa egin beharko baita.

Analisirako metodologiak kontuan izango ditu hainbat iturritatik bildutako informaziotik lorturiko ezaugarri kuantitatiboak zein kualitatiboak. Horiexek izan daitezke bai datu-bankuak, argitalpenak, arloen informazioa, bai prozesuan sorturiko dokumentuak. Datuek helburu bakoitzerako eta garatu beharreko ekintza bakoitzerako ezarritako adierazleei emango diete erantzuna.

Hauexek dira balorazio-irizpideak:

- Eraginkortasuna, hots, Planak dakartzan esku hartzeko ildoetan eta neurrietan inplizituki ezarritako helburuen betetze-maila.
- Proiektuen estaldura eta planean integraturiko zerbitzuak erabiltzea.
- Aurrekontua betearaztea.
- Eta jarraipen prozesuan bildutako datuen kalitatea.

Jarraian, ebaluazio eredua laburbiltzen da taula batean, eta taula horrek Durangoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana (2009-2011) jarraitzeko eta ebaluatzeko bidea ematen du.

| Ebaluazioaren unea | Ebaluazio mota | Ebaluazioaren helburua | Ebaluazio-prozesua | Adierazleak | Informazio iturriak | Produktua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Plana diseinatzeko fasea (2008-2009)** | Hasierako ebaluazioa. Mistoa/partehartzailea:<br><br>Udaleko pertsonala (kargu politikoak eta teknikoak), udalaren kanpoko pertsonala (erakunde autonomoetan eta sozietate publikoak eta gizarte eragileak) eta udalaren kanpoko teknikariak | Udaleko sailen egoera orokorrari buruzko diagnostikoa egitea.<br><br>Planaren egokitasuna emakumeen eta gizonen beharren arabera baloratzea genero-ikuspegitik.<br><br>Udalak plana aplikatzeko duen iragazkortasuna baloratzea. | Sailei buruzko datu kualitatiboak biltzea.<br><br>Inplikaturiko eragileekiko erkaketa galdetegien bidez | Planarekiko adostasun maila<br><br>Plana osatzen duten elementuen elkarrekikotasun maila<br><br>Arloen arteko iragazkortasun-indizea<br><br>Emakume eta gizon partehartzaileen kopurua, karguak eta eremuak. | (2007-2008) Emakume eta Gizonen berdintasunaren inguruko diagnostikoa<br><br>Saioak gizarte eragileekin, arduradun politikoekin, Udaleko teknikari eta erakunde autonomoetan eta sozietate publikoetako teknikariekin | Berdintasunerako I. Plana ezartzeko abiapuntuko egoerari buruzko dokumentua |

| Ebaluazioaren unea | Ebaluazio mota | Ebaluazioaren helburua | Ebaluazio-prozesua | Adierazleak | Informazio iturriak | Produktua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Planaren burutzapenean (2009-2011)** | Prozesuaren ebaluazioa. Mistoa/partehartzailea:<br><br>Udalaren pertsonala (kargu politikoak eta teknikoak), udalaren kanpoko pertsonala (erakunde autonomoetan eta sozietate publikoak eta gizarte eragileak) | Urteko jarduketa planaren betetze-mailaren jarraipena eta balorazioa egitea.<br><br>Hurrengo epealdirako plangintzarako hobekuntzak antzematea. | Ebaluazioaren programazioa: koordinazio eta balorazio bilerak arduradunekin, denbora-muga, plangintza eta ebaluaziorako tresnen erabilerari buruzko adostasuna<br><br>Arlo guztien informazioa biltzea<br><br>Antzematea eta adostasuna lortzea lorpenei eta hobetu beharreko aldeei buruz | Koordinazio ereduaren tipologia.<br><br>Buruturiko ekintzen kopurua eta eginiko gastua.<br><br>Lorturiko helburuen kopurua.<br><br>Helburuen betetze-mailarekiko gogobetetasun maila eta tipologia, aurrekontua eta kronograma.<br><br>Hobetzeko proposamenaren tipologia.<br><br>Emakume eta gizon parte-hartzaileen kopurua, karguak eta eremuak. | Izandako bileren aktak.<br><br>Programaturiko ekintzen jarraipen-fitxak<br><br>Jarraipen-fitxen laburpenaren baterako balorazioa. | Urteko jarduketa planaren balorazioari buruzko memoriak. |

ELHUYAR aholkularitza

DURANGO
Udala · Ayuntamiento

| Ebaluazioaren unea | Ebaluazio mota | Ebaluazioaren helburua | Ebaluazio-prozesua | Adierazleak | Informazio iturriak | Produktua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Plana amaitutakoan (2011-2012)** | Emaitzen ebaluazioa Mistoa/partehartzailea<br><br>Udalaren pertsonala (kargu politikoak eta teknikoak), Udalaren kanpoko pertsonala (erakunde autonomoetan eta sozietate publikoak eta gizarte eragileak) eta Udalaren kanpoko teknikariak. | Planaren betetze-maila baloratzea<br><br>Durangoko berdintasunerako udal politiken eragina baloratzea<br><br>Durangoko emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko geroko proposamenak aurreratzea. | Prozesuan inplikaturiko pertsonen balorazioen bilketa eta laburpena<br><br>Eragin-maila kalkulatzea plana aplikatzean izandako lorpenen arabera<br><br>Emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko aukerak eta arriskuak antzematea. | Planaren helburu estrategikoen betetze-maila.<br><br>Durangoko berdintasunerako politiken marjinaren maila, abiapuntuko egoerarekiko.<br><br>Berdintasunerako puntu indartsuen kopurua eta tipologia<br><br>Emakume eta gizon partehartzaileen kopurua, karguak eta eremuak. | Urteko memoria<br><br>Galdetegia eta elkarrizketak gizarte eragileekin, kargu politikoekin, udalaren pertsonal teknikoa eta erakunde autonomoetan eta sozietate publikoak<br><br>AMIA | "Durangoko Udaleko Berdintasun Politiken inguruko ebaluazio globala" Txostena |

# 8. DURANGOKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUN PLANAREKIN LOTUTAKO HELBURUAK

## HELBURU OROKORRAK

| | ZEHARKAKOTASUNA | AHALDUNTZEA | BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA | EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA |
|---|---|---|---|---|
| ZERBITZU OROKORRAK | **Z1.**- Genero-ikuspegia txertatzeko modua antolatzeko programak sortzea. | **A1.**- Udaleko prozesuak gehitzea eta indartzea emakumeek parte har dezaten politika publikoen definizioan, jarraipenean eta ebaluazioan<br>**A2.**- Durangoko Berdintasun Kontseilua sustatzea Durangon emakume eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko | **B1.**- Lanabesak sortzea udalean eta erakunde autonomoetan eta sozietate publikoetan bateratzea eta baterako erantzukizuna izatea lortzeko | **I1.**- Administrazioaren koordinazioa bultzatzea eta hobetzea emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko |
| EUSKARA ETA KULTURA | **Z1.**- Genero-ikuspegia kulturako arloetan txertatzea. | **A1.**- Emakumeen presentzia eta parte-hartzea eremu kulturalean.<br>**A2.**-. Berdintasuna bultzatzen elkarte-sare soziokulturalen sustatzea | **B1.**- Kultura-arloan bateragarritasun- eta erantzunkidetasun-neurriak areagotzea | **I1.**- Sexismoa desagerraraztea bultzatzea gizarte-kulturako eremuetan. |
| KIROLA | **Z1.**- Gazteria, kirola eta hezkuntza alorrean genero-ikuspegia txertatzea | **A1.**- Emakumeen presentzia eta parte-hartzea sustatzea kirol-eremuetan. | **B1.**- Udaleko kirol-zerbitzu eta baliabideak egokitzea emakumeen beharrizanetara. | **I1.**- Gizon eta emakumeen arteko ez-lehiakortasuna eta berdintasuna bultzatzen duten balioen sustapena. |
| HEZKUNTZA | **Z1.**- Ikastetxeetan eta aisialdi taldeetan baterako hezkuntza sustatzea | **A1.**- Neskatilen eta emakumeen presentzia eta parte-hartzea sustatzea hezkuntza eremuetan. | **B1.**- Baterako erantzukizunerako eta zaintzaren etikarako kultura sustatzea.<br>**B2.**- Ikastetxeetako azpiegituren eta denboraren egokitzapena eta berrantolaketa. | **I1.** Indarkeri sexistaren prebentzioa gizarte-hezkuntzan |
| LANA ETA ENPLEGUA | **Z1.**- Enplegu zerbitzuetan genero-ikuspegia txertatzea | **A1.**- Enplegua lortzeko berdintasun baldintzak bermatzea<br>**A2.**- Administrazio publikoan eta eremu pribatuan emakume eta gizonen lan-baldintzak parekatzeko sentsibilizatzea | **B1.**- Udalean eta erakunde autonomoetan eta sozietate publikoetan laguntza-zerbitzuak eta bizitza pertsonala eta familia eta lana bateratzeko neurriak eta zerbitzuak ezartzea | **I1.**- Laneko sexu-jazarpena prebenitzea eta desagerraraztea |
| GIZARTARATZEA | **Z1.**- Gizarte zerbitzuetan genero-ikuspegia txertatzea | **A1.**- Diskriminazio anitza duten eta bazterketa-arriskuan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzea. | **B1.**- Autonomia funtzionalik ez duten pertsonei laguntzeko gizarte-komunitateko bitartekoak. | **I1.**- Etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen prebentzioa eta laguntza hobetzea. |
| OSASUNA | **Z1.** Emakumeei gehien eragiten dieten gaixotasunetarako laguntza hobetzea | **A1.**- Emakumeek haien osasunaren inguruan, erabaki gehiago hartzea. | **B1.**- Autonomia funtzionalik ez duten pertsonei laguntzeko gizarte-komunitateko bitartekoak. | **I1.**- Indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako laguntza fisikoa eta psikologikoa hobetzea. |
| HIRIGINTZA, GARRAIO PUBLIKOA ETA INGURUGIROA | **Z1.**- Genero-ikuspegia txertatzea hirigintza, garraio- eta ingurumen-proiektuetan eta -politiketan. | **A1.**- Emakumeen partaidetza eta berdintasuna hirigintza-, garraio- eta ingurumen-eremuak planifikatu, diseinatu eta hobetzeko prozesu guztietan.<br>**A2.**- Emakumeen ekarpen soziala, kulturala eta historikoa onartzea gune publikoan. | **B1.**- Bizitza pertsonala eta lan eta familia bateratzeko prozedura eta autonomia pertsonalera egokitzea hirigintza- eta garraio-azpiegiturak. | **I1.**- Emakumearen segurtasuna eta segurtasun irudikapena hobetzea. |

# ARLOAK, HELBURU OROKORRAK, GARATU BEHARREKO EKINTZAK

## UDALEKO ZERBITZU OROKORRAK

| ABIATZE-EGOERA |
|---|
| Udalak betetzen du kargu politikoen kopuruari buruzko legeak ezartzen duena (emakumeak, % 40). Gizonezko zinegotziak emakumezkoak baino gehiago dira, baina alkatetza emakume batek du[3].<br><br>Langileen artean ere, gizonezkoak emakumezkoak baino gehiago dira: gizonezkoak dira langileen % 57, eta % 43, emakumezkoak. Zerbitzurik gehienetan A maila duten langileak gizonezkoak dira.<br><br>Nolabait esatearren, “emakumeen” sailak (zerbitzu orokorrak, erakunde autonomoetan eta sozietate publikoak...) eta “gizonen” sailak (zerbitzu teknikoak, herritarren segurtasuna…) daude udalean.<br><br>Genero-ikuspegia kontuan hartzen saiatzen dira, udalak antolatzen dituen programa eta jardueretan. Batzuetan, genero-aldeak ez dituzte hautematen udaleko teknikariek. Prestakuntza hobea eta Berdintasun Sailean koordinazio handiagoa behar dira. Ez dago koordinaziorik Udaleko Berdintasun Sailaren eta gainerako sailen artean. Ez dago adostutako helburu komunik.<br><br>Genero-ikuspegia aplikatzeko baliabide eta irizpide falta dago.<br><br>Arduradun politikoen babes handiagoa behar da. Berdintasunari dagokionez, premia politikoak zehaztu behar dira, teknikariek konpromiso handiagoa har dezaten eta Durangoko Udalean berdintasuna errealitate bihur dadin. |

[3] Diagnostikoa egin zen unean gizon bat zen alkate.

## ZEHARKAKOTASUNA

**HELBURU NAGUSIA**

**Z1.** Udalean genero-ikuspegia nola sartu antolatzeko programak sortzea.

**HELBURU ERAGILEA**

**Z1.1.** Beharrezko jarduerak diseinatzea, bultzatzea eta balioestea, genero-ikuspegia udaleko sailetan eta udalaren mendeko erakundeetan ezartzea ahalbidetu, erraztu eta sustatzeko.

Adierazleak

- Estatistikak hobetzeko egindako jarduera-kopurua, genero-ikuspegia integratzeko tresna gisa.
- Politikariei eta teknikariei berdintasun politikei eta genero-ikuspegiari eta asebetetze-mailari buruz emandako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardueren kopurua
- Genero-ikuspegiari eta berdintasun-politikei buruzko prestakuntza jaso duten gizon-emakumeen kopurua.
- Genero-ikuspegia integratu duten udaleko sailen eta udalaren mendeko erakundeen kopurua.
- Sailen arteko koordinazio-ereduaren tipologia, parte hartu duten pertsonak (sexuka, karguka eta sailka bereizita) eta bilera-kopurua.
- Genero-ikuspegia kontuan hartu duten kontratu-deialdien kopurua.

Estrategiak

- Udaleko sailetan eta erakunde autonomoetan eta sozietate publikoetan genero-ikuspegia zenbateraino ezarri eta iragazkortu den diagnostikatzea.
- Politikariei eta teknikariei *mainstreaming*ari buruzko prestakuntza ematea.
- Emakumeen eta gizonen arteko Berdintasun Plana egitea

**Ekintzak**

| Tresna | Ekintza |
|---|---|
| Ezagutza | **Z1.1.1.** Udaleko langileen artean genero-diskriminaziorik edo genero-estereotiporik badagoen aztertzea (soldatak, “kristalezko sabaia”, “lurzoru itsaskorra”, bereizketa horizontala…), eta hobekuntzarako ildoak gomendatzea.<br>**Z1.1.2.** Sailetako tresnak, prozesuak, programak eta jarduerak aztertzea, genero-ikuspegiaren gaineko irizpideak, gomendioak eta egokitzapenak erabakitzeko.<br>**Z1.1.3.** Genero-ikuspegia udaleko eta haren mendeko erakundeetako azterketetan eta estatistiketan zenbateraino sartu den aztertzea. |
| Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea | **Z1.1.4.** Hizkuntza (euskara eta gaztelera) ez-sexista erabiltzeko eskuliburua zabaltzeko eta bultzatzeko barne-kanpaina egitea. |
| Prestakuntza | **Z1.1.5.** Politikariak eta teknikariak sentsibilizatzeko eta prestatzeko, genero-ikuspegiari eta berdintasun politikei buruzko ikastaroak egitea, (eta Berdintasunari buruzko 4/2005 Legeari eta Udal Planari aipamen berezia egitea). |
| Zerbitzuak eta baliabideak | **Z1.1.6.** Sail arteko mahai tekniko bat sortzea, Planaren jarduera-ildoak koordinatzeko, eta, era berean, Berdintasunerako Batzorde politikoarekin koordinatzeko. Horretarako, osaera, funtzioak, ardurak eta barne-komunikaziorako metodoak egokitu behar dira.<br>**Z1.1.7.** Administrazioak erakundeekin egiten dituen lizitazioetan eta adjudikazioetan genero-irizpideak sartzea. |

**Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak**

- Alkatea
- Udaleko sail guztiak
- Politikariak eta teknikariak
- Erakunde autonomoak eta sozietate publikoak

| AHALDUNTZEA | |
|---|---|
| **HELBURU NAGUSIA** | |
| **A1.** Udaleko prozesuak areagotzea eta indartzea, emakumeek politika publikoak definitzen parte har dezaten, eta horien segimendua eta ebaluazioak egiten ere bai. | |
| **HELBURU ERAGILEA** | |
| **A1.1.** Parte-hartze prozesuak egin daitezen sustatzea, eta gizarte-prozesu eta erabakiak hartzeko prozesu guztietan emakumeak eta emakume-elkarteak egongo direla bermatzea, parte-hartzeetan emakumeen heterogeneotasuna kontuan hartuta (gazteak, helduak, alargunak, immigranteak…). | |
| Adierazleak<br>• Udalak abian jarritako prozesu parte-hartzaileen kopurua, eta bertaratzen diren emakumeen ehunekoa.<br>• Parte hartzen duten emakumeen profilak.<br>• Emakumeek egindako ekarpen- eta alegazio-kopurua.<br>• Emakumeek udaleko ekitaldi publikoetan duten partaidetza-mota. | |
| Estrategiak<br>• Partaidetza-prozesuak sustatzea.<br>• Partaidetza-prozesu horietan emakumeek parte har dezaten sustatzea. | |
| **Ekintzak** | |
| Tresna | Ekintza |
| Arauak | **A1.1.1.** Udalaren ekitaldi publikoetan, planetan, programetan eta jardueretan emakumeak protagonista izan daitezen, parte har dezaten eta erabakiak hartzeko bideak izan ditzaten arauak eta jarraibideak ezartzea. |
| **Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak** | |
| - Alkatea<br>- Udaleko sail guztiak<br>- Erakunde autonomoetan eta sozietate publikoak | |

**HELBURU NAGUSIA**

**A2.** Durangoko Emakumeen Kontseilua bultzatzea, Durangoko emakumeen eta gizonen artean berdintasun eraginkorra lortzeko.

**HELBURU ERAGILEA**

**A2.1.** Durangoko Berdintasun Batzordea sustatzea, herriko emakume-elkarteen eta berdintasunaren aldeko lana egiten duten erakundeen ordezkariekin batera.

Adierazleak

- Berdintasunaren aldeko lana egiten duten erakundeei eta Emakumeen Batzordean lanean dihardutenei diru-laguntzak zenbatean gehitu zaizkien.
- Batzordea eta Andragune elkartea zabaltzeko egindako kanpaina-kopurua eta horien tipologia.
- Emakumeen Batzordearen eta Udalaren arteko harremanen asebetetze-maila.

Estrategiak

- Emakumeen Batzordean parte hartzen duten erakundeei eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra sustatzen duten erakundeei laguntzak, zerbitzuak eta baliabideak ematea, eta laguntza, zerbitzu eta baliabide horiek indartzea.
- Dauden mekanismoak sustatzea (Emakumeen Batzordea), elkarteen eta udalaren berdintasun alorreko arduradunen arteko harremanen eta komunikazioaren eredu direlako.

**Ekintzak**

| Tresna | Ekintza |
| --- | --- |
| Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea | **A2.2.1.** Durangon, herrian lanean dihardüen Emakumeen Batzordea badagoela ezagutaraztea, eta zer funtzio dituen eta zer lan egiten duen jakitera ematea, kontseilu horri eta kontseilua osatzen duten emakumeei eta erakundeei izena emateko. |
| Zerbitzuak eta baliabideak | **A2.2.2**. ANDRAGUNE ezagutzera ematea, eta programa bidez indartzea. |
| Arauak | **A2.2.3.** Emakumeen Batzordeak plan hau gauzatzeko, eta planaren segimendua egiteko eta ebaluatzeko zer funtzio izango dituen adostea. |
| Segimendua | **A2.2.4.** Emakumeen Batzordearen arrakasta, aukerak eta indarguneak balioestea, Durangoko emakumeek Udalaren politika publikoetan zer eragin duten jakiteko. |

**Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak**

- Berdintasun Saila
- Emakumeen Kontseilua
- Udal ordezkariak

<table>
<tr><th colspan="2">BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUKIDETASUNA</th></tr>
<tr><td colspan="2">HELBURU NAGUSIA</td></tr>
<tr><td colspan="2">B1. Udalean eta haren mendeko erakundeetan bateragarritasuna eta ardura partekaturako tresnak sortzea.</td></tr>
<tr><td colspan="2">HELBURU ERAGILEA</td></tr>
<tr><td colspan="2">B1.1. Erantzunkidetasuna eta bateragarritasuna sustatzeko tresnak eta erremintak sortzea, eta lan-prozesuak eta koordinazioa garatzea.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Adierazleak<br>• Antolaketan aldaketak errazteko erabilitako tresna-kopurua<br>• Emakumeak eta Gizonak Bateratzeko Udalaren Planak duen adostasun-maila.<br>• Parte hartu duten prestakuntza-tailerren eta gizonen kopurua.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Estrategiak<br>• Udalean eta mendeko erakundeetan diagnostiko bat egitea, eta behar izanez gero, bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lana bateratzeko plan bat egitea.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Ekintzak</td></tr>
<tr><td>Tresna</td><td>Ekintza</td></tr>
<tr><td>Ezagutza</td><td>B1.1.1. Beharren diagnostikoa egitea, eta bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lana bateratzea errazteko neurri-sortak sortzea.</td></tr>
<tr><td>Prestakuntza</td><td>B1.1.2. Udaleko politikarientzat eta teknikarientzat prestakuntza-lantegiak egitea, gizonek adiskidetzeko espiritua eta erantzunkidetasunaren aldeko jarrera har dezaten. Ikastaroetara gizonek joan behar dute.</td></tr>
<tr><td>Arauak</td><td>B1.1.3. Udalaren Bateragarritasun-plana egitea, beharren diagnostikoaren arabera, bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lana bateratzeko</td></tr>
<tr><td colspan="2">Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak</td></tr>
<tr><td colspan="2">- Alkatea<br>- Ogasun, Langile eta Udaltzaingo Saila<br>- Sindikatu-ordezkariak<br>- Udalaren erakunde autonomoetan eta sozietate publikoetako zuzendaritza organoetako ordezkariak eta langileak.</td></tr>
</table>

ELHUYAR aholkularitza

DURANGO Udala · Ayuntamiento

**EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA**

**HELBURU NAGUSIA**

**I1.** Administrazio-koordinazioa bultzatzea, emakumeen aurkako indarkeriaren aurka borrokatzeko.

**HELBURU ERAGILEA**

**E1.1.** Durangoko Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-plana gauzatuko dela bermatzea.

Adierazleak

- Durangoko Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-plana zenbateraino gauzatu den.
- Emakumeenganako indarkeriaren aurka borrokatzeko egindako hedapen- eta sustapen-kanpainak.
- Egindako prestakuntza-mintegien kopurua.
- Prestakuntza-prozesuetan parte hartzen duten langileen hetereogeneotasun-maila.
- Ezarritako egitura- eta koordinazio-tipologia.

Estrategiak

- *Durangoko Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-plana.*

**Ekintzak**

| Tresna | Ekintza |
|---|---|
| Ezagutza | **I1.1.1.** Durangoko Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-plana zenbateraino gauzatu den aztertzea. |
| Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea | **I1.1.2.** Kanpaina publiko iraunkorrak eta koordinatuak egitea, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-plana, planeko edukiak, aurrerapenak eta Durangoko herritarrengan duen eragina ezagutarazteko.<br>**I1.1.3.** Eudelek azaroaren 25erako egingo duen kanpainan parte hartzea, hura sustatzea eta udaleko kanpainak hartara egokitzea. |
| Prestakuntza | **I1.1.4.** Udaleko politikariak eta teknikariak emakumeen aurkako indarkeriaren gainean heztea (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 6-8 EKINTZAK). |
| Arauak | **I1.1.5.** Koordinazio-egitura bat ezartzea, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-plana gauzatzeko, haren segimendua egiteko eta hura balioesteko. |
| Segimendua | **I1.1.6.** Durangoko Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-plana gauzatzen ari denean, haren segimendua egitea, koordinatzea eta ebaluatzea (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 16-17. EKINTZAK). |

**Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak**

- Alkatea
- Udaleko sail arteko Berdintasunaren mahai teknikoa eta politikoa.
- Parte hartzen duten udaleko sail guztiak (planean zehaztu dira).
- Emakumeen Batzordea.

## EUSKARA ETA KULTURA SAILA

| ABIATZE-EGOERA |
|---|
| Durangoko elkarteetan gizonek eta emakumeek ez dute parte-hartze bera. Aldea dago, bai elkarte-motaren, bai elkarteetan duten zereginaren arabera.<br>- Oro har, kirol-elkarteetan gizonak gehiago dira emakumeak baino; izaera sozialekoetan, berriz, emakumeak gehiago dira gizonak baino.<br>- Elkarteen zuzendaritza-organoetan, emakume baino gizon gehiago dago. Zuzendaritza emakumeen esku dagoen eredurik edo erreferenterik ez dago. Zuzendaritza-funtzioek gizonezkoen ereduari jarraitzen diete.<br><br>Elkarteetako arduradunek uste dute ezjakintasun handia dagoela berdintasunaren gainean, bai elkarteetan bai gizartean bertan.<br><br>Komunikabideek ez dituzte emakumezkoen erreferentziak bultzatzen. Kirol-munduan eta kulturan gizonezkoen ikonoak eta erreferentziak dira nagusi.<br><br>Erakunde erlijioso batzuei (Eliza Katolikoari, esate baterako) jarrera misoginoak utzi eta onartu egiten zaizkie. |

| ZEHARKAKOTASUNA | |
|---|---|
| **HELBURU NAGUSIA** | |
| **Z1.** Euskara eta Kultura Sailean genero-ikuspegia sartzea. | |
| **HELBURU ERAGILEA** | |
| **Z1.1.** Euskara eta Kultura Sailak kultura-jarduerak genero-ikuspegia kontuan hartuta planifikatzea, gauzatzea, haien segimendua egitea eta ebaluatzea. | |
| Adierazleak<br>• Genero-ikuspegia kontuan hartu duten erakunde- eta planifikazio-kopurua.<br>• Berdintasun-politikei eta emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunari buruzko prestakuntza-jardueretara joan diren teknikarien ehunekoa. | |
| Estrategiak<br>• Generoari buruzko heziketa.<br>• Politika publikoen diagnostikoan, diseinuan, gauzatzean eta ebaluazioan genero-ikuspegia kontuan hartzeko jarraibideen eta praktika onen gida egitea. | |
| **Ekintzak** | |
| Tresna | Ekintza |
| Ezagutza | **Z1.1.1.** Administrazioko langileentzat eta azpikontratatutako enpresetako langileentzat barne-hedapeneko gida bat egitea eta zabaltzea, kultura-jarduerak eta -programak diseinatzeko, planifikatzeko eta inplementatzeko kontuan hartu beharreko jarraibideei eta praktika onei buruz.<br>**Z1.1.2.** Kultura-arloan emakumeek dituzten nahiak, itxaropenak, beharrak eta interesak aditzera emateko diagnostikoa sustatzea. |
| Prestakuntza | **Z1.1.3.** Euskara eta Kultura Saileko langileak aukera-berdintasunean heztea, eta antolatzen diren kultura-programak eta -jarduerak planifikatzeko eta garatzeko orduan, genero-ikuspegia aztertzeko eta kontuan hartzeko gaitzea. |
| **Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak** | |
| - Udaleko Euskara eta Kultura Saila | |

## AHALDUNTZEA

**HELBURU NAGUSIA**

**A1.** Emakumeen jarduera eta partaidetza kultura-arloan.

**HELBURU ERAGILEA**

**A1.1.** Kultura-jardueretan Durangoko emakumeen ekarpen gehiago sartzea.

Adierazleak

- Emakumeek egindako zenbat ekarpen jaso diren gaurdaino.
- Elkarteei ematen zaizkien laguntzetarako dauden irizpide-kopurua eta -tipologia.
- Udaleko kultura-zerbitzuek antolatutako jardueretan emakumeen ekarpenak zenbatean gehitu diren azaltzen duen ehunekoa.

Estrategiak

- Kultura-arloetako eta -erakundeetako politikariak eta teknikariak sentsibilizatzea, lan-eremuak atzemateko.
- Zerbitzuetan emakumeek parte hartzeko eta egoteko gutxieneko kuotak ezartzea (esate baterako, liburutegian emakumeek idatzitako liburuen eta berdintasuna sustatzen duten liburu eta ipuinen ehuneko finkoa edukitzea).
- Durangon kulturaren eremuan lan egiten duten elkarteen eta emakumeen jarduera zabaltzeko kanpainak egitea.

**Ekintzak**

| Tresna | Ekintza |
|---|---|
| Ezagutza | **A1.1.1.** Kultura-ondarean emakumeek egindako ekarpen historikoak ikertzea eta sistematizatzea, bai eta emakumeek eta gizonek historikoki kultura nola sortu duten ere, bereziki euskal kultura nabarmenduz. |
| Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea | **A1.1.2.** Durangoko emakumeek kulturari egindako ekarpenak zabaltzea. |
| Arauak | **A1.1.3.** Emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna bermatzen duten irizpideak ezartzea, Durangoko elkarte edo erakundeei laguntzak emateko. |

**Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak**

- Udaleko Euskara eta Kultura Saila
- Kultura sustatzeko erakunde autonomoetan eta sozietate publikoak.
- Durangoko kultura-erakundeak.

| HELBURU NAGUSIA | |
|---|---|
| **A2.** Berdintasuna bultzatzen duten elkarte soziokulturalen sarea sustatzea. | |
| **HELBURU ERAGILEA** | |
| **A2.1.** Eremu soziokulturalean emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko lanean ari diren elkarteak bultzatzea. | |
| Adierazleak<br>• Emakumeek gizartean eta elkarteetan parte-har dezaten bultzatzeko aztertutako esperientzia-kopurua eta horien tipologia.<br>• Emakumeen elkarte soziokulturaletarako zerbitzuak eta baliabideak hedatzeko egindako kanpaina-kopurua.<br>• Berdintasunaren aldeko lana egiten duten erakundeei, bai emakume-taldeei bai emakumeen aldeko lana egiten dutenei, ematen zaizkien laguntzak zenbatean gehitu diren. | |
| Estrategiak<br>• Durangoko emakumeen egoera soziokulturala aztertzea.<br>• Dauden zerbitzuen eta baliabideen gida egitea.<br>• Durangoko emakumeen elkarte-sarearekin harreman egonkorra edukitzea.<br>• Berdintasunerako elkarteak sortzeko eta mantentzeko programak sustatzea.<br>• Elkarte-mugimenduaren eta berdintasuneko udal-arduradunen arteko harremanetarako eta komunikaziorako mekanismo egonkorrak ezartzea. | |
| **Ekintzak** | |
| Tresna | Ekintza |
| Ezagutza | **A2.1.1.** Eremu soziokulturaleko elkarte-sarearen eta berdintasunari ematen dioten bultzadaren diagnostikoa egitea, genero-ikuspegia kontuan hartuta. |
| Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea | **A2.1.2.** Elkarte soziokulturalei berdintasuna sustatzeko zerbitzuak eta baliabideak hedatzea. |
| Prestakuntza | **A2.1.3.** Durangoko elkarte-sareari zuzenduta, emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunari buruzko ikastaroak egitea. |
| Arautegia. | **A2.1.4.** Durangoko elkarteei diru-laguntzak emateko, berdintasun-irizpideak ezartzea. |
| **Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak** | |
| - Euskara eta Kultura Saila<br>- Berdintasun Saila | |

| BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA | |
|---|---|
| **HELBURU NAGUSIA** | |
| **B1.** Kulturaren arloan, bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna izateko neurri gehiago hartzea. | |
| **HELBURU ERAGILEA** | |
| **B1.1.** Kultura-zerbitzu eta -programetan familia-bizitza, lana eta gizarte-bizitza bateratzeko eta horietan erantzunkidetasuna izateko neurri-sortak diseinatzea. | |
| Adierazleak<br>• Sentsibilizazio-kanpainen kopurua.<br>• Prestakuntza- eta sentsibilizazio-ikastaroen kopurua.<br>• Lanak eta familiako eta laneko erantzukizunak nola banatzen diren jakiteko egindako azterketa-motak.<br>• Interesdun taldean dagoen heterogeneotasun-  eta herritarren partaidetza-maila. | |
| Estrategiak<br>• Esparru askotako (hezkuntza, familia, lana, administrazioa…) eragileekin foroak, jardunaldiak eta eztabaida eta laneko taldeak egitea, beste gizarte-antolaketa bat izateko eta erantzunkidetasuna hobetzeko zer formula dauden eztabaidatzearren.<br>• Erantzunkidetasuna izateko "jardunbide egokien" gainean sentsibilizatzeko kanpainak egitea, eta interes-talde espezifikoei zuzentzea: gizonei, immigranteei, teknikariei, politikak egiten dituztenei…<br>• "Jardunbide egokien" berri ematea enpresei, administrazioari, familiei eta gizarte-zerbitzuei, emakumeen eta gizonen bidezko antolaketarako aukerak ezagutarazteko. | |
| **Ekintzak** | |
| Tresna | Ekintza |
| Zerbitzuak eta baliabideak | **B1.1.1.** Euskara eta Kultura Sailak eta horren mendeko erakundeek antolatzen dituzten jarduera eta ekitaldi guztietan bateragarritasuna eta ardura partekaturako zerbitzuak eta neurriak bermatzea. |
| Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea | **B1.1.2.** Hausnarketa- eta eztabaida-taldeak sortzea, bateragarritasuna eta erantzunkidetasunaren beharra atzeman duten interes-taldeekin.<br>**B1.1.3.-** Erantzunkidetasunaren alorreko jardunbide egokiei buruzko sentsibilizazio- eta hedapen-kanpainak egitea. |
| **Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak** | |
| - Euskara eta Kultura Saila<br>- Berdintasun Saila | |

## EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

**HELBURU NAGUSIA**

**I.1.** Sexismoa esparru soziokulturaletan errotik kentzeko jardutea.

**HELBURU ERAGILEA**

**I1.1.** Emakumeen kontrako indarkeria prebenitzen eta ezabatzen kultura-eragileak gehiago konprometitzea.

Ebaluazio-adierazleak

- Egindako materialaren tipologia.
- Egindako sentsibilizazio- eta prestakuntza-kanpainak.
- Emakumeei (batetik) eta gizonei (bestetik) zuzendutako ikastaro-kopurua.
- Festetako emakumeenganako indarkeriaren aurka borrokatzeko lantaldea.
- Durangoko komunikabideekin egindako hitzarmenaren tipologia.

Estrategia

- Festa-batzordeekin batera aritzeko talde baten sorrera bultzatzea, partaidetza eta elkarrekiko lana bultzatu eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitu, horretaz sentsibilizatu eta kasuak atzemateko planak egin ditzan.
- Erakundeen arteko hitzarmenak sustatzea, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta ezabatzeko sentsibilizazio-kanpainak egin daitezen.

**Ekintzak**

| Tresna | Ekintza |
|---|---|
| Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea | **I1.1.1.** Martxoaren 8ari, azaroaren 25ari eta Ahalduntze Eskolari buruzko informazioa emateko hitzaldiak egitea, eta horien gainean sentsibilizatzeko materiala argitaratzea.<br>**I1.1.2.** Festetan izaten den emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko, horren gainean sentsibilizatzeko eta indarkeria hori atzemateko prozesua abian jartzea, festa batzordeekin (Emakumeen Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 2. EKINTZA).<br>**I1.1.3.** Gizonei zuzendutako ikastaro bereziak egitea, gizonek tratu txarren prebentzioaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren gainean hausnartu eta jarduerak egin ditzaten (Emakumeenganako Indarkeriarekin Aurkako Ekintza-planeko 5. EKINTZA). |
| Arauak | **I1.1.1.4.** Durangoko komunikabideekin (prentsa, irratia, telebista) hitzarmenak egitea, emakumeen gaineko irudi sexistarik ez emateko, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta salatzeko. |

**Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak**

- Udaleko Euskara eta Kultura Saila
- Durangoko komunikabideak.
- Gazteria, Kirola eta Hezkuntza Saila
- Berdintasun Saila

# KIROL-SAILA

| ABIATZE-EGOERA |
|---|
| Durangoko elkarteetan gizonek eta emakumeek ez dute parte-hartze bera. Aldea dago, bai elkarte-motaren bai elkarteetan duten zereginaren arabera.<br>- Oro har, kirol-elkarteetan, gizonak gehiago dira emakumeak baino, eta izaera sozialekoetan, berriz, emakumeak gehiago dira gizonak baino.<br>- Elkarteen zuzendaritza-organoetan, emakume baino gizon gehiago dago. Zuzendaritza emakumeen esku dagoen eredurik edo erreferenterik ez dago; zuzendaritza-funtzioek gizonezkoen ereduari jarraitzen diete.<br><br>Emakume gehiago ageri dira kirol-elkarte berrietan, elkarte zaharrenak betidanik gizonek osatu izan dituztelako.<br><br>Komunikabideek ez dituzte emakumezkoen erreferentziak bultzatzen. Kirol-munduan eta kulturan gizonezkoen ikonoak eta erreferentziak dira nagusi.<br><br>Kirol-elkarteetan dagoen egoera komunikabideetan ikusten denaren isla da.<br><br>Kirol-ekitaldietan ez dago bularra emateko, haurtzaindegi zerbitzua izateko eta abarretarako aukerarik. Ez dago baliabide nahikorik.<br><br>Kirol gehienetako arauek eta balioek gizonezkoen fisiologia eta rolak dituzte oinarri. Kirol-munduan emakumeek ez dute gizonezkoen adinako prestigiorik, ez eta eskubiderik ere, eta emakumeen kiroletan ez da gizonezkoenetan beste diru inbertitzen.<br><br>Ez da bermatzen emakumeek eta gizonek kirola elkarrekin eta naturaltasunez egitea. |

| ZEHARKAKOTASUNA | |
|---|---|
| **HELBURU NAGUSIA** | |
| **Z1.** Gazteria, Kirola eta Hezkuntza sailean genero-ikuspegia sartzea. | |
| **HELBURU ERAGILEA** | |
| **Z1.1.** Kirol Sailean, kirol-jarduerak genero-ikuspegia kontuan hartuta planifikatzea, gauzatzea, haien segimendua egitea eta ebaluatzea. | |
| Adierazleak<br>• Genero-ikuspegia kontuan hartu duten erakundeak.<br>• Berdintasun-politikei eta emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunari buruzko prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardueretara joan diren teknikarien eta politikarien ehunekoa (sexuka eta karguka bereizita). | |
| Estrategiak<br>• Kirolari eta sexismoari buruzko prestakuntza ematea.<br>• Politika publikoen diagnostikoa, diseinua eta ebaluazioa egiteko jarraibideen eta jardunbide egokien gida egitea. | |
| **Ekintzak** | |
| Tresna | Ekintza |
| Ezagutza | **Z1.1.1.** Durangoko emakumeek kirol-eremuan duten egoera, gustuak, nahiak, beharrak eta interesak azalarazteko diagnostikoa egitea, eta gomendioak eta jarduera-ildoak zehaztea.<br><br>**Z1.1.2.** Administrazioko langileentzat eta azpikontratatutako enpresetako langileentzat barne-hedapeneko gida bat egitea eta zabaltzea, kirol-jarduerak eta -programak diseinatzeko, planifikatzeko eta aplikatzeko kontuan hartu beharreko jarraibideei eta praktika onei buruz**.** |
| Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea | **Z1.1.3.** Administrazioaren kirol-arloko sailetako eta erakundeetako teknikariak eta politikariak eta klubetako zuzendaritza-taldeetako kideak sentsibilizatzeko jarduerak egitea. |
| Prestakuntza | **Z1.1.4.** Kirol-planifikazioaz, -kudeaketaz eta -ebaluazioaz arduratzen diren langileei aukera-berdintasunari buruzko prestakuntza ematea, kirol-arloko sailak bultzatzen duen dinamikan genero-ikuspegia sar dezaten. |
| **Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak** | |
| - Gazteria, Kirol eta Hezkuntza Saila | |

<table>
<tr><th colspan="2">AHALDUNTZEA</th></tr>
<tr><td colspan="2">HELBURU NAGUSIA</td></tr>
<tr><td colspan="2">A1. Emakumeen jarduera eta partaidetza kirol-arloan.</td></tr>
<tr><td colspan="2">HELBURU ERAGILEA</td></tr>
<tr><td colspan="2">A1.1. Adin guztietako emakume gehiago kirola egiten ikustea.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Adierazleak<br>• Kirola lanbide duten eta entrenatzaile, arbitro eta kudeatzaile diren emakumeen eta gizonen ehunekoak izan duen igoera, lehendik dauden datuekiko.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Estrategiak<br>• Kirol-sailetako eta -erakundeetako politikariak eta teknikariak sentsibilizatzea.<br>• Herritarrei zuzendutako kanpainak egitea, emakumeek egiten duten kirola ikusarazteko eta horri balioa emateko.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Ekintzak</td></tr>
<tr><td>Tresna</td><td>Ekintza</td></tr>
<tr><td>Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea</td><td>A1.1.1. Herritarrei zuzendutako kanpainak egitea (hitzaldiak ikastetxeetan, komunikabideetan agertzea, ekipamendu soziokulturalak…), edozein kirol-motatan erreferente diren Durangoko emakumeak ezagutzera emateko.<br><br>A1.1.2. Kirol-langileei, gurasoei eta hezitzaileei zuzendutako sentsibilizazio-jarduerak egitea (hitzaldiak, liburuxkak, ikastaroak…), jarduera fisikoan eta kirol-jardueran egon behar den aukera-berdintasunari buruz, hezitzaile-lanean neska-mutilen kirol-ohitura dibertsifikatzea sustatzeko.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak</td></tr>
<tr><td colspan="2">- Gazteria, Kirol eta Hezkuntza Saila<br>- ”Durango”, Udalaren Kirol Institutua<br>- Durangoko kirol-elkarteak<br>- Minusbaliatuen Durangoko elkarteak.</td></tr>
</table>

| BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA | |
|---|---|
| **HELBURU NAGUSIA** | |
| **B1.** Udalaren kirol-zerbitzuak eta -baliabideak bateragarritasunaren eta erantzunkidetasunaren beharretara egokitzea. | |
| **HELBURU ERAGILEA** | |
| **B1.1.** Emakumeek kirola egin dezaten erraztasunak ematea, haien bizi-kalitatea eta garapen pertsonala hobetzeko. | |
| Adierazleak<br>• Emakumeek udalaren kirol-instalazioak zenbat denboran eta zertarako erabiltzen dituzten ikustea, adinka eta kirol-modalitateka bereizita<br>• Eremu irekietan kirola egiten duten emakumeen eta gizonen ehunekoa.<br>• Kirol-klubetan kirola egiten duten emakumeen ehunekoa. | |
| Estrategiak<br>• Emakumeen interesen arabera eskaintza, eremuak eta ordutegiak egokitzea. | |
| **Ekintzak** | |
| Tresna | Ekintza |
| Ezagutza | **B1.1.1.** Kirol-instalazioen ordutegi- eta baliabide-beharrak aztertzea, genero-ikuspegia kontuan hartuta. |
| Zerbitzuak eta baliabideak | **B1.1.2.** Udalaren kirol-instalazioetako zerbitzuak, ekipamendua eta eremuak emakumeen eta gizonen beharretara egokitzea, betiere aukera-berdintasuna errespetatuz eta azterketaren emaitzak kontuan hartuz. |
| Segimendua | **B1.1.3. "**Durango", Udalaren Kirol Institutuak egiten duen kirol-eskaintzaren segimendua egitea, eta emakumeen eta gizonen gustuak eta interesak desberdinak direla kontuan hartuta, zerbitzuak, ekipamenduak eta eremuak egokitzea. |
| **Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak** | |
| - "Durango", Udalaren Kirol Institutua | |

<table>
<tr><th colspan="2">EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA</th></tr>
<tr><td colspan="2">HELBURU NAGUSIA</td></tr>
<tr><td colspan="2">I1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten balioak eta kiroletan lehiarik ez izatea bultzatzea.</td></tr>
<tr><td colspan="2">HELBURU ERAGILEA</td></tr>
<tr><td colspan="2">I1.1. Kirol-arloan lehiarik eta indarkeriarik eza bultzatzen duten sentsibilizazio-kanpaina gehiago egitea.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Adierazleak<br>• Egindako sentsibilizazio-kanpainak.<br>• Parte hartu duten pertsonen tipologia.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Estrategia<br>• Erakundeen artean hitzarmenak egin daitezen sustatzea, kiroletako indarkeria eta lehia prebenitzeko eta ezabatzeko sentsibilizazio-kanpainak egin daitezen, maskulinotasun-eredu berrien balio bihur daitezen.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Ekintzak</td></tr>
<tr><td>Tresna</td><td>Ekintza</td></tr>
<tr><td>Zerbitzuak eta baliabideak</td><td>I1.1.1. Erakundeen arteko hitzarmenak sustatzea, kiroletako indarkeria prebenitzeko eta ezabatzeko sentsibilizazio-kanpainak egin daitezen, eta gizonezkoei arreta berezia eskaintzea.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak</td></tr>
<tr><td colspan="2">- Gazteria, Kirol eta Hezkuntza Saila<br>- ”Durango”, Udalaren Kirol Institutua<br>- Durangoko hezkuntza-erakundeak<br>- Kirol-klubak.</td></tr>
</table>

# HEZKUNTZA-SAILA

| ABIATZE-EGOERA |
| --- |
| Durangoko ikasleen artean, gizonen eta emakumeen kopurua berdintsua da, eta ikasketa-mailari dagokionez ere ez dago alde handirik batzuen eta besteen artean. Ikasketa-motei dagokienez, berriz, alde handiak daude: mutilek ikasketa teknikoak dituzte atsegin (mutilen % 50,5ek ikasketa teknikoak eta industria-ikasketak hautatzen ditu; nesketatik, berriz, % 10,5ek hautatzen ditu ikasketa-mota horiek); neskek nahiago dituzte gizarte zientziak, osasuna eta irakasle-ikasketak (askotan pertsonak zaintzearekin zerikusia duten ikasketak ere bai). Nesken % 32,5ek hautatzen ditu ikasketa-mota horiek, eta mutilen % 13,4k bakarrik.<br><br>Ikastetxetik ikastetxera badaude aldeak, baina, oro har, guztietan lantzen da berdintasunaren gaia Haur Hezkuntzan; Lehen eta Bigarren Hezkuntzan, berriz, irakasleen sentsibilitatearen esku geratzen da gai hori.<br><br>Jarduera zehatzetan hartzen da kontuan genero-ikuspegia, baina ez da zeharka gai guztietan lantzen. Berdintasunaren gaia lantzeko, prestakuntza eta material falta nabari da.<br><br>Neska-mutilek familietan ikusten dituzten ereduak ez dira berdintasunean oinarritzen: oro har, emakumeek ardura gehiago dute, eta horrek eragina du seme-alaben portaeran.<br><br>Gizartean transmititzen diren balioak eta portaerak errepikatzen dira ikastetxeetan.<br><br>Hezkuntza-sistemak garrantzi handiagoa ematen die eduki formalei edo irakasgaiei balioei baino.<br><br>Hezkuntza-sistemarekin zerikusirik ez duten elementuek, hala nola telebistak, telefono mugikorrek, Internetek… garrantzi handia dute neska-mutilen heziketan.<br><br>Gizonek alde batera utzi behar dute “erosotasuna”, eta gehiago inplikatu behar dute etxeko lanetan eta zaintzan, eta emakumeek lanak eskuordetzen ikasi behar dute. Lan-mundua ere egokitu beharra dago, pertsonek beren bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lana bateratzea lortzeko. |

| ZEHARKAKOTASUNA | |
|---|---|
| **HELBURU NAGUSIA** | |
| **Z1.** Ikastetxeetan eta aisialdi-taldeetan baterako hezkuntza sustatzea. | |
| **HELBURU ERAGILEA** | |
| **Z1.1.** Hezkuntza arautuko eta ez-arautuko erakundeen artean egitura egonkorra ezartzea Durangon baterako hezkuntza sustatzeko familia, haur, gazte eta hezitzaileengana iristearren. | |
| Adierazleak<br>• Koordinaziorako egitura-mota.<br>• Egitura horrek bultzatutako jarduera-kopurua.<br>• Elkarteei diru-laguntzak emateko dauden irizpide-kopurua eta -tipologia. | |
| Estrategia<br>• Hezkuntza-eremuan parte hartzen duten erakunde guztiek partaidetza-foro bat sortzea,izaera orokorrekoa (hezkuntza arautua eta ez-arautua hartzen dituena). | |
| **Ekintzak** | |
| Tresna | Ekintza |
| Zerbitzuak eta baliabideak | **Z1.1.1.** Durangoko hezkuntza-erakundeen (hezkuntza arautukoak eta ez-arautukoak: ikastetxeak, Berritzegunea, aisialdi-taldeak eta animazio soziokulturalekoak, HHE, Haurreskolak Partzuergoa…) elkargune eta lan kooperatiboko plataforma bat sortzea. Plataforma horrek egitura, lan-metodoa eta jardute-plana izango ditu, udalerrian baterako hezkuntza sustatzeko. |
| Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea | **Z1.1.2.** Durangoko ikastetxeetan (haur hezkuntza, lehen eta bigarren hezkuntzakoetan) eta hezkuntza-eremuan parte hartzen duten izaera ez-arautuko erakundeetan baterako hezkuntza eta orientazio profesional ez-sexista sustatzeko jarduerak elkarrekin planifikatzea (jolas eta jostailu ez-sexistak, baterako heziketarako materialak, baterako heziketarako jardunbide egokiak, balio ez-sexistetan hezteko ikastaroak, generoka estereotipatuta ez dauden postuetan eta karguetan emakumeak eta gizonak sartu dituzten enpresak bisitatzea…). |
| **Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak** | |
| - Gazteria, Kirol eta Hezkuntza Saila<br>- Haurreskolak Partzuergoa<br>- Hezkuntza arautuko erakundeak: Berritzegunea, ikastetxeak eta Ikasleen Guraso Elkarteak, LHZ..<br>- Hezkuntza ez-arautuko erakundeak: aisialdi-taldeak, HHE, musika eskola, euskaltegiak, guraso-eskola… | |

| AHALDUNTZEA | |
|---|---|
| **HELBURU NAGUSIA** | |
| **A1.** Hezkuntza arloan neskak, emakumeak egotea eta parte hartzea, eta berdintasuna sustatzea. | |
| **HELBURU ERAGILEA** | |
| **A1.1.** Hezkuntzari, sozializazioari eta berdintasunari emakumeek egiten dioten ekarpena agerraraztea. | |
| Adierazleak<br>• Durangoko neska-mutilen hezkuntzari eta sozializaziori emakumeek egindako ekarpena ikusarazteko egindako sentsibilizazio-kanpainak. | |
| Estrategia<br>• Herritarrei zuzendutako kanpainak egitea, hezkuntzaren eta sozializazioaren arloan emakumeek duten eginkizuna ikusarazteko eta eginkizun horri balioa emateko. | |
| **Ekintzak** | |
| Tresna | Ekintza |
| Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea | **A1.1.1.** Herritarrei zuzendutako jarduerak diseinatzea, hezkuntzaren arloan parte hartu duten eta parte hartzen duten, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatu duten Durangoko emakumeak ezagutzera emateko (filmak, liburuak, erakusketak…). |
| **Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak** | |
| - Gazteria, Kirol eta Hezkuntza Saila<br>- Haurreskolak Partzuergoa<br>- Hezkuntza arautuko erakundeak: Berritzegunea, ikastetxeak eta Ikasleen Guraso Elkarteak, LHZ.<br>- Hezkuntza ez-arautuko erakundeak: aisialdi-taldeak, HHE, musika eskola, euskaltegiak, guraso-eskola… | |

| BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA | |
|---|---|
| **HELBURU NAGUSIA** | |
| **B1.** Erantzunkidetasunaren kultura eta zaintzaren etika sustatzea. | |
| **HELBURU ERAGILEA** | |
| **B1.1.** Erantzunkidetasunaren eta zaintzaren etika sustatzeko eremu gehiago sortzea gizartean eta hezkuntzan. | |
| Adierazleak<br>• Erantzunkidetasunaren eta zaintzaren aldeko kultura sustatzeaz arduratzen den sailak egindako jarduera-kopurua.<br>• Zaintza- eta etxe-eremuko zereginak ikasteko gizonei zuzendutako ikastaro-kopurua, eta ikastaro horietan parte hartu duen gizon-kopurua. | |
| Estrategiak<br>• Erantzunkidetasunaren aldeko kultura sustatzeko sentsibilizazio-kanpainak egitea.<br>• Emakumeen eta gizonen lanak dibertsifikatzeko lantegiak egitea, eta haurren eta gazteen artean erantzunkidetasuna sustatzeko jarduerak egitea. | |
| **Ekintzak** | |
| Tresna | Ekintza |
| Prestakuntza | **B1.1.1.** Udaleko Gazteria, Kirol eta Hezkuntza Saileko teknikariak prestatzea, erantzunkidetasunaren eta zaintzaren etikaren aldeko kultura sustatzeko programak eta jarduerak diseina ditzaten. Egiten diren jarduera guztietan ordutegi- eta zainketa-beharrak hartu behar dira kontuan, eta, horretarako, haurtzaindegi-zerbitzua, ludoteka eta abar eskaini.<br><br>**B1.1.2.** Hezitzaileei, monitoreei eta animazio soziokulturalaren eta hezkuntzaren arloan, bereziki, aisia eta aisialdiaren arloan lan egiten dutenei metodologien eta baliabideen gaineko prestakuntza ematea, erantzunkidetasuna eta zaintzaren etikaren gaineko balioak sortzeko.<br><br>**B1.1.3.** Zainketaren eremuko eta etxe-eremuko zereginak ikasteko gizonei zuzendutako lantegiak egitea. |
| **Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak** | |
| - Gazteria, Kirol eta Hezkuntza Saila<br>- Durangoko gizarte- eta hezkuntza-erakundeak | |

| HELBURU NAGUSIA | |
|---|---|
| **B2.** Denbora eta hezkuntzako azpiegiturak egokitzea eta berrantolatzea. | |
| **HELBURU ERAGILEA** | |
| **B2.1.** 0-3 urteko haurrei zuzendutako leku gehiago behar den ikertu, eta lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetan jangela- eta garraio-zerbitzuaren eskaria beteta dagoela bermatu. | |
| Adierazleak<br>• Sortutako haur-eskola eta leku-kopurua, dagoen eskaria kontuan hartuta.<br>• Eskatutako eta eskainitako jangela-tokien kopurua.<br>• Eskatutako eta eskainitako garraio-tokien kopurua. | |
| Estrategia<br>• Hezkuntzaren arloarekin eta Durangoko familien beharrekin lotutako zerbitzuen eskaintza eta eskaria aztertzea. | |
| **Ekintzak** | |
| Tresna | Ekintza |
| Ezagutza | **B2.1.1.** Hezkuntzaren eremuarekin lotutako zerbitzuen eskaintza eta eskaria aztertzea: jangelak, garraioa, haur-eskolak, ludotekak, ordu-poltsak..<br><br>**B2.1.2.** Lekuak eta jarduerak, eta horiek gurasoen baldintzetara, egoeretara eta beharretara egokitzen diren aztertzea, eta eskaintza eta eskaria alderatzea, banaketa geografikoko irizpideak kontuan hartuta. |
| **Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak** | |
| - Gazteria, Kirol eta Hezkuntza Saila<br>- Haurreskolak Partzuergoa<br>- Hezkuntza-erakundeak: Berritzegunea, ikastetxeak, musika eskola eta ikasleen guraso elkarteak, aisialdi eta aisia-taldeak…<br>- Gizarte- eta hezkuntza--eragileak. | |

ELHUYAR aholkularitza

DURANGO Udala · Ayuntamiento

<table>
<tr><td colspan="2">HELBURU ERAGILEA</td></tr>
<tr><td colspan="2">B2.2. Ikastetxeetako, haur-eskoletako eta aisia eta aisialdiko zerbitzuetako ordutegiak eta egutegiak malgutzea, horien antolatzeko autonomia kontuan hartuta, familien beharrak aintzat hartzen direla bermatzeko.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Adierazleak<br>• Ordutegi malguak eta egutegi zabalak dituzten ikastetxeen kopurua.<br>• Ordutegi malguak eta egutegi zabalak dituzten haur-eskolak.<br>• Durangoko familien beharren arabera lanaldiak malgutzen dituzten zerbitzuen tipologia.<br>• Hausnarketa-taldean parte hartzen dutenen asebetetze-maila.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Estrategiak<br>• Ikastetxe eta haur-eskolekin, gizarte eragileekin, aldundiekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta gurasoen elkarteekin hitzarmenak egitea, ordutegiak malgutzeko plangintza egin dadin.<br>• Bateratzeari buruzko hausnarketa-taldea sortzea, hezitzaileez osatua.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Ekintzak</td></tr>
<tr><td>Tresna</td><td>Ekintza</td></tr>
<tr><td>Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea</td><td>B2.2.1. Ikastetxeak eta gizarte- eta hezkuntza-zerbitzuak sustatzea, familietako elkar aditzea errazteko, eta bileretan edo topaguneetan gurasoen, baina bereziki, aiten parte hartzea errazteko.</td></tr>
<tr><td>Zerbitzuak eta baliabideak</td><td>B2.2.2. Heziketa-eskaintza planifikatzea, jardueren ordutegiak ardura familiarrak, pertsonalak eta profesionalak bateratzera egokituta.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak</td></tr>
<tr><td colspan="2">- Gazteria, Kirol eta Hezkuntza Saila<br>- Durangoko Merindadearen Amankomunazgoa<br>- Hezkuntza-erakundeak: Berritzegunea, ikastetxeak, musika-eskola eta ikasleen guraso-elkarteak, aisialdi eta aisia-taldeak…<br>- Udalaz gaindiko instituzioak: Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza.</td></tr>
</table>

| EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA | |
|---|---|
| **HELBURU NAGUSIA** | |
| **I1.** Gizarte- eta hezkuntza-eremuetan indarkeria sexista prebenitzea. | |
| **HELBURU ERAGILEA** | |
| **I1.1.** Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko programak egitea, ikastetxeetan, aisialdi- eta aisia-erakundeetan, guraso-eskoletan eta abar. | |
| Adierazleak<br>• Egindako prebentzio-programak.<br>• Programetan parte hartu duten pertsonen asebetetze-maila. | |
| Estrategia<br>• Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko programak diseinatzea, eta gizarte- eta hezkuntza-eragileekin programak nola gauzatu planifikatzea. | |
| **Ekintzak** | |
| Tresna | Ekintza |
| Prestakuntza | **I1.1.1.** Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko prestakuntza-ikastaroak ematea haurrei, gazteei, familiei eta hezkuntzako langileei (irakasleei, monitoreei…) (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 3. EKINTZA). |
| **Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak** | |
| - Gazteria, Kirol eta Hezkuntza Saila<br>- Berritzeguneak<br>- Ikasleen Guraso Elkarteak | |

## LAN- ETA ENPLEGU-SAILA

| ABIATZE-EGOERA |
|---|
| Durangoko jarduera-tasaren barruan alde handia dago: gizonen jarduera-tasa emakumeena baino askoz ere handiagoa da, hau da, langabeziak gehiago eragiten die emakumeei gizonei baino, eta emakumeen lana ez dago gizonena bezain arautua. Babesgabetasuna dakarkie horrek emakumeei. Gizonen % 52,1 lanean ari da; emakume-langileen ehunekoa, berriz, % 32,3 da.<br><br>Lau emakumeetatik batek etxean lan egiten du, eta emakumeen soldata oraindik ere gizonena baino txikiagoa da. Horrek independentzia ekonomikorik eza sortzen die emakumeei. Adina ere erabakigarria da ezegonkortasun-egoera horretan: oro har, emakume gazteek ikasketa-prozesu luzeagoa dute gizonezkoek baino. Arautzutako lan-merkatuan sartzeko arazo gehiago izaten dituzte emakumeek. Emakume zahar gehienek ez dute pentsiorik jasotzen enplegurik izan ez dutelako.<br><br>Ikasketa-motaren hautaketan dagoen aldea lan-munduan ikusten da. Lan-merkatuan ez dago orekarik: lan-mota batzuetan, gehienak gizonak dira; beste lan-mota batzuetan, berriz, emakumeak. Tradizioz emakumeenak izan diren lanei balio gutxiago ematen zaie.<br><br>Nekazaritza-eremuetan emakumeek egiten duten lana ez da ikusten. Gizona izan ohi da etxaldearen jabe, eta emakume horietatik gehienek ez dute kotizatzen eta ez dute inolako prestaziorik jasotzen. Genero-indarkeriaren biktima badira, ez dute laguntzarik jasotzen; haien gizarte-sarea eskasa da, eta batzuek normaltzat jotzen dute haienganako jarrera horiek edukitzea. |

<table>
<tr><th colspan="2">ZEHARKAKOTASUNA</th></tr>
<tr><td colspan="2">HELBURU NAGUSIA</td></tr>
<tr><td colspan="2">Z1. Enplegu-zerbitzuetan genero-ikuspegia sartzea.</td></tr>
<tr><td colspan="2">HELBURU ERAGILEA</td></tr>
<tr><td colspan="2">Z1.1. Enplegu-zerbitzuetan genero-ikuspegia sartzea.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Adierazleak<br>• Alor honetako legera egokitzeko egindako aldaketen ehunekoa.<br>• Prestakuntza-ikastaroetan parte hartzen dutenen asebetetze-maila.<br>• Plataformaren tipologia, osaera eta funtzionamendu-arauak.<br>• Udalak enpresak eta pertsonak kontratatzeko argitaratzen dituen klausulen tipologia.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Estrategiak<br>• Estatistikak, diagnostikoak, azterketak eta ikerketak aukera-berdintasunera egokitzea.<br>• Lan-prozesu guztiak genero-ikuspegira egokitzea.<br>• Eremu honetan parte hartzen duten eragileak gaitzea.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Ekintzak</td></tr>
<tr><td>Tresna</td><td>Ekintza</td></tr>
<tr><td>Prestakuntza</td><td>Z1.1.1 Lan-zerbitzuetako eta erakunde kolaboratzaileetako langileak prestatzea, lanbideratzeko prozesu osoko fase bakoitzean genero-ikuspegia nola sartu jakiteko, bai informatze-, orientatze- eta prestakuntza-faseetan, bai lan munduratzeko babesa emateko eta jarraipena egitekoetan, bai enpresa eta autoenplegua sustatzekoetan. Prestakuntza horretan kontuan hartu behar da bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lanekoa bateratzen diren, ordutegiak jartzeko eta zerbitzuak emateko.</td></tr>
<tr><td>Arauak</td><td>Z1.1.2. Enpresak eta langileak kontratatzeko, aukera-berdintasunarekin bat datozen klausulak ezartzea.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak</td></tr>
<tr><td colspan="2">- Ogasun, Langile eta Udaltzaingo Saila<br>- Garapen Iraunkorreko Saila<br>- Durango Eraikitzen<br>- Lanbide<br>- INEM</td></tr>
</table>

| AHALDUNTZEA | |
|---|---|
| **HELBURU NAGUSIA** | |
| **A1.** Lana berdintasun-baldintzetan eskuratzea. | |
| **HELBURU ERAGILEA** | |
| **A 1.1.** Enpresa-ekimenak sortzeko eta finkatzeko, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun kuantitatiboa gutxitzea, emakume-sustatzaileen parte-hartzea gehituz, batez ere, oso emakume gutxi dauden sektore eta lanbideetan. | |
| Adierazleak<br>• Sozietate anonimo laboraletan emakume bazkideen, bazkide langileen eta bazkide kapitalisten ehunekoa.<br>• Emakume autonomoen ehunekoa. | |
| Estrategiak<br>• Emakumeek bultzatutako enpresa-ekimenak sustatzea eta lehenestea.<br>• Emakume langabetuak ekonomia sozialeko enpresetan sar daitezen sustatzea. | |
| **Ekintzak** | |
| Tresna | Ekintza |
| Zerbitzuak eta baliabideak | **A1.1.1** Emakume gutxi dauden lan-sektoreetan ETEak sustatzen dituzten emakumeei pizgarriak ematea.<br><br>**A1.1.2** Emakume langabetuak ekonomia sozialeko enpresetan sar daitezen sustatzea, bazkide langile edo lan-bazkide gisa. |
| **Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak** | |
| - Durango Eraikitzen<br>- Lanbide<br>- INEM | |

<table>
<tr><td colspan="2">HELBURU NAGUSIA</td></tr>
<tr><td colspan="2">A2. Administrazio publikoan zein sektore pribatuan emakumeen eta gizonen lan-kondizioak parekatzeko sentsibilizazioa.</td></tr>
<tr><td colspan="2">HELBURU ERAGILEA</td></tr>
<tr><td colspan="2">A2.1. Administrazio publikoan emakumeen eta gizonen lan-kondizioak parekatzea, eta sektore pribatuko enpresetan parekatze-behar horren gainean sentsibilizatzea.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Adierazleak<br>• Dauden soldata-desberdintasunak, jarduera-sektoreka eta lanbide-kategoriaka.<br>• Lanean ari direnen kopurua, lanaldi-mota eta sexua kontuan hartuta.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Estrategiak<br>A estrategia (sektore publikoa)<br>• Desberdintasun- edo diskriminazio-alorrak identifikatzeko diagnostikoak egitea, eta balio bereko lana egiteagatik egon daitezkeen soldata-aldeak ezabatzeari arreta berezia jartzea.<br>• Administrazio publikoaren eta haren mendeko enpresen enpleguetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ziurtatzeko neurriak proposatzea, negoziazio kolektiboaren bidez.<br>• Administrazioan eta haren mendeko erakundeetan lan-kondizioak kudeatzen dituztenak prestatzea, proposatutako jarduerak gauzatzeko beharrezkoa den ezagutza eskura dezaten.<br>B estrategia (sektore pribatua)<br>• Enplegu-zerbitzuek sektore pribatuan emakumeak eta gizonak pareka daitezen sustatzea, horrek dakartzan alde onei eta horretarako dauden baliabideei buruzko informazioa emanda.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Ekintzak</td></tr>
<tr><td>Tresna</td><td>Ekintza</td></tr>
<tr><td>Ezagutza</td><td>A2.1.1 Desberdintasun- edo diskriminazio-eremuak eta -adierazpenak identifikatzeko diagnostikoa egitea, eta administrazio publikoaren eta mendeko enpresen enpleguan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ziurtatzeko neurriak proposatzea, negoziazio kolektiboaren bidez.<br>A2.1.2 Merkataritza-sektorean emakumeek duten egoera eta kondizioak aztertzea.</td></tr>
<tr><td>Prestakuntza</td><td>A2.1.3 Administrazioan lan-kondizioen kudeaketaren ardura dutenei beharrezko prestakuntza ematea, erakundeetan berdintasuna sartzeko.</td></tr>
<tr><td>Arauak</td><td>A2.1.4 Administrazio publikoak eta haren mendeko enpresek beren langileekin izaten dituzten negoziazio kolektiboetan, enplegu publikoaren alorrean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ziurtatzeko neurriak proposatzen dituztela ziurtatzea.<br>- Enpresa edo erakundeak kontratatzeko eta esleitzeko oinarrietan, enpresa horiek beren barne-dinamikan aukera-berdintasunik eta berdintasun-politikarik sustatzen duten balioestea.<br>- Oposizio publikoen lehiaketak arautzeko oinarrietan genero-berdintasunaren alorrean esperientziarik eta prestakuntzarik baduten aztertzea, eta gaitegietan emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunari buruzko edukiak sartzea.</td></tr>
<tr><td>Sentsibilizazioa</td><td>A2.1.5 Enpresetan aukera-berdintasunari buruzko “jardunbide egokiak” hedatzea.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak</td></tr>
<tr><td colspan="2">- Ogasun, Langile eta Udaltzaingo Saila<br>- Udaleko sindikatu-ordezkariak</td></tr>
</table>

ELHUYAR aholkularitza

DURANGO Udala · Ayuntamiento

| BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA | |
|---|---|
| **HELBURU NAGUSIA** | |
| **B1.** Udalean eta mendeko erakundeetan, lan-bizitza, bizitza familiarra eta pertsonala bateratzeko laguntza-zerbitzuak eta neurriak ezartzea. | |
| **HELBURU ERAGILEA** | |
| **B1.1** Administrazio publikoan eta haren mendeko erakundeetan emakumeen eta gizonen desberdintasun kuantitatiboa murriztea, etxeko lanak eta zaintze-lanak egiteko erabiltzen duten denborari dagokionez. Desberdintasun hori murrizteko, amatasun/aitatasun eta mendeko pertsonak zaintzeko baimenak eta lizentziak gizon gehiagok hartu behar dituzte. | |
| Adierazleak<br>• Bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lana bateratzeko, eta horietan erantzunkidetasuna izateko egindako ekintza-kopurua eta horien tipologia.<br>• Sektore publikoan amatasunagatik, aitatasunagatik eta mendeko pertsonak zaintzeko hartutako baimenen eta lizentzien ondorioz egin diren kontratu-kopurua, sexuen arabera.<br>• Bateratzeari eta erantzunkidetasunari buruzko sentsibilizazio-kanpainak edo horiei buruzko informazioa iristen zaien pertsona-kopurua. | |
| Estrategiak<br>• Sentsibilizazio-, informazio- eta prestakuntza-prozesuak gauzatzea, etxeko lanetan eta zaintzan gizonek duten ardura sustatzeko.<br>• Gizonek aitatasunagatik edo mendekoak zaintzeko lizentziak eta baimenak eska ditzaten sentsibilizazio-ekintzak egitea. | |
| **Ekintzak** | |
| Tresna | Ekintza |
| Prestakuntza | **B1.1.1.** Udalerriko enpresei zaintzaren etikaren gainean gizonei (oro har) eta bereziki zuzendariei zuzendutako prestakuntza-ikastaroak eskaintzea. |
| Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea | **B1.1.2.** Sentsibilizazio-ekintzak egitea, gizonek aitatasunagatiko eta mendeko pertsonak zaintzeko baimenak eta lizentziak eska eta erabil ditzatela sustatzeko. |
| **Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak** | |
| - Ogasun, Langile eta Udaltzaingo Saila<br>- Udaleko sindikatu-ordezkariak<br>- Udalaren mendeko erakundeak: Mendeko erakundeetako zuzendaritza-taldeetako ordezkariak eta langileen ordezkariak. | |

| EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA | |
|---|---|
| **HELBURU NAGUSIA** | |
| **I1.** Laneko sexu-jazarpena prebenitzea eta kentzea. | |
| **HELBURU ERAGILEA** | |
| **I1.1.** Administrazio publikoetan eta sektore pribatuko enpresetan sexu-jazarpena prebenitzeko eta sexu-jazarpena egonez gero jarduteko protokoloak ezartzea, eta langile-ehuneko handienak dituzten jarduera-adarrei lehentasuna ematea, sexu-jazarpena azalarazteko eta murrizteko. | |
| Adierazleak<br>• Sexu-jazarpenaren aurka jarduteko eta prebenitzeko protokoloak ezarri dituzten administrazio publikoen eta mendeko enpresen ehunekoa.<br>• Sexu-jazarpena *hutsegite oso larri* gisa tipifikatzen duten lan-hitzarmenen ehunekoa.<br>• Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta kentzeko sektore pribatuari zuzendutako ekintza-kopurua eta -motak. | |
| Estrategiak<br>• Eremu horretan langile-kudeaketaren ardura dutenei gai honi buruzko prestakuntza ematea.<br>• Sexu-jazarpena zer den eta zer arautegi aplikatzen den adieraztea, eta horren gainean sentsibilizatzea.<br>• Sexu-jazarpena prebenitzeko eta tratatzeko protokoloak ezartzea. | |
| **Ekintzak** | |
| Tresna | Ekintza |
| Prestakuntza | **I1.1.1.** Udalean ardura-karguak dituztenei prestakuntza espezifikoa ematea, bereziki, giza baliabideak (langile-ordezkariak) kudeatzen dituztenei, arazoa prebenitu eta modu eraginkorrean konponduko dela bermatzeko. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko prestakuntza ere sartu behar da, prebentzio-jarduera gisa. |
| Arauak | **I1.1.2.** Udalaren eta mendeko erakundeen lan-hitzarmenetan honelako neurririk badagoen aztertzea, eta ez badago, sartzea. |
| Sentsibilizazioa | **I1.1.3.** Sektore pribatuan, lan-esparruan emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeari eta kentzeari buruzko informazio-kanpainak egitea, bai eta esparru pribatuko emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta kentzeko dauden zerbitzuei, baliabideei, neurriei eta laguntzei buruzkoak ere. |
| **Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak** | |
| - Ogasun, Langile eta Udaltzaingo Saila<br>- Udaleko sindikatu-ordezkariak<br>- Udalaren mendeko erakundeak: Mendeko erakundeetako zuzendaritza-taldeetako ordezkariak eta langileen ordezkariak. | |

## GIZARTERATZE-SAILA

| ABIATZE-EGOERA |
|---|
| Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeekin esku hartzeko sistema ez dago zentralizatuta. Zerbitzu guztiek jasotzen dute eskaria, baina ez dago ondo bideratzeko eta koordinatzeko sistemarik, eta emakume bakoitzak zerbitzu batera edo bestera jotzen du. Hori dela-eta, tartean diren zerbitzuek ez dakite tratu txarrak jasandako emakume bat artatzen ari diren (emakumeak berak esaten ez badu, behintzat) edo beste baliabide batzuetako babesa jasotzen ari den. Horrenbestez, emakumeak koordinatu behar ditu baliabideak (nahi badu), eta dauden zerbitzuak ez dira elkarren artean koordinatzen[4].<br><br>2007an, 35 emakumek eskatu zuten babesa (2006an baino 9 gehiagok), 35 salaketa jarri ziren eta ofiziozko 3 atestatu egin ziren (2006an baino 9 gutxiago). Emakumeen aurkako indarkeria betidanik izan da, baina, gaur egun, informazio gehiago dago, eta kasu gehiagoren berri izaten dugu. Edonola ere, emakumeek ez dute salaketa bat jartzeko beharrezko laguntzarik izaten.<br><br>Immigranteek zailtasunak izaten dituzte gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko ikastaro eta jardueretan izena eman eta parte hartzeko (ahalduntzeari buruzko ikastaroak, esate baterako), haien kultura-mailagatik, hizkuntza-gaitasun ezagatik….. |

[4] Prebentziorako eta bikote harremanean tratu txar egoera bizi duten edo bizi izan duten emakumeak artatzeko udal politika. Egoera-diagnostikoa. Durangoko Udala, 2008ko martxoa.

ELHUYAR aholkularitza

DURANGO Udala · Ayuntamiento

| ZEHARKAKOTASUNA | |
|---|---|
| **HELBURU NAGUSIA** | |
| **ZT1.** Gizarte-zerbitzuetan genero-ikuspegia sartzea. | |
| **HELBURU ERAGILEA** | |
| **Z1.1.** Gizarte-ekintzako alorretako diagnostikoetan, plangintzetan, esku-hartzeetan eta ebaluazioetan genero-ikuspegia sartzea. | |
| Adierazleak<br>• Genero-ikuspegia kontuan hartuz, hobekuntzak nabarmenarazi dituzten gizarte-ekintzako programen ehunekoa.<br>• Genero-ikuspegia kontuan hartu duten proiektuak.<br>• *Mainstreaming*a sartzeko prozesuetan parte hartu duten pertsonen asebetetze-maila. | |
| Estrategiak<br>• Gizarte-ekintzako alorretako plangintzetan, esku-hartzeetan eta ebaluazioetan, genero-ikuspegia kontuan hartzeari dagokionez izan daitezkeen hutsuneak atzemateko jarduerak egitea.<br>• Alor horietako teknikariak prestatzea eta aholkatzea.<br>• Gizartean parte hartzeko faseetako bakoitzean, genero-ikuspegia kontuan hartuta, izan diren hobekuntzen segimendua egitea. | |
| **Ekintzak** | |
| Tresna | Ekintza |
| Ezagutza | **Z1.1.1.** Gizarte Ekintza, Lankidetza eta Immigrazio Saila eta Oinarrizko Zerbitzu Sozialak aztertzea, genero-ikuspegia zenbateraino sartu den jakiteko. |
| Prestakuntza | **Z1.1.2.** Gizarte Ekintza, Lankidetza eta Immigrazio Saileko teknikariei zuzendutako prestakuntza-ekintzak egitea, genero-ikuspegiaren diagnostikoak, plangintzak, esku-hartzeak eta ebaluazioak egin ditzaten. |
| Segimendua | **Z1.1.3.** Gizartean parte hartzeko faseetako bakoitzean, genero-ikuspegia kontuan hartuta, izan diren hobekuntzen segimendua eta ebaluazioa egitea. |
| **Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak** | |
| - Gizarte Ekintza, Lankidetza eta Immigrazio Saila<br>- Durangoko Merindadearen Amankomunazgoa<br>- Oinarrizko Zerbitzu Sozialak | |

| AHALDUNTZEA | |
|---|---|
| **HELBURU NAGUSIA** | |
| **A1.** Era askotako diskriminazioa eta bazterketa-arriskua duten emakumeen baldintzak eta posizioak hobetzea. | |
| **HELBURU ERAGILEA** | |
| **A1.1** Pobrezia-egoeran eta bazterketa-arriskuan daudenei zuzendutako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta posizioak hobetzeko (alarguntasuna, ezintasuna, prostituzioa, droga-mendekotasuna, askatasun eza, immigrazioa eta pertsona helduak). | |
| Adierazleak<br>• Egoera horretan dauden emakumeen baldintzak hobetzeko egokitutako baliabideak. Baliabide ekonomikoak, enplegua, etxebizitza, prestakuntza eta kultura eskuratzeko izan den hobekuntza.<br>• Egoera horretan dauden emakumeen posizioak hobetzeko egokitutako baliabideak.<br>• Informazioa eskuratzea errazteko eta parte-hartze soziopolitikoa, autoantolaketa eta kontzientzia hartzea sustatzeko ekintza-kopurua eta -motak.<br>• Alarguntasun-egoerari laguntzeko zerbitzuen tipologia. | |
| Estrategiak<br>• Emakume horien baldintzak, egoerak eta beharrak aztertzea, jardute-ildoak ezartzeko.<br>• Jasotzen dituzten laguntzak, baliabide ekonomikoak eta etxebizitza-baliabideak nahikoa diren aztertzea.<br>• Baliabide ekonomikoak ezartzea, ordaindu gabeko pentsioak ordaintzeko eta alarguntasun-pentsio baxuenak osatzeko, eta emakume horien seme-alabei laguntza espezifikoak ematea.<br>• Informazio-, orientazio- eta aholkularitza-zerbitzuak sortzea edo egokitzea, genero-ikuspegia sartuta.<br>• Administrazioko langileak prestatzea, emakume horien egoera hobetzeko eta haien ahalduntzea sustatzeko programak diseinatu eta planifikatzeko.<br>• Abian jarri diren baliabideen jarraipena eta ebaluazioa egitea, baita sortzen ari diren eraginaren gainekoa ere. | |
| **Ekintzak** | |
| Tresna | Ekintza |
| Prestakuntza | **A1.1.1.** Administrazioko langileak eta hirugarren sektorean lan egiten duten erakundeak prestatzea, emakume horien egoera hobetzeko eta haien ahalduntzea sustatzeko programak diseinatu eta planifikatzeko. |
| Zerbitzuak eta baliabideak | **A1.1.2.** Baliabide ekonomikoak ezartzea, alarguntasunaren ondorioz ekonomia-estutasunean dauden emakumeen eta pentsio osagarriak eta elikadura-pentsioak jasotzen ez dituzten emakumeen errenta bermatzeko.<br>**A1.1.3.** Informazio- eta aholkularitza-zerbitzua sortzea edo osatzea, alarguntasun-egoeran daudenentzako. |
| **Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak** | |
| - Gizarte Ekintza, Lankidetza eta Immigrazio Saila<br>- Durangoko Merindadearen Amankomunazgoa<br>- Emakumeen elkarteak<br>- Kolektibo horien alde lan egiten duten erakundeak<br>- Oinarrizko Zerbitzu Sozialak | |

| BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA | |
|---|---|
| **HELBURU NAGUSIA** | |
| **B1.** Autonomia funtzionalik ez duten pertsonei laguntzeko baliabide soziokomunitarioak ezartzea. | |
| **HELBURU ERAGILEA** | |
| **B1.1.** Baliabide gehiago jartzea, zainketa-lanak egiten dituztenen zama ekonomikoa, soziala eta psikologikoa arintzeko. | |
| Adierazleak<br>• Autonomia funtzionalik ez duten pertsonak zaintzen dituzten emakumeen zama soziala, ekonomikoa eta psikologikoa arintzeko Udaleko Gizarte Ekintza Sailak bideratzen duen baliabide-kopurua.<br>• Zaintzaileek dituzten beharrei buruzko azterketa-motak eta emaitzak. | |
| Estrategia<br>• Emakumeek egiten duten zainketa tradizionaletik bestelakoak diren alternatibak eta formula-proposamen berritzaileak bilatzea, eta zama horiek arintzeko, administrazioek baliabideak sortzea. | |
| **Ekintzak** | |
| Tresna | Ekintza |
| Prestakuntza | **B1.1.1.** Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako langileei prestakuntza-ikastaroak ematea, generoko “zaintzaile-rolaren” gizarte eraikuntzaren eta autonomia funtzionalik ez duten pertsonak zaintzen dituzten emakumeen zama ekonomiko, sozial, psikologiko eta sindrome berrien (“*burn out*” sindromea) artean dagoen zuzeneko erlazioari buruz. |
| **Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak** | |
| - Gizarte Ekintza, Lankidetza eta Immigrazio Saila<br>- Durangoko Merindadearen Amankomunazgoa<br>- Kolektibo horien alde lan egiten duten erakundeak<br>- Zaindu programa | |

| EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA | |
|---|---|
| **HELBURU NAGUSIA** | |
| **I1.** Gertatzen diren etxeko indarkeria kasuak eta sexu-erasoak kontuan hartuta, prebentzioa eta arreta hobetzea. | |
| **HELBURU ERAGILEA** | |
| **I1.1.** Indarkeria-zikloa aurretiaz atzemateko moduak handitzea. | |
| Adierazleak<br>• Ikerketa eta berehalako jardute-arauak kontuan hartuta, atzemandako biolentzia-kasuak, eta horien tipologia.<br>• Indarkeria-zikloari buruzko eta hori kentzeari buruzko sentsibilizazio-kanpainak eta motak.<br>• Indarkeriari buruzko prestakuntza-jardueretan parte hartu duten administrazio publikoetako teknikarien ehunekoa.<br>• Prestakuntza-prozesuetan parte hartu duten pertsonen asebetetze-maila.<br>• Harrera-etxea eta topagunea egotea, eta horien funtzionamendu egokitua. | |
| Estrategiak<br>• Indarkeria-zikloa garaiz atzemateko jarduerak bultzatzea.<br>• Oro har, gizartearen, eta, bereziki, gizarte-taldeen inplikazioa lortzeko jarduerak egitea, indarkeria garaiz atzemateko babes-eragile informal bilaka daitezen.<br>• Harrera-etxe bat eta topagune bat ezartzea. | |
| **Ekintzak** | |
| Tresna | Ekintza |
| Ezagutza | **I1.1.1.** Udalerriko herritar-sektoreetan emakumeen aurkako indarkeriaren egoerari buruzko ikerketa kualitatiboa egitea, emakume immigranteak, emakume zaharrak, gazteak eta herritarrak, oro har, nola bizi diren jakiteko (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 1. EKINTZA). |
| Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea | **I1.1.2.** Herritarrak sentsibilizatzeko, indarkeriaren zikloari buruzko informazioa eman eta hedatzeko, eta indarkeria jasaten duten emakumeentzat dauden baliabideak azalerazteko kanpainak egitea, indarkeria garaiz atzematea eta herritarren konpromisoa lortzeko, babes-eragile ez-formal izan daitezen. |
| Prestakuntza | **I1.1.3.** Gizarte zerbitzuetako langileek eta udaltzainek emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko prestakuntza espezializatua jasotzea, indarkeria-zikloaren hasiera garaiz atzemateko, eta indarkeria fisikoa eta nork bere buruaren aurkako indarkeria prebenitzeko (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 7ª EKINTZA).<br>**E1.1.4.** Elkarteei eta herriko beste talde batzuei hiru ikastaro ematea, era askotako diskriminazioa jasaten ari diren emakumeen aurkako indarkeriari buruz (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 10. EKINTZA). |
| Zerbitzuak eta baliabideak | **I1.1.5.** Durangon topagune bat prestatzea adin txikikoak utzi eta jasotzeko, edo tratu txar eta indarkeria-kasuetan, baita bisitak egiteko ere, langile kualifikatuak aurrean direla (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 15. EKINTZA). |
| **Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak** | |
| - Gizarte Ekintza, Lankidetza eta Immigrazio Saila<br>- Ogasun, Langile eta Udaltzaingo Saila<br>- Durangoko elkarteak<br>- Durangoko Merindadearen Amankomunazgoa<br>- Kolektibo horien alde lan egiten duten erakundeak | |

**HELBURU ERAGILEA**

**I1.2.** Tratu txarren eta sexu-erasoen biktima izan direnek duten arreta, laguntza eta babesa jasotzeko eskariari, koordinazio-, kalitate- eta eraginkortasun-irizpideekin erantzutea, tokiko jarduera-protokoloak ezarriz, herrietan izaten diren etxeko tratu txarren eta sexu-erasoei aurrea hartzeko, eta horretarako talde ahulenei arreta jartzea (zaharrei, immigranteei, gazteei…)**.**

Adierazleak

- Doako Laguntza Psikologikoko Zentroaren protokoloa eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko arautegiaren gida ezagutzera emateko egiten diren kanpainak, eta kanpainek izan duten hedapena.
- Protokoloak jaso duen adostasun-maila.
- Protokoloak aplikatzeko konpromisoa duten erakunde-kopurua.
- Protokoloari jarraipena egiteko alor askotako talde batenkoordinazio-mota.

Estrategiak

- Teknikariak eta politikariak prestatzea eta sentsibilizatzea.
- Inplikatutako erakundeen artean segimenduak egiteko eta koordinatzeko mekanismoak ezartzea.
- Zer laguntza juridiko eta psikologiko eskaintzen den zabaltzea.

**Ekintzak**

| | |
|---|---|
| Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea | **I1.2.1.** Herritarrei dauden protokoloen berri eta mankomunitatearen mendekoa den doako Laguntza Psikologikoko Zentroaren berri ematea (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 12. EKINTZA).<br><br>**I1.2.2.** Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko legeen eta jurisprudentziaren berri ematen duen gida egitea (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 13. EKINTZA). |
| Segimendua | **I1.2.3.** Lan-mintegiak egitea, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean nola jardun jakiteko bertako protokolo bat susta eta egin dadin (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 11. EKINTZA).<br><br>**I1.2.4.** Durangoko Protokoloaren segimendua egiteko alor askotako kideak dituen talde bat sortzea edo egokitzea (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 11. EKINTZA).<br><br>**I1.2.5.** Tratu txarren eta sexu-erasoen biktimak artatzeko, laguntzeko eta babesteko protokoloaren segimendua, eta egon daitezkeen hutsuneak edo hobetu daitezkeen alorrak aztertzea (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 11. EKINTZA). |

**Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak**

- Berdintasun Saila
- Durangoko Emakumeen Kontseilua.
- Durangoko Merindadearen Amankomunazgoa
- Berritzegunea
- Udaltzaingoa
- Ertzaintza
- Osasun-etxea
- Epaitegia
- Kolektibo horien alde lan egiten duten erakundeak

# OSASUN-SAILA

| ABIATZE-EGOERA |
| --- |
| Osasuna emakumeari lotuta egon den eremua izan da, eta oraindik ere hala da. Gaur egun, oraindik ere, erizain gehienak emakumeak dira, eta medikurik gehienak, gizonezkoak. Geroz eta emakume mediku gehiago dago, baina alor oso zehatzetan jarduten dute (esate baterako, asko familia-medikuak dira).<br><br>Laguntza bila osasun-etxeetara jotzen duten pertsonarik gehienak emakumeak izan ohi dira (bai beraientzako bai familiakoentzako laguntza eske).<br><br>Gaixotasun-motei dagokienez, badira emakumeek maizago izaten dituzten gaixotasun jakin batzuk (esate baterako, antsietatea). Horretaz gain, kasu askotan, gizonezkoek ez dituzte gaixotasun-mota horiek ulertzen.<br><br>Oraindik ere tabua da pertsona adinduen sexualitateaz hitz egitea. Sexualitateari buruz prestakuntza integrala eman beharra dago. |

| ZEHARKAKOTASUNA | |
|---|---|
| **HELBURU NAGUSIA** | |
| **Z1.** Emakumeei gehien eragiten dieten gaixotasunei ekiteko modua hobetzea. | |
| **HELBURU ERAGILEA** | |
| **Z1.1.** Gaixotasunak prebenitzeko eta autozainketarako portaerak gehitzea. | |
| Adierazleak<br>• Emakumeei gehien eragiten dieten gaixotasunak prebenitzeko jarduera-kopurua eta -motak.<br>• | |
| Estrategiak<br>• Droga-mendekotasuna prebenitzeko programetan genero-ikuspegia sartzea.<br>• Hezkuntza-alorra eta emakume-taldeak bakoitzak bere burua zaintzeak duen garrantziaz sentsibilizatzea.<br>• Haurren eta gazteen inguruan biltzen diren talde guztiei (gurasoei, irakasleei, eskoletako ikasleei) zuzendutako komunikazio-, sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak egitea.<br>• Ikastetxeak bizi-ohitura osasungarriei buruzko hitzaldiak eta lantegiak antola ditzaten sustatzea. | |
| **Ekintzak** | |
| Tresna | Ekintza |
| Prestakuntza | **Z1.1.1.** Haurrei eta nerabeei zuzenduta dauden osasunerako hezkuntza-programen barruan, gaixotasunak prebenitzeko eta bakoitzak bere burua zaintzeko lantegiak sartzea, genero-ikuspegia kontuan hartuta. |
| Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea | **Z1.1.2.** Familiak, irakasleak eta gizarte-eragileak bakoitzak bere burua zaintzeak duen garrantziaz informatzea eta sentsibilizatzea. |
| **Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak** | |
| - Durango Eraikitzen<br>- Durangoko Merindadearen Amankomunazgoa<br>- Berritzegunea<br>- Gazte Informazio Bulegoa<br>- Durangoko kirol-elkarteak<br>- Gazteekin edo gazteentzat lan egiten duten erakunde soziokulturalak. | |

| AHALDUNTZEA | |
|---|---|
| **HELBURU NAGUSIA** | |
| **A1.** Emakumeek osasunari buruzko erabaki gehiago har ditzaten lortzea. | |
| **HELBURU ERAGILEA** | |
| **A1.1.** Metodo antikontzeptiboen eskuragarritasuna bermatzea, eta, behar izanez gero, baita koito ondokoa edo haurdunaldia borondatez etetekoa ere, nahi ez diren haurdunaldi-tasak gutxitzeko, batez ere, nerabeetan, eta preserbatiboaren erabilera sustatzea, sexu-transmisioko gaixotasunak prebenitzeko metodo bakarra delako. | |
| Adierazleak<br>• Antisorgailuak eskuratzeko zailtasunak dituztela dioten nerabeen ehunekoa.<br>• Sexu-harremanetan preserbatiboa erabiltzen dutela dioten nerabeen ehunekoa.<br>• Nahigabeko haurdunaldien ehunekoa.<br>• Gazteei eta immigranteei zuzendutako arriskurik gabeko sexu-harremanetarako programa-kopurua eta -motak. | |
| Estrategiak<br>• Neska-mutilen artean sexu-portaera autonomoa eta arduratsua sustatzeko informazio- eta heziketa-programak egitea, eta sexu-harremanetan gizonezkoek duten erantzukizuna sustatzea.<br>• Immigranteen artean sexu-portaera autonomoa eta arduratsua sustatzeko informazio- eta heziketa-programak egitea, eta sexu-harremanetan gizonezkoek duten erantzukizuna sustatzea, immigranteen kultura eta balioak kontuan hartuz. | |
| **Ekintzak** | |
| Tresna | Ekintza |
| Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea | **A1.1.1.** Arriskurik gabeko sexu-harremanak izateko, gazteei Durangon dauden baliabideen berri ematea. |
| Prestakuntza | **A1.1.2.** Neska-mutilen artean sexu-portaera autonomoa eta arduratsua sustatzeko informazio- eta heziketa-programak egitea, kultura-talde guztietan gizonezkoek duten erantzukizuna nabarmenduz.<br><br>**A1.1.3.** Hainbat talderi sexu-harreman osasungarriei buruzko prestakuntza eta informazioa eskaintzea (immigranteei, helduei). |
| **Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak** | |
| - Durango Eraikitzen<br>- Durangoko Merindadearen Amankomunazgoa<br>- Emakume-elkarteak<br>- Gazte Informazio Bulegoa | |

| BATERATZEA ETA ERANTZUNKIDETASUNA | |
|---|---|
| **HELBURU NAGUSIA** | |
| **B1.** Autonomia funtzionalik ez duten pertsonei laguntzeko baliabide soziokomunitarioak ezartzea. | |
| **HELBURU ERAGILEA** | |
| **B1.1.** Baliabide gehiago jartzea, zainketa-lanak egiten dituztenen zama ekonomikoa, soziala eta psikologikoa arintzeko. | |
| Adierazleak<br>• Autonomia funtzionalik ez duten pertsonak zaintzen dituzten emakumeen zama soziala, ekonomikoa eta psikologikoa arintzeko administrazioaren gizarte-ekintzako sailek bideratzen dituzten baliabide-kopurua. | |
| Estrategiak<br>• Emakumeek egiten duten zainketa tradizionaletik bestelakoak diren alternatibak eta formula-proposamen berritzaileak bilatzea, eta administrazioek zama horiek arintzeko baliabideak sortzea. | |
| **Ekintzak** | |
| Tresna | Ekintza |
| Ezagutza | **B1.1.1.** Autonomia funtzionalik ez duten pertsonak zaintzeak sortzen dituen zamak arintzeko dauden laguntzak aztertzea, eta Durangoko benetako beharrekin konparatzea**.** |
| Zerbitzuak eta baliabideak | **B1.1.2.** Bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lana bateratzen laguntzeko eskualdeko zerbitzu eta baliabideen direktorioa egitea. |
| Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea | **B1.1.3.** Herritarrei eta administrazio publikoko eta haren mendeko erakundeetako langileei direktorio horren berri ematea.<br><br>**B1.1.4.** Informazio- eta sentsibilizazio-jarduerak egitea, zaintzaileek egiten duten lanaren eta horrek dakarren kostu pertsonalaren berri emateko, zeregin horietan gizonen erantzunkidetasuna sustatzeko. |
| **Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak** | |
| - Durango Eraikitzen<br>- Durangoko Merindadearen Amankomunazgoa<br>- Emakumeen elkarteak<br>- Emakumeekin edo emakumeentzat lan egiten duten erakundeak. | |

ELHUYAR ahholkularitza

DURANGO Udala · Ayuntamiento

| EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA | |
|---|---|
| **HELBURU NAGUSIA** | |
| **I1.** Tratu txarrak, emakumeen aurkako indarkeria eta sexu-erasoak gertatzen direnean ematen den laguntza fisikoa eta psikologikoa hobetzea. | |
| **HELBURU ERAGILEA** | |
| **I1.1.-** Emakumeen aurkako indarkeria eta sexu-erasoak gertatzen direnean ematen den laguntza fisikoa eta psikologiko osoa hobetzea eta gehitzea. | |
| Adierazleak<br>• Prestakuntza-ikastaroetan parte hartu dutenen asebetetze-maila.<br>• Alor askotako taldea sortzen konprometitutako erakunde- eta zuzendari-kopurua<br>• Indarkeria-zikloari eta hori kentzeari buruzko sentsibilizazio-kanpainak eta motak.<br>• Alor askotako taldea koordinatzeko modua. | |
| Estrategiak<br>• Teknikariak prestatzea eta sentsibilizatzea.<br>• Inplikatutako erakundeen artean segimenduak egiteko eta koordinatzeko mekanismoak ezartzea. | |
| **Ekintzak** | |
| Prestakuntza | **I1.1.1.** Teknikariei ikastaroak ematea, etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak gertatzen direnean nola jardun jakiteko tokian tokiko protokoloak garatu eta bultzatzeko (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 9ª EKINTZA). |
| Sentsibilizazioa | **I1.1.2.** Herritarrak sentsibilizatzeko eta dauden laguntzen berri emateko kanpainak egitea (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 9. EKINTZA). |
| Segimendua | **I1.1.3.** Autolaguntzarako taldeak sortzea. |
| **Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak** | |
| - Berdintasun-saila<br>- Durangoko Merindadearen Amankomunazgoa<br>- Osakidetza<br>- Sektore horien alde lan egiten duten gizarte-laguntzako erakundeak. | |

## HIRIGINTZA, GARRAIO PUBLIKO ETA INGURUMEN SAILA

| ABIATZE-EGOERA |
|---|
| Herritarrek zailtasunak dituzte gai honetan emakumeek eta gizonek interes eta behar desberdinak dituztela ikusteko. Gizon nahiz emakumeentzat hobetu beharreko trabak eta gauzak dituela herriak uste dute. Trabek, batez ere, minusbaliatuei, haurrei eta zaharrei eragiten diete.<br><br>Emakumeek ez dute erabaki-esparruetan parte hartzen. Durango gizonek diseinatu dute, gizon gazte eta osasuntsuen beharrak oinarri hartuta.<br><br>Durango oinarrizko familia eredu hartuta diseinatu dute; familia-mota horretan emakumeek familiako kideak eta etxea zaintzeko ardura dute, eta gizonek etxetik kanpo lan egiten dute. Ondorioz, herriak ez du bermatzen bertan bizi direnek bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lana batera ditzaketenik. Gizarte-zerbitzuak barreiatuta daude, eta ez dago zainketa-laguntzarik ematen duen gunerik.<br><br>Durangok geroz eta sozializazio-eremu gutxiago du. Arkitektura-eredu berria geroz eta itxiagoa da: barne-patioak, etxetik etxera distantzia oso handiak, eremu pribatuak….. Horrek pertsonen arteko komunikazioa ere zailtzen du, eta segurtasun falta eragiten.<br><br>Emakumeen ikuspuntutik arriskutsuak izan daitezkeen zenbait eremu ditu Durangok. Herriko argiztapena hobeto aztertzeko ikerketaren bat egin behar litzateke. Herriko gune beltzak aztertu dira, baina egoera hobetzeko ez da neurririk aplikatu.<br><br>Herriko eremuak elkarrekin lotzeko autobus bat edo antzeko garraiobideren bat behar litzateke.<br><br>Durangok ez dio memoria historikoari eusten, eta ez du emakumeen erreferentziarik: emakumeen izena duten kale eta eraikin gutxi dago. |

| ZEHARKAKOTASUNA | |
|---|---|
| **HELBURU NAGUSIA** | |
| **Z1.** Hirigintzarekin, garraio publikoarekin eta ingurumenarekin zerikusia duten politiketan eta proiektuetan genero-ikuspegia sartzea. | |
| **HELBURU ERAGILEA** | |
| **Z1.1.** Hirigintzako eta ingurumeneko ekintza-planetan genero-ikuspegia sartzea. | |
| Adierazleak<br>• Genero-ikuspegia kontuan hartuta egin diren hirigintzako esku-hartzeak.<br>• Jardunbide egoki gisa har daitezkeen egindako proiektuak.<br>• Prestakuntza-prozesuetan parte hartu duten pertsonen asebetetze-maila. | |
| Estrategiak<br>• Hirigintzako diseinuaren eta plangintzaren ardura dutenak sentsibilizatzea, prestatzea eta aholkatzea, bai kargu publikoak bai teknikariak. | |
| **Ekintzak** | |
| Tresna | Ekintza |
| Sentsibilizazioa | **Z1.1.1.** Kargu publikoak eta teknikariak sentsibilizatzea, hiri-hobekuntzarekin, -diseinuarekin eta -plangintzarekin eta ingurumenarekin zerikusia duten gaietan genero-ikuspegia sartzeak duen garrantziaz. |
| Prestakuntza | **Z1.1.2.** Kargu publikoak eta teknikariak prestatzea, hiri-hobekuntzan, -diseinuan eta -plangintzan eta ingurumeneko gaietan genero-ikuspegia sar dezaten. |
| Segimendua | **Z1.1.3.** *Durangoko Emakumeentzat Debekatutako Hiriaren Mapan* jasotako gomendioen segimendua egitea eta nola aplikatu den aztertzea.<br><br>**Z1.1.4.** *Durangoko plangintza urbanistikoa hobetzeko gomendioen dekalogoaren* segimendua egitea eta nola aplikatu diren aztertzea (aurretik aipatutako mapan zehaztu da). |
| **Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak** | |
| - Hirigintza, Obrak eta Etxebizitza Saila<br>- Garapen Iraunkorreko Saila<br>- Agenda 21 | |

| AHALDUNTZEA | |
|---|---|
| **HELBURU NAGUSIA** | |
| **A1.** Emakumeek hirigintza-eremuetan parte hartzea, eta hirigintzako, garraio publikoko eta ingurumeneko eremuak planifikatzeko, diseinatzeko eta hobetzeko prozesuetan gizon-emakumeen arteko parekotasuna egotea. | |
| **HELBURU ERAGILEA** | |
| **A1.1.** Hirigintza- eta ingurumen-alorretan izaten diren prozesu parte-hartzaileetan emakumeen eta emakume-taldeen parekotasuna eta parte hartzea bermatzea (bereziki Tokiko Agenda 21en, eta Eskualdeko Landa Garapenerako programetan). | |
| Adierazleak<br>• Hirigintza- eta ingurumen-sailetan zenbat emakume dauden, eta zer maila hierarkiko duten, eta sail horietan zenbat emakume zinegotzi dagoen.<br>• Hirigintzako eta ingurumeneko plangintzak, diseinuak eta hobekuntzak egiteko herritarrei parte hartzeko zenbat aldiz dei egin zaien.<br>• Emakumeak parekotasun-egoeran zenbat parte-hartze prozesutan izan diren.<br>• Hirigintzako eta ingurumeneko plangintzak, diseinuak eta hobekuntzak egiteko solaskide publiko izan daitezen gaitzeko prestakuntza-jardueretan parte hartu duen emakume-kopurua. | |
| Estrategiak<br>• Herritarrak eta herritarrek parte hartzeko prozesuak antolatzen eta kudeatzen dituztenak sentsibilizatzea.<br>• Erabaki- eta plangintza-taldeetan parekotasuna exijitzeko mekanismoak ezartzea. | |
| **Ekintzak** | |
| Tresna | Ekintza |
| Sentsibilizazioa | **A1.1.1.** Hirigintzako eta ingurumeneko plangintzak, diseinuak eta hobekuntzak egiteko ardura dutenak herritarrek (emakumeak eta gazteak nabarmenduz) plangintza- eta erabaki-prozesuetan parte hartzeak duen garrantziaz sentsibilizatzea. |
| Prestakuntza | **A1.1.2.** Emakumeei zuzendutako prestakuntza- eta informazio-jarduerak egitea, hirigintzako eta ingurumeneko plangintza-, diseinu- eta hobekuntza-prozesuetan parte har dezaten gaitzeko. |
| Arauak | **A1.1.3.** Parte-hartzeko kuotak eta mekanismoak ezartzea, hirigintzarekin eta ingurumenarekin zerikusia duten eztabaida-foroetan, diseinuan eta erabaki-hartzeetan emakumeak egotea bermatzeko. |
| **Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak** | |
| - Hirigintza, Obrak eta Etxebizitza Saila<br>- Garapen Iraunkorreko Saila<br>- Agenda 21<br>- Emakumeen erakunde soziokulturalak, eta emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna sustatzen duten taldeak. | |

| HELBURU NAGUSIA | |
|---|---|
| **A2.** Emakumeek eremu publikoan egin duten gizarte-ekarpena, kultura-ekarpen eta ekarpen historikoa aitortzea. | |
| **HELBURU ERAGILEA** | |
| **A2.1.** Hiri-elementuen bidezko emakumeen eta gizonen aintzatespen soziala orekatzea (kale-izenak, plaza-izenak, monumentuak eta abar). | |
| Adierazleak<br>• Kale-izendegian sartu diren emakume-izenen kopurua eta ehunekoa.<br>• Gaur egun emakumeei eskainitako zenbat monumentu eta eraikin dagoen.<br>• Eraikiko diren hiri-esparru berrietan, emakume-izena zenbat kaleri, monumenturi eta abarri jarriko zaien, eta zer ehuneko egingo duen. | |
| Estrategiak<br>• Kale-izendegiak, monumentuak eta hiriko beste elementu batzuk aztertzea.<br>• Emaitzak zabalduz jendea sentsibilizatzea.<br>• Iradokizunak jasotzea. | |
| **Ekintzak** | |
| Tresna | Ekintza |
| Ezagutza | **A2.1.1.** Kale, plaza, parke, monumentu eta herriko elementu sinbolikoen izenak aztertzea, emakumeek zer aintzatespen sinboliko duten jakiteko. |
| Arauak | **A2.1.2.** Kale-izendegiko eta monumentuen izenak hautatzeko prozesuak erregulatzeko arautegia egitea, kaleei, plazei, monumentuei eta abarri emakumeen izena ematea sustatzeko. |
| **Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak** | |
| - Hirigintza, Obrak eta Etxebizitza Saila<br>- Garapen Iraunkorreko Saila<br>- Agenda 21 | |

| BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA | |
|---|---|
| **HELBURU NAGUSIA** | |
| **B1.** Hirigintzako eta garraio publikoko azpiegiturak egokitzea, bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lanaren bateragarritasuna eta autonomia pertsonala garatzea kontuan hartuta. | |
| **HELBURU ERAGILEA** | |
| **B1.1.** Hiri-plangintzako eta -diseinuko irizpideak identifikatzea eta aplikatzea, bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lana bateratzea errazteko. | |
| Adierazleak<br>• Genero-ikuspegia kontuan hartuta, hiri-plangintzarekin eta -diseinuarekin zerikusia duten zenbat diagnostiko egin diren.<br>• Hiri-diseinuarekin lotutako zenbat traba dituen bateragarritasunak, eta zenbat neutralizatu diren.<br>• Autobus publikoko zerbitzuak izan duen erantzuna. | |
| Estrategiak<br>• Familia-bizitza, bizitza pertsonala eta lana bateratzeko hiri-plangintzarekin eta -diseinuarekin zerikusia duten trabak identifikatzea, ebaluatzea eta konponbideak proposatzea.<br>• Arautegia aztertzea, eta, hala badagokio, egokitzea, mugikortasun gutxiko pertsonei buruzko arautegian jaso ez diren alderdi berriak sartzeko. | |
| **Ekintzak** | |
| Tresna | Ekintza |
| Ezagutza | **B1.1.1.** Hiri-plangintzan eta -diseinuan dauden beharrak aztertzea, bateragarritasun-irizpideei erantzuteko. |
| **Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak** | |
| - Udaleko Hirigintza eta Ingurumen Saila<br>- Tokiko Agenda 21 | |

| EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA | |
|---|---|
| **HELBURU NAGUSIA** | |
| **I1.** Emakumeen segurtasuna eta segurtasun-sentipena hobetzea. | |
| **HELBURU ERAGILEA** | |
| **E1.1.** Segurtasunaren arloan, *Durangoko Emakumeentzat Debekatutako Hiriaren Mapan* zehaztu diren gomendioak eta protokoloak abian jartzea. | |
| Adierazleak<br>• Emakumeen segurtasuna bermatzeko diseinu-irizpideei buruzko arautegia.<br>• Arautegia betez egindako esku-hartzeen kopurua.<br>• *Durangoko Emakumeentzat Debekatutako Hiriaren Mapan* jasotako gomendioak zenbateraino aplikatu diren. | |
| Estrategiak<br>• Hirigintzako esku-hartze guztietan nahitaez bete beharreko segurtasun-irizpide batzuk jasotzen dituen arautegia egitea.<br>• Emakumeei zuzendutako sentsibilizazio-kanpainak egitea, beren beldurrak arrazionaliza ditzaten. | |
| **Ekintzak** | |
| Tresna | Ekintza |
| Sentsibilizazioa, informazioa eta jendarteratzea | **I1.1.1.** *Durangoko Emakumeentzat Debekatutako Hiriaren Mapan* jasotako gomendioak aplikatzea. |
| Arautegia. | **I1.1.2.** Udal-arautegian, genero-ikuspegia kontuan hartuta, segurtasun-irizpideak sartzea, eta horiek hobetzeko edo aldatzeko esku-hartzeetan nahiz eremu berriak eraikitzekoetan aplikatzea. |
| **Parte-hartzea eta ardura duten eragileak/erakundeak** | |
| - Udaleko Hirigintza eta Ingurumen Saila<br>- Emakumeen erakunde soziokulturalak, eta emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna sustatzen duten taldeak. | |

ELHUYAR aholkularitza

DURANGO Udala · Ayuntamiento

# OBJETIVOS GENERALES, OPERATIVOS, ACCIONES POR ÁREA

## UDALEKO ZERBITZU OROKORRAK

| ARDATZA | HELBURU OROKORRAK | HELBURU OPERATIBOAK | EKINTZAK |
|---|---|---|---|
| **Zeharkakotasuna** | **Z1**.-. Udalean genero-ikuspegia nola sartu antolatzeko programak sortzea. | **Z1.1.** Beharrezko jarduerak diseinatzea, bultzatzea eta balioestea, genero-ikuspegia udaleko sailetan eta udalaren mendeko erakundeetan ezartzea ahalbidetu, erraztu eta sustatzeko. | **Z1.1.1.** Udaleko langileen artean genero-diskriminaziorik edo genero-estereotiporik badagoen aztertzea (soldatak, "kristalezko sabaia", "lurzoru itsaskorra", bereizketa horizontala…), eta hobekuntzarako ildoak gomendatzea.<br>**Z1.1.2.** Sailetako tresnak, prozesuak, programak eta jarduerak aztertzea, genero-ikuspegiaren gaineko irizpideak, gomendioak eta egokitzapenak erabakitzeko.<br>**Z1.1.3.** Genero-ikuspegia udaleko eta haren mendeko erakundeetako azterketetan eta estatistiketan zenbateraino sartu den aztertzea.<br>**Z1.1.4.** Hizkuntza (euskara eta gaztelera) ez-sexista erabiltzeko eskuliburua zabaltzeko eta bultzatzeko barne-kanpaina egitea.<br>**Z1.1.5.** Politikariak eta teknikariak sentsibilizatzeko eta prestatzeko, genero-ikuspegiari eta berdintasun politikei buruzko ikastaroak egitea, (eta Berdintasunari buruzko 4/2005 Legeari eta Udal Planari aipamen berezia egitea).<br>**Z1.1.6.** Sail arteko mahai tekniko bat sortzea, Planaren jarduera-ildoak koordinatzeko, eta, era berean, batzorde politikoarekin koordinatzeko. Horretarako, osaera, funtzioak, ardurak eta barne-komunikaziorako metodoak egokitu behar dira.<br>**Z1.1.7.** Administrazioak erakundeekin egiten dituen lizitazioetan eta adjudikazioetan genero-irizpideak sartzea. |
| **Ahalduntzea** | **A1.** Udaleko prozesuak areagotzea eta indartzea, emakumeek politika publikoak definitzen parte har dezaten, eta horien segimendua eta ebaluazioak egiten ere bai. | **A1.1.** Parte-hartze prozesuak egin daitezen sustatzea, eta gizarte-prozesu eta erabakiak hartzeko prozesu guztietan emakumeak eta emakume-elkarteak egongo direla bermatzea, parte-hartzeetan emakumeen heterogeneotasuna kontuan hartuta (gazteak, helduak, alargunak, immigranteak…). | **A1.1.1.** Udalaren ekitaldi publikoetan, planetan, programetan eta jardueretan emakumeak protagonista izan daitezen, parte har dezaten eta erabakiak hartzeko bideak izan ditzaten arauak eta jarraibideak ezartzea. |
| | **A2.** Durangoko Emakumeen Kontseilua bultzatzea, Durangoko emakumeen eta gizonen artean berdintasun eraginkorra lortzeko. | **A2.1.** Durangoko Berdintasun Batzordea sustatzea, herriko emakume-elkarteen eta berdintasunaren aldeko lana egiten duten erakundeen ordezkariekin batera. | **A2.2.1.** Durangon, herrian lanean diharduen Emakumeen Batzordea badagoela ezagutaraztea, eta zer funtzio dituen eta zer lan egiten duen jakitera ematea, kontseilu horri eta kontseilua osatzen duten emakumeei eta erakundeei izena emateko.<br>**A2.2.2**. ANDRAGUNE ezagutzera ematea, eta programa bidez indartzea.<br>**A2.2.3.** Emakumeen Batzordeak plan hau gauzatzeko, eta planaren segimendua egiteko eta ebaluatzeko zer funtzio izango dituen adostea.<br>**A2.2.4.** Emakumeen Batzordearen arrakasta, aukerak eta indarguneak balioestea, Durangoko emakumeek Udalaren politika publikoetan zer eragin duten jakiteko. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna** | **B1.** Udalean eta haren mendeko erakundeetan bateragarritasuna eta ardura partekaturako tresnak sortzea. | **B1.1**. Ardura partekatua eta bateragarritasuna sustatzeko tresnak eta eremintak sortzea, eta lan-prozesuak eta koordinazioa garatzea. | **B1.1.1.** Beharren diagnostikoa egitea, eta bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lana bateratzea errazteko neurri-sortak sortzea.<br>**B1.1.2.** Udaleko politikarientzat eta teknikarientzat prestakuntza-lantegiak egitea, gizonek adiskidetzeko espiritua eta aldi bereko arduraren aldeko jarrera har dezaten. Ikastaroetara gizonek joan behar dute.<br>**B1.1.3.** Udalaren Bateragarritasun-plana egitea, beharren diagnostikoaren arabera, bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lana bateratzeko |
| **Emakumeen aurkako indarkería** | **I1.** Administrazio-koordinazioa bultzatzea, emakumeen aurkako indarkeriaren aurka borrokatzeko. | **I1.1.** Durangoko Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-plana gauzatuko dela bermatzea. | **I1.1.1.** Durangoko Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-plana zenbateraino gauzatu den aztertzea.<br>**I1.1.2.** Kanpaina publiko iraunkorrak eta koordinatuak egitea, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-plana, planeko edukiak, aurrerapenak eta Durangoko herritarrengan duen eragina ezagutarazteko.<br>**I1.1.3.** Eudelek azaroaren 25erako egingo duen kanpainan parte hartzea, hura sustatzea eta udaleko kanpainak hartara egokitzea.<br>**I1.1.4.** Udaleko politikariak eta teknikariak emakumeen aurkako indarkeriaren gainean heztea (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 6-8 EKINTZAK).<br>**I1.1.5.** Koordinazio-egitura bat ezartzea, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-plana gauzatzeko, haren segimendua egiteko eta hura balioesteko.<br>**I1.1.6.** Durangoko Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-plana gauzatzen ari denean, haren segimendua egitea, koordinatzea eta ebaluatzea (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 16-17. EKINTZAK). |

| EUSKARA ETA KULTURA | | | |
|---|---|---|---|
| **ARDATZA** | **HELBURU OROKORRAK** | **HELBURU OPERATIBOAK** | **EKINTZAK** |
| **Zeharkakotasuna** | **Z1.** Euskara eta Kultura Sailean genero-ikuspegia sartzea. | **Z1.1.** Euskara eta Kultura Sailak kultura-jarduerak genero-ikuspegia kontuan hartuta planifikatzea, gauzatzea, haien segimendua egitea eta ebaluatzea. | **Z1.1.1.** Administrazioko langileentzat eta azpikontratatutako enpresetako langileentzat barne-hedapeneko gida bat egitea eta zabaltzea, kultura-jarduerak eta -programak diseinatzeko, planifikatzeko eta inplementatzeko kontuan hartu beharreko jarraibideei eta praktika onei buruz.<br>**Z1.1.2.** Kultura-arloan emakumeek dituzten nahiak, itxaropenak, beharrak eta interesak aditzera emateko diagnostikoa sustatzea.<br>**Z1.1.3.** Euskara eta Kultura Saileko langileak aukera-berdintasunean heztea, eta antolatzen diren kultura-programak eta -jarduerak planifikatzeko eta garatzeko orduan, genero-ikuspegia aztertzeko eta kontuan hartzeko gaitzea. |
| **Ahalduntzea** | **A1.** Emakumeen jarduera eta partaidetza kultura-arloan. | **A1.1.** Kultura-jardueretan Durangoko emakumeen ekarpen gehiago sartzea. | **A1.1.1.** Kultura-ondarean emakumeek egindako ekarpen historikoak ikertzea eta sistematizatzea, bai eta emakumeek eta gizonek historikoki kultura nola sortu duten ere, bereziki euskal kultura nabarmenduz.<br>**A1.1.2.** Durangoko emakumeek kulturari egindako ekarpenak zabaltzea.<br>**A1.1.3.** Emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna bermatzen duten irizpideak ezartzea, Durangoko elkarte edo erakundeei laguntzak emateko. |
| | **A2.** Berdintasuna bultzatzen duten elkarte soziokulturalen sarea sustatzea. | **A2.1.** Eremu soziokulturalean emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko lanean ari diren elkarteak bultzatzea. | **A2.1.1.** Eremu soziokulturaleko elkarte-sarearen eta berdintasunari ematen dioten bultzadaren diagnostikoa egitea, genero-ikuspegia kontuan hartuta.<br>**A2.1.2.** Elkarte soziokulturalei berdintasuna sustatzeko zerbitzuak eta baliabideak hedatzea.<br>**A2.1.3.** Durangoko elkarte-sareari zuzenduta, emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunari buruzko ikastaroak egitea.<br>**A2.1.4.** Durangoko elkarteei diru-laguntzak emateko, berdintasun-irizpideak ezartzea. |
| **Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna** | **B1.** Kulturaren arloan, bateragarritasuna eta ardura partekatua izateko neurri gehiago hartzea. | **B1.1.** Kultura-zerbitzu eta -programetan familia-bizitza, lana eta gizarte-bizitza bateratzeko eta horietan ardura partekatua izateko neurri-sortak diseinatzea. | **B1.1.1.** Euskara eta Kultura Sailak eta horren mendeko erakundeek antolatzen dituzten jarduera eta ekitaldi guztietan bateragarritasuna eta ardura partekaturako zerbitzuak eta neurriak bermatzea.<br>**B1.1.2.** Hausnarketa- eta eztabaida-taldeak sortzea, bateragarritasuna eta ardura partekatuaren beharra atzeman duten interes-taldeekin.<br>**B1.1.3.-** Ardura partekatuaren alorreko jardunbide egokiei buruzko sentsibilizazio- eta hedapen-kanpainak egitea. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Emakumeen aurkako indarkeria** | **I1.** Sexismoa esparru soziokulturaletan errotik kentzeko jardutea. | **I1.1.** Emakumeen kontrako indarkeria prebenitzen eta ezabatzen kultura-eragileak gehiago konprometitzea. | **I1.1.1.** Martxoaren 8ari, azaroaren 25ari eta Ahalduntze Eskolari buruzko informazioa emateko hitzaldiak egitea, eta horien gainean sentsibilizatzeko materiala argitaratzea.<br>**I1.1.2.** Festetan izaten den emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko, horren gainean sentsibilizatzeko eta indarkeria hori atzemateko prozesua abian jartzea, festa batzordeekin (Emakumeen Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 2. EKINTZA).<br>**I1.1.3.** Gizonei zuzendutako ikastaro bereziak egitea, gizonek tratu txarren prebentzioaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren gainean hausnartu eta jarduerak egin ditzaten (Emakumeenganako Indarkeriarekin Aurkako Ekintza-planeko 5. EKINTZA).<br>**I1.1.1.4.** Durangoko komunikabideekin (prentsa, irratia, telebista) hitzarmenak egitea, emakumeen gaineko irudi sexistarik ez emateko, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko. |

| KIROLA | | | |
|---|---|---|---|
| **ARDATZA** | **HELBURU OROKORRAK** | **HELBURU OPERATIBOAK** | **EKINTZAK** |
| **Zeharkakotasuna** | **Z1.** Gazteria, Kirola eta Hezkuntza sailean genero-ikuspegia sartzea. | **Z1.1.** Kirol Sailean, kirol-jarduerak genero-ikuspegia kontuan hartuta planifikatzea, gauzatzea, haien segimendua egitea eta ebaluatzea. | **Z1.1.1.** Durangoko emakumeek kirol-eremuan duten egoera, gustuak, nahiak, beharrak eta interesak azalarazteko diagnostikoa egitea, eta gomendioak eta jarduera-ildoak zehaztea.<br><br>**Z1.1.2.** Administrazioko langileentzat eta azpikontratatutako enpresetako langileentzat barne-hedapeneko gida bat egitea eta zabaltzea, kirol-jarduerak eta -programak diseinatzeko, planifikatzeko eta aplikatzeko kontuan hartu beharreko jarraibideei eta praktika onei buruz.<br><br>**Z1.1.3.** Administrazioaren kirol-arloko sailetako eta erakundeetako teknikariak eta politikariak eta klubetako zuzendaritza-taldeetako kideak sentsibilizatzeko jarduerak egitea.<br><br>**Z1.1.4.** Kirol-planifikazioaz, -kudeaketaz eta -ebaluazioaz arduratzen diren langileei aukera-berdintasunari buruzko prestakuntza ematea, kirol-arloko sailak bultzatzen duen dinamikan genero-ikuspegia sar dezaten. |
| **Ahalduntzea** | **A1.** Emakumeen jarduera eta partaidetza kirol-arloan. | **A1.1.** Adin guztietako emakume gehiago kirola egiten ikustea. | **A1.1.1.** Herritarrei zuzendutako kanpainak egitea (hitzaldiak ikastetxeetan, komunikabideetan agertzea, ekipamendu soziokulturalak…), edozein kirol-motatan erreferente diren Durangoko emakumeak ezagutzera emateko.<br><br>**A1.1.2.** Kirol-langileei, gurasoei eta hezitzaileei zuzendutako sentsibilizazio-jarduerak egitea (hitzaldiak, liburuxkak, ikastaroak…), jarduera fisikoan eta kirol-jardueran egon behar den aukera-berdintasunari buruz, hezitzaile-lanean neska-mutilen kirol-ohitura dibertsifikatzea sustatzeko. |
| **Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna** | **B1.** Udalaren kirol-zerbitzuak eta -baliabideak bateragarritasunaren eta ardura partekatuaren beharretara egokitzea. | **B1.1.** Emakumeek kirola egin dezaten erraztasunak ematea, haien bizi-kalitatea eta garapen pertsonala hobetzeko. | **B1.1.1.** Kirol-instalazioen ordutegi- eta baliabide-beharrak aztertzea, genero-ikuspegia kontuan hartuta.<br><br>**B1.1.2.** Udalaren kirol-instalazioetako zerbitzuak, ekipamendua eta eremuak emakumeen eta gizonen beharretara egokitzea, betiere aukera-berdintasuna errespetatuz eta azterketaren emaitzak kontuan hartuz.<br><br>**B1.1.3. "**Durango", Udalaren Kirol Institutuak egiten duen kirol-eskaintzaren segimendua egitea, eta emakumeen eta gizonen gustuak eta interesak desberdinak direla kontuan hartuta, zerbitzuak, ekipamenduak eta eremuak egokitzea. |
| **Emakumeen aurkako indarkeria** | **I1.** Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten balioak eta kiroletan lehiarik ez izatea bultzatzea. | **I1.1.** Kirol-arloan lehiarik eta indarkeriarik eza bultzatzen duten sentsibilizazio-kanpaina gehiago egitea. | **I1.1.1.** Erakundeen arteko hitzarmenak sustatzea, kiroletako indarkeria prebenitzeko eta ezabatzeko sentsibilizazio-kanpainak egin daitezen, eta gizonezkoei arreta berezia eskaintzea. |

ELHUYAR aholkularitza

DURANGO Udala · Ayuntamiento

| HEZKUNTZA | | | |
|---|---|---|---|
| **ARDATZA** | **HELBURU OROKORRAK** | **HELBURU OPERATIBOAK** | **EKINTZAK** |
| **Zeharkakotasuna** | **Z1.** Ikastetxeetan eta aisialdi-taldeetan baterako hezkuntza sustatzea. | **Z1.1.** Hezkuntza arautuko eta ez-arautuko erakundeen artean egitura egonkorra ezartzea Durangon baterako hezkuntza sustatzeko familia, haur, gazte eta hezitzaileengana iristearren. | **Z1.1.1.** Durangoko hezkuntza-erakundeen (hezkuntza arautukoak eta ez-arautukoak: ikastetxeak, Berritzegunea, aisialdi-taldeak eta animazio soziokulturalekoak, HHE, Haurreskolak Partzuergoa…) elkargune eta lan kooperatiboko plataforma bat sortzea. Plataforma horrek egitura, lan-metodoa eta jardute-plana izango ditu, udalerrian baterako hezkuntza sustatzeko.<br><br>**Z1.1.2.** Durangoko ikastetxeetan (haur hezkuntza, lehen eta bigarren hezkuntzakoetan) eta hezkuntza-eremuan parte hartzen duten izaera ez-arautuko erakundeetan baterako hezkuntza eta orientazio profesional ez-sexista sustatzeko jarduerak elkarrekin planifikatzea (jolas eta jostailu ez-sexistak, baterako heziketarako materialak, baterako heziketarako jardunbide egokiak, balio ez-sexistetan hezteko ikastaroak, generoka estereotipatuta ez dauden postuetan eta karguetan emakumeak eta gizonak sartu dituzten enpresak bisitatzea…). |
| **Ahalduntzea** | **A1.** Hezkuntza arloan neskak, emakumeak egotea eta parte hartzea, eta berdintasuna sustatzea. | **A1.1.** Hezkuntzari, sozializazioari eta berdintasunari emakumeek egiten dioten ekarpena agerraraztea. | **A1.1.1.** Herritarrei zuzendutako jarduerak diseinatzea, hezkuntzaren arloan parte hartu duten eta parte hartzen duten, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatu duten Durangoko emakumeak ezagutzera emateko (filmak, liburuak, erakusketak…). |
| **Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna** | **B1.** Ardura partekatuaren kultura eta zaintzaren etika sustatzea. | **B1.1.** Ardura partekatuaren eta zaintzaren etika sustatzeko eremu gehiago sortzea gizartean eta hezkuntzan. | **B1.1.1.** Udaleko Gazteria, Kirol eta Hezkuntza Saileko teknikariak prestatzea, ardura partekatuaren eta zaintzaren etikaren aldeko kultura sustatzeko programak eta jarduerak diseina ditzaten. Egiten diren jarduera guztietan ordutegi- eta zainketa-beharrak hartu behar dira kontuan, eta, horretarako, haurtzaindegi-zerbitzua, ludoteka eta abar eskaini.<br><br>**B1.1.2.** Hezitzaileei, monitoreei eta animazio soziokulturalaren eta hezkuntzaren arloan, bereziki, aisia eta aisialdiaren arloan lan egiten dutenei metodologien eta baliabideen gaineko prestakuntza ematea, ardura partekatua eta zaintzaren etikaren gaineko balioak sortzeko.<br><br>**B1.1.3.** Zainketaren eremuko eta etxe-eremuko zereginak ikasteko gizonei zuzendutako lantegiak egitea. |
| | **B2.** Denbora eta hezkuntzako azpiegiturak egokitzea eta berrantolatzea. | **B2.1.** 0-3 urteko haurrei zuzendutako leku gehiago behar den ikertu, eta lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetan jangela- eta garraio-zerbitzuaren eskaria beteta dagoela bermatu. | **B2.1.1.** Hezkuntzaren eremuarekin lotutako zerbitzuen eskaintza eta eskaria aztertzea: jangelak, garraioa, haur-eskolak, ludotekak, ordu-poltsak..<br><br>**B2.1.2.** Lekuak eta jarduerak, eta horiek gurasoen baldintzetara, egoeretara eta beharretara egokitzen diren aztertzea, eta eskaintza eta eskaria alderatzea, banaketa geografikoko irizpideak kontuan hartuta. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | **B2.2.** Ikastetxeetako, haur-eskoletako eta aisia eta aisialdiko zerbitzuetako ordutegiak eta egutegiak malgutzea, horien antolatzeko autonomia kontuan hartuta, familien beharrak aintzat hartzen direla bermatzeko. | **B2.2.1.** Ikastetxeak eta gizarte- eta hezkuntza-zerbitzuak sustatzea, familietako elkar aditzea errazteko, eta bileretan edo topaguneetan gurasoen, baina bereziki, aiten parte hartzea errazteko.<br><br>**B2.2.2.** Heziketa-eskaintza planifikatzea, jardueren ordutegiak ardura familiarrak, pertsonalak eta profesionalak bateratzera egokituta. |
| **Emakumeen aurkako indarkeria** | **I1.** Gizarte- eta hezkuntza-eremuetan indarkeria sexista prebenitzea. | **I1.1.** Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko programak egitea, ikastetxeetan, aisialdi- eta aisia-erakundeetan, guraso-eskoletan eta abar. | **I1.1.1.** Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko prestakuntza-ikastaroak ematea haurrei, gazteei, familiei eta hezkuntzako langileei (irakasleei, monitoreei…) (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 3. EKINTZA). |

| LANA ETA ENPLEGUA | | | |
|---|---|---|---|
| **ARDATZA** | **HELBURU OROKORRAK** | **HELBURU OPERATIBOAK** | **EKINTZAK** |
| **Zeharkakotasuna** | **Z1.** Enplegu-zerbitzuetan genero-ikuspegia sartzea. | **Z1.1. Enplegu**-zerbitzuetan genero-ikuspegia sartzea. | **Z1.1.1** Lan-zerbitzuetako eta erakunde kolaboratzaileetako langileak prestatzea, lanbideratzeko prozesu osoko fase bakoitzean genero-ikuspegia nola sartu jakiteko, bai informatze-, orientatze- eta prestakuntza-faseetan, bai lan munduratzeko babesa emateko eta jarraipena egitekoetan, bai enpresa eta autoenplegua sustatzekoetan. Prestakuntza horretan kontuan hartu behar da bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lanekoa bateratzen diren, ordutegiak jartzeko eta zerbitzuak emateko.<br><br>**Z1.1.2.** Enpresak eta langileak kontratatzeko, aukera-berdintasunarekin bat datozen klausulak ezartzea. |
| **Ahalduntzea** | **A1.** Lana berdintasun-baldintzetan eskuratzea. | **A 1.1.** Enpresa-ekimenak sortzeko eta finkatzeko, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun kuantitatiboa gutxitzea, emakume-sustatzaileen parte-hartzea gehituz, batez ere, oso emakume gutxi dauden sektore eta lanbideetan. | **A1.1.1** Emakume gutxi dauden lan-sektoreetan ETEak sustatzen dituzten emakumeei pizgarriak ematea.<br><br>**A1.1.2** Emakume langabetuak ekonomia sozialeko enpresetan sar daitezen sustatzea, bazkide langile edo lan-bazkide gisa. |
| | **A2.** Administrazio publikoan zein sektore pribatuan emakumeen eta gizonen lan-kondizioak parekatzeko sentsibilizazioa. | **A2.1.** Administrazio publikoan emakumeen eta gizonen lan-kondizioak parekatzea, eta sektore pribatuko enpresetan parekatze-behar horren gainean sentsibilizatzea. | **A2.1.1** Desberdintasun- edo diskriminazio-eremuak eta -adierazpenak identifikatzeko diagnostikoa egitea, eta administrazio publikoaren eta mendeko enpresen enpleguan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ziurtatzeko neurriak proposatzea, negoziazio kolektiboaren bidez.<br><br>**A2.1.2** Merkataritza-sektorean emakumeek duten egoera eta kondizioak aztertzea.<br><br>**A2.1.3** Administrazioan lan-kondizioen kudeaketaren ardura dutenei beharrezko prestakuntza ematea, erakundeetan berdintasuna sartzeko.<br><br>**A2.1.4** Administrazio publikoak eta haren mendeko enpresek beren langileekin izaten dituzten negoziazio kolektiboetan, enplegu publikoaren alorrean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ziurtatzeko neurriak proposatzen dituztela ziurtatzea.<br>- Enpresa edo erakundeak kontratatzeko eta esleitzeko oinarrietan, enpresa horiek beren barne-dinamikan aukera-berdintasunik eta berdintasun-politikarik sustatzen duten balioestea.<br>- Oposizio publikoen lehiaketak arautzeko oinarrietan genero-berdintasunaren alorrean esperientziarik eta prestakuntzarik baduten aztertzea, eta gaitegietan emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunari buruzko edukiak sartzea.<br><br>**A2.1.5** Enpresetan aukera-berdintasunari buruzko “jardunbide egokiak” hedatzea. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna** | **B1.** Udalean eta mendeko erakundeetan, lan-bizitza, bizitza familiarra eta pertsonala bateratzeko laguntza-zerbitzuak eta neurriak ezartzea. | **B1.1** Administrazio publikoan eta haren mendeko erakundeetan emakumeen eta gizonen desberdintasun kuantitatiboa murriztea, etxeko lanak eta zaintze-lanak egiteko erabiltzen duten denborari dagokionez. Desberdintasun hori murrizteko, amatasun/aitatasun eta mendeko pertsonak zaintzeko baimenak eta lizentziak gizon gehiagok hartu behar dituzte. | **B1.1.1.** Udalerriko enpresei zaintzaren etikaren gainean gizonei (oro har) eta bereziki zuzendariei zuzendutako prestakuntza-ikastaroak eskaintzea.<br><br>**B1.1.2.** Sentsibilizazio-ekintzak egitea, gizonek aitatasunagatiko eta mendeko pertsonak zaintzeko baimenak eta lizentziak eska eta erabil ditzatela sustatzeko. |
| **Emakumeen aurkako indarkeria** | **I1.** Laneko sexu-jazarpena prebenitzea eta kentzea. | **I1.1.** Administrazio publikoetan eta sektore pribatuko enpresetan sexu-jazarpena prebenitzeko eta sexu-jazarpena egonez gero jarduteko protokoloak ezartzea, eta langile-ehuneko handienak dituzten jarduera-adarrei lehentasuna ematea, sexu-jazarpena azalarazteko eta murrizteko. | **I1.1.1.** Udalean ardura-karguak dituztenei prestakuntza espezifikoa ematea, bereziki, giza baliabideak (langile-ordezkariak) kudeatzen dituztenei, arazoa prebenitu eta modu eraginkorrean konponduko dela bermatzeko. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko prestakuntza ere sartu behar da, prebentzio-jarduera gisa.<br><br>**I1.1.2.** Udalaren eta mendeko erakundeen lan-hitzarmenetan honelako neurririk badagoen aztertzea, eta ez badago, sartzea.<br><br>**I1.1.3.** Sektore pribatuan, lan-esparruan emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeari eta kentzeari buruzko informazio-kanpainak egitea, bai eta esparru pribatuko emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta kentzeko dauden zerbitzuei, baliabideei, neurriei eta laguntzei buruzkoak ere. |

| GIZARTARATZEA | | | |
|---|---|---|---|
| **ARDATZA** | **HELBURU OROKORRAK** | **HELBURU OPERATIBOAK** | **EKINTZAK** |
| **Zeharkakotasuna** | **Z1.** Gizarte-zerbitzuetan genero-ikuspegia sartzea. | **Z1.1.** Gizarte-ekintzako alorretako diagnostikoetan, plangintzetan, esku-hartzeetan eta ebaluazioetan genero-ikuspegia sartzea. | **Z1.1.1.** Gizarte Ekintza, Lankidetza eta Immigrazio Saila aztertzea, genero-ikuspegia zenbateraino sartu den jakiteko.<br><br>**Z1.1.2.** Gizarte Ekintza, Lankidetza eta Immigrazio Saileko teknikariei zuzendutako prestakuntza-ekintzak egitea, genero-ikuspegiaren diagnostikoak, plangintzak, esku-hartzeak eta ebaluazioak egin ditzaten.<br><br>**Z1.1.3.** Gizartean parte hartzeko faseetako bakoitzean, genero-ikuspegia kontuan hartuta, izan diren hobekuntzen segimendua eta ebaluazioa egitea. |
| **Ahalduntzea** | **A1.** Era askotako diskriminazioa eta bazterketa-arriskua duten emakumeen baldintzak eta posizioak hobetzea. | **A1.1** Pobrezia-egoeran eta bazterketa-arriskuan daudenei zuzendutako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta posizioak hobetzeko (alarguntasuna, ezintasuna, prostituzioa, droga-mendekotasuna, askatasun eza, immigrazioa eta pertsona helduak). | **A1.1.1.** Administrazioko langileak eta hirugarren sektorean lan egiten duten erakundeak prestatzea, emakume horien egoera hobetzeko eta haien ahalduntzea sustatzeko programak diseinatu eta planifikatzeko.<br><br>**A1.1.2.** Baliabide ekonomikoak ezartzea, alarguntasunaren ondorioz ekonomia-estutasunean dauden emakumeen eta pentsio osagarriak eta elikadura-pentsioak jasotzen ez dituzten emakumeen errenta bermatzeko.<br><br>**A1.1.3.** Informazio- eta aholkularitza-zerbitzua sortzea edo osatzea, alarguntasun-egoeran daudenentzako. |
| **Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna** | **B1.** Autonomia funtzionalik ez duten pertsonei laguntzeko baliabide soziokomunitarioak ezartzea. | **B1.1.** Baliabide gehiago jartzea, zainketa-lanak egiten dituztenen zama ekonomikoa, soziala eta psikologikoa arintzeko. | **B1.1.1.** Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako langileei prestakuntza-ikastaroak ematea, generoko “zaintzaile-rolaren” gizarte eraikuntzaren eta autonomia funtzionalik ez duten pertsonak zaintzen dituzten emakumeen zama ekonomiko, sozial, psikologiko eta sindrome berrien (“*burn out*” sindromea) artean dagoen zuzeneko erlazioari buruz. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Emakumeen aurkako indarkeria** | **I1.** Gertatzen diren etxeko indarkeria kasuak eta sexu-erasoak kontuan hartuta, prebentzioa eta arreta hobetzea. | **I1.1.** Indarkeria-zikloa aurretiaz atzemateko moduak handitzea. | **I1.1.1.** Udalerriko herritar-sektoreetan emakumeen aurkako indarkeriaren egoerari buruzko ikerketa kualitatiboa egitea, emakume immigranteak, emakume zaharrak, gazteak eta herritarrak, oro har, nola bizi diren jakiteko (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 1. EKINTZA).<br>**I1.1.2.** Herritarrak sentsibilizatzeko, indarkeriaren zikloari buruzko informazioa eman eta hedatzeko, eta indarkeria jasaten duten emakumeentzat dauden baliabideak azalerazteko kanpainak egitea, indarkeria garaiz atzematea eta herritarren konpromisoa lortzeko, babes-eragile ez-formal izan daitezen.<br>**I1.1.3.** Gizarte zerbitzuetako langileek eta udaltzainek emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko prestakuntza espezializatua jasotzea, indarkeria-zikloaren hasiera garaiz atzemateko, eta indarkeria fisikoa eta nork bere buruaren aurkako indarkeria prebenitzeko (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 7ª EKINTZA).<br>**I1.1.4.** Elkarteei eta herriko beste talde batzuei hiru ikastaro ematea, era askotako diskriminazioa jasaten ari diren emakumeen aurkako indarkeriari buruz (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 10. EKINTZA).<br>**I1.1.5.** Durangon topagune bat prestatzea adin txikikoak utzi eta jasotzeko, edo tratu txar eta indarkeria-kasuetan, baita bisitak egiteko ere, langile kualifikatuak aurrean direla (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 15. EKINTZA). |
| | | **I1.2.** Tratu txarren eta sexu-erasoen biktima izan direnek duten arreta, laguntza eta babesa jasotzeko eskariari, koordinazio-, kalitate- eta eraginkortasun-irizpideekin erantzutea, tokiko jarduera-protokoloak ezarriz, herrietan izaten diren etxeko tratu txarren eta sexu-erasoei aurrea hartzeko, eta horretarako talde ahulenei arreta jartzea (zaharrei, immigranteei, gazteei…). | **I1.2.1.** Herritarrei dauden protokoloen berri eta mankomunitatearen mendekoa den doako Laguntza Psikologikoko Zentroaren berri ematea (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 12. EKINTZA).<br>**I1.2.2.** Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko legeen eta jurisprudentziaren berri ematen duen gida egitea (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 13. EKINTZA).<br>**I1.2.3.** Lan-mintegiak egitea, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean nola jardun jakiteko bertako protokolo bat susta eta egin dadin (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 11. EKINTZA).<br>**I1.2.4.** Durangoko Protokoloaren segimendua egiteko alor askotako kideak dituen talde bat sortzea edo egokitzea (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 11. EKINTZA).<br>**I1.2.5.** Tratu txarren eta sexu-erasoen biktimak artatzeko, laguntzeko eta babesteko protokoloaren segimendua, eta egon daitezkeen hutsuneak edo hobetu daitezkeen alorrak aztertzea (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 11. EKINTZA). |

| OSASUNA | | | |
|---|---|---|---|
| **ARDATZA** | **HELBURU OROKORRAK** | **HELBURU OPERATIBOAK** | **EKINTZAK** |
| **Zeharkakotasuna** | **Z1.** Emakumeei gehien eragiten dieten gaixotasunei ekiteko modua hobetzea. | **Z1.1.** Gaixotasunak prebenitzeko eta autozainketarako portaerak gehitzea. | **Z1.1.1.** Haurrei eta nerabeei zuzenduta dauden osasunerako hezkuntza-programen barruan, gaixotasunak prebenitzeko eta bakoitzak bere burua zaintzeko lantegiak sartzea, genero-ikuspegia kontuan hartuta.<br>**Z1.1.2.** Familiak, irakasleak eta gizarte-eragileak bakoitzak bere burua zaintzeak duen garrantziaz informatzea eta sentsibilizatzea. |
| **Ahalduntzea** | **A1.** Emakumeek osasunari buruzko erabaki gehiago har ditzaten lortzea.. | **A1.1.** Metodo antikontzeptiboen eskuragarritasuna bermatzea, eta, behar izanez gero, baita koito ondokoa edo haurdunaldia borondatez etetekoa ere, nahi ez diren haurdunaldi-tasak gutxitzeko, batez ere, nerabeetan, eta preserbatiboaren erabilera sustatzea, sexu-transmisioko gaixotasunak prebenitzeko metodo bakarra delako. | **A1.1.1.** Arriskurik gabeko sexu-harremanak izateko, gazteei Durangon dauden baliabideen berri ematea.<br>**A1.1.2.** Neska-mutilen artean sexu-portaera autonomoa eta arduratsua sustatzeko informazio- eta heziketa-programak egitea, kultura-talde guztietan gizonezkoek duten erantzukizuna nabarmenduz.<br>**A1.1.3.** Hainbat talderi sexu-harreman osasungarriei buruzko prestakuntza eta informazioa eskaintzea (immigranteei, helduei). |
| **Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna** | **B1.** Autonomia funtzionalik ez duten pertsonei laguntzeko baliabide soziokomunitarioak ezartzea. | **B1.1.** Baliabide gehiago jartzea, zainketa-lanak egiten dituztenen zama ekonomikoa, soziala eta psikologikoa arintzeko. | **B1.1.1.** Autonomia funtzionalik ez duten pertsonak zaintzeak sortzen dituen zamak arintzeko dauden laguntzak aztertzea, eta Durangoko benetako beharrekin konparatzea**.**<br>**B1.1.2.** Bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lana bateratzen laguntzeko eskualdeko zerbitzu eta baliabideen direktorioa egitea.<br>**B1.1.3.** Herritarrei eta administrazio publikoko eta haren mendeko erakundeetako langileei direktorio horren berri ematea.<br>**B1.1.4.** Informazio- eta sentsibilizazio-jarduerak egitea, zaintzaileek egiten duten lanaren eta horrek dakarren kostu pertsonalaren berri emateko, zeregin horietan gizonen ardura partekatua sustatzeko. |
| **Emakumeen aurkako indarkeria** | **I1.** Tratu txarrak, emakumeen aurkako indarkeria eta sexu-erasoak gertatzen direnean ematen den laguntza fisikoa eta psikologikoa hobetzea. | **I1.1.** Emakumeen aurkako indarkeria eta sexu-erasoak gertatzen direnean ematen den laguntza fisikoa eta psikologiko osoa hobetzea eta gehitzea. | **I1.1.1.** Teknikariei ikastaroak ematea, etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak gertatzen direnean nola jardun jakiteko tokian tokiko protokoloak garatu eta bultzatzeko (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 9ª EKINTZA).<br>**I1.1.2.** Herritarrak sentsibilizatzeko eta dauden laguntzen berri emateko kanpainak egitea (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 9. EKINTZA).<br>**I1.1.3.** Autolaguntzarako taldeak sortzea. |

| HIRIGINTZA, GARRAIO PUBLIKOA ETA INGURUMENA | | | |
|---|---|---|---|
| **ARDATZA** | **HELBURU OROKORRAK** | **HELBURU OPERATIBOAK** | **EKINTZAK** |
| **Zeharkakotasuna** | **Z1.** Hirigintzarekin, garraio publikoarekin eta ingurumenarekin zerikusia duten politiketan eta proiektuetan genero-ikuspegia sartzea. | **Z1.1.** Hirigintzako eta ingurumeneko ekintza-planetan genero-ikuspegia sartzea. | **Z1.1.1.** Kargu publikoak eta teknikariak sentsibilizatzea, hiri-hobekuntzarekin, -diseinuarekin eta -plangintzarekin eta ingurumenarekin zerikusia duten gaietan genero-ikuspegia sartzeak duen garrantziaz.<br><br>**Z1.1.2.** Kargu publikoak eta teknikariak prestatzea, hiri-hobekuntzan, -diseinuan eta -plangintzan eta ingurumeneko gaietan genero-ikuspegia sar dezaten.<br><br>**Z1.1.3.** *Durangoko Emakumeentzat Debekatutako Hiriaren Mapan* jasotako gomendioen segimendua egitea eta nola aplikatu den aztertzea.<br><br>**Z1.1.4.** *Durangoko plangintza urbanistikoa hobetzeko gomendioen dekalogoaren* segimendua egitea eta nola aplikatu diren aztertzea (aurretik aipatutako mapan zehaztu da). |
| **Ahalduntzea** | **A1.** Emakumeek hirigintza-eremuetan parte hartzea, eta hirigintzako, garraio publikoko eta ingurumeneko eremuak planifikatzeko, diseinatzeko eta hobetzeko prozesuetan gizon-emakumeen arteko parekotasuna egotea. | **A1.1.** Hirigintza- eta ingurumen-alorretan izaten diren prozesu parte-hartzaileetan emakumeen eta emakume-taldeen parekotasuna eta parte hartzea bermatzea (bereziki Tokiko Agenda 21en, eta Eskualdeko Landa Garapenerako programetan). | **A1.1.1.** Hirigintzako eta ingurumeneko plangintzak, diseinuak eta hobekuntzak egiteko ardura dutenak herritarrek (emakumeak eta gazteak nabarmenduz) plangintza- eta erabaki-prozesuetan parte hartzeak duen garrantziaz sentsibilizatzea.<br><br>**A1.1.2.** Emakumeei zuzendutako prestakuntza- eta informazio-jarduerak egitea, hirigintzako eta ingurumeneko plangintza-, diseinu- eta hobekuntza-prozesuetan parte har dezaten gaitzeko.<br><br>**A1.1.3.** Parte-hartzeko kuotak eta mekanismoak ezartzea, hirigintzarekin eta ingurumenarekin zerikusia duten eztabaida-foroetan, diseinuan eta erabaki-hartzeetan emakumeak egotea bermatzeko. |
| | **A2.** Emakumeek eremu publikoan egin duten gizarte-ekarpena, kultura-ekarpen eta ekarpen historikoa aitortzea. | **A2.1.** Hiri-elementuen bidezko emakumeen eta gizonen aintzatespen soziala orekatzea (kale-izenak, plaza-izenak, monumentuak eta abar). | **A2.1.1.** Kale, plaza, parke, monumentu eta herriko elementu sinbolikoen izenak aztertzea, emakumeek zer aintzatespen sinboliko duten jakiteko.<br><br>**A2.1.2.** Kale-izendegiko eta monumentuen izenak hautatzeko prozesuak erregulatzeko arautegia egitea, kaleei, plazei, monumentuei eta abarri emakumeen izena ematea sustatzeko. |
| **Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna** | **B1.** Hirigintzako eta garraio publikoko azpiegiturak egokitzea, bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lanaren bateragarritasuna eta autonomia pertsonala garatzea kontuan hartuta. | **B1.1.** Hiri-plangintzako eta -diseinuko irizpideak identifikatzea eta aplikatzea, bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lana bateratzea errazteko. | **B1.1.1.** Hiri-plangintzan eta -diseinuan dauden beharrak aztertzea, bateragarritasun-irizpideei erantzuteko. |
| **Emakumeen aurkako indarkeria** | **I1.** Emakumeen segurtasuna eta segurtasun-sentipena hobetzea. | **I1.1.** Segurtasunaren arloan, *Durangoko Emakumeentzat Debekatutako Hiriaren Mapan* zehaztu diren gomendioak eta protokoloak abian jartzea.*Durango*. | **I1.1.1.** *Durangoko Emakumeentzat Debekatutako Hiriaren Mapan* jasotako gomendioak aplikatzea.<br><br>**I1.1.2.** Udal-arautegian, genero-ikuspegia kontuan hartuta, segurtasun-irizpideak sartzea, eta horiek hobetzeko edo aldatzeko esku-hartzeetan nahiz eremu berriak eraikitzekoetan aplikatzea. |

ELHUYAR ahokularitza

DURANGO
Udala · Ayuntamiento

# EKINTZEN KRONOGRAMA ESPARRUKA

| | | | 2009 | | | 2010 | | | | 2011 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ALORRA | EKINTZA ZBK. | EKINTZAK | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi | 1º Hi | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi | 1º Hi | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi |
| UDALEKO ZERBITZU OROKORRAK | 1 | **Z1.1.1.** Udaleko langileen artean genero-diskriminaziorik edo genero-estereotiporik badagoen aztertzea (soldatak, “kristalezko sabaia”, “lurzoru itsaskorra”, bereizketa horizontala…), eta hobekuntzarako ildoak gomendatzea. | | | | | | | | | | | |
| | 2 | **Z1.1.2.** Sailetako tresnak, prozesuak, programak eta jarduerak aztertzea, genero-ikuspegiaren gaineko irizpideak, gomendioak eta egokitzapenak erabakitzeko. | | | | | | | | | | | |
| | 3 | **Z1.1.3.** Genero-ikuspegia udaleko eta haren mendeko erakundeetako azterketetan eta estatistiketan zenbateraino sartu den aztertzea. | | | | | | | | | | | |
| | 4 | **Z1.1.4.** Hizkuntza (euskara eta gaztelera) ez-sexista erabiltzeko eskuliburua zabaltzeko eta bultzatzeko barne-kanpaina egitea. | | | | | | | | | | | |
| | 5 | **Z1.1.5.** Politikariak eta teknikariak sentsibilizatzeko eta prestatzeko, genero-ikuspegiari eta berdintasun politikei buruzko ikastaroak egitea, (eta Berdintasunari buruzko 4/2005 Legeari eta Udal Planari aipamen berezia egitea). | | | | | | | | | | | |
| | 6 | **Z1.1.6.** Sail arteko mahai tekniko bat sortzea, Planaren jarduera-ildoak koordinatzeko, eta, era berean, batzorde politikoarekin koordinatzeko. Horretarako, osaera, funtzioak, ardurak eta barne-komunikaziorako metodoak egokitu behar dira. | | | | | | | | | | | |
| | 7 | **Z1.1.7.** Administrazioak erakundeekin egiten dituen lizitazioetan eta adjudikazioetan genero-irizpideak sartzea. | | | | | | | | | | | |

| | | | 2009 | | | 2010 | | | | 2011 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ALORRA | EKINTZA ZBK. | EKINTZAK | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi | 1º Hi | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi | 1º Hi | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi |
| | **8** | **A1.1.1.** Udalaren ekitaldi publikoetan, planetan, programetan eta jardueretan emakumeak protagonista izan daitezen, parte har dezaten eta erabakiak hartzeko bideak izan ditzaten arauak eta jarraibideak ezartzea. | | | | | | | | | | | |
| | **9** | **A2.2.1.** Durangon, herrian lanean diharduen Emakumeen Batzordea badagoela ezagutaraztea, eta zer funtzio dituen eta zer lan egiten duen jakitera ematea, kontseilu horri eta kontseilua osatzen duten emakumeei eta erakundeei izena emateko. | | | | | | | | | | | |
| | **10** | **A2.2.2**. ANDRAGUNE ezagutzera ematea, eta programa bidez indartzea. | | | | | | | | | | | |
| | **11** | **A2.2.3.** Emakumeen Batzordeak plan hau gauzatzeko, eta planaren segimendua egiteko eta ebaluatzeko zer funtzio izango dituen adostea. | | | | | | | | | | | |
| | **12** | **A2.2.4.** Emakumeen Batzordearen arrakasta, aukerak eta indarguneak balioestea, Durangoko emakumeek Udalaren politika publikoetan zer eragin duten jakiteko. | | | | | | | | | | | |
| | **13** | **B1.1.1.** Beharren diagnostikoa egitea, eta bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lana bateratzea errazteko neurri-sortak sortzea. | | | | | | | | | | | |
| | **14** | **B1.1.2.** Udaleko politikarientzat eta teknikarientzat prestakuntza-lantegiak egitea, gizonek adiskidetzeko espiritua eta aldi bereko arduraren aldeko jarrera har dezaten. Ikastaroetara gizonek joan behar dute. | | | | | | | | | | | |

| | | | 2009 | | | 2010 | | | | 2011 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ALORRA | EKINTZA ZBK. | EKINTZAK | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi | 1º Hi | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi | 1º Hi | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi |
| | 15 | **B1.1.3.** Udalaren Bateragarritasun-plana egitea, beharren diagnostikoaren arabera, bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lana bateratzeko | | | | | | | | | | | |
| | 16 | **I1.1.1.** Durangoko Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-plana zenbateraino gauzatu den aztertzea. | | | | | | | | | | | |
| | 17 | **I1.1.2.** Kanpaina publiko iraunkorrak eta koordinatuak egitea, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-plana, planeko edukiak, aurrerapenak eta Durangoko herritarrengan duen eragina ezagutarazteko. | | | | | | | | | | | |
| | 18 | **I1.1.3.** Eudelek azaroaren 25erako egingo duen kanpainan parte hartzea, hura sustatzea eta udaleko kanpainak hartara egokitzea. | | | | | | | | | | | |
| | 19 | **I1.1.4.** Udaleko politikariak eta teknikariak emakumeen aurkako indarkeriaren gainean heztea (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 6-8 EKINTZAK). | | | | | | | | | | | |
| | 20 | **I1.1.5.** Koordinazio-egitura bat ezartzea, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-plana gauzatzeko, haren segimendua egiteko eta hura balioesteko. | | | | | | | | | | | |
| | 21 | **I1.1.6.** Durangoko Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-plana gauzatzen ari denean, haren segimendua egitea, koordinatzea eta ebaluatzea (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 16-17. EKINTZAK). | | | | | | | | | | | |

| | | | 2009 | | | 2010 | | | | 2011 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ALORRA | EKINTZA ZBK. | EKINTZAK | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi | 1º Hi | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi | 1º Hi | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi |
| EUSKARA ETA KULTURA | 22 | **Z1.1.1.** Administrazioko langileentzat eta azpikontratatutako enpresetako langileentzat barne-hedapeneko gida bat egitea eta zabaltzea, kultura-jarduerak eta -programak diseinatzeko, planifikatzeko eta inplementatzeko kontuan hartu beharreko jarraibideei eta praktika onei buruz. | | | | | | | | | | | |
| | 23 | **Z1.1.2.** Kultura-arloan emakumeek dituzten nahiak, itxaropenak, beharrak eta interesak aditzera emateko diagnostikoa sustatzea. | | | | | | | | | | | |
| | 24 | **Z1.1.3.** Euskara eta Kultura Saileko langileak aukera-berdintasunean heztea, eta antolatzen diren kultura-programak eta -jarduerak planifikatzeko eta garatzeko orduan, genero-ikuspegia aztertzeko eta kontuan hartzeko gaitzea. | | | | | | | | | | | |
| | 25 | **A1.1.1.** Kultura-ondarean emakumeek egindako ekarpen historikoak ikertzea eta sistematizatzea, bai eta emakumeek eta gizonek historikoki kultura nola sortu duten ere, bereziki euskal kultura nabarmenduz. | | | | | | | | | | | |
| | 26 | **A1.1.2.** Durangoko emakumeek kulturari egindako ekarpenak zabaltzea. | | | | | | | | | | | |
| | 27 | **A1.1.3.** Emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna bermatzen duten irizpideak ezartzea, Durangoko elkarte edo erakundeei laguntzak emateko. | | | | | | | | | | | |
| | 28 | **A2.1.1.** Eremu soziokulturaleko elkarte-sarearen eta berdintasunari ematen dioten bultzadaren diagnostikoa egitea, genero-ikuspegia kontuan hartuta. | | | | | | | | | | | |
| | 29 | **A2.1.2.** Elkarte soziokulturalei berdintasuna sustatzeko zerbitzuak eta baliabideak hedatzea. | | | | | | | | | | | |
| | 30 | **A2.1.3.** Durangoko elkarte-sareari zuzenduta, emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunari buruzko ikastaroak egitea. | | | | | | | | | | | |

| | | | 2009 | | | 2010 | | | | 2011 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ALORRA | EKINTZA ZBK. | EKINTZAK | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi | 1º Hi | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi | 1º Hi | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi |
| | 31 | **A2.1.4.** Durangoko elkarteei diru-laguntzak emateko, berdintasun-irizpideak ezartzea. | | | | | | | | | | | |
| | 32 | **B1.1.1.** Euskara eta Kultura Sailak eta horren mendeko erakundeek antolatzen dituzten jarduera eta ekitaldi guztietan bateragarritasuna eta ardura partekaturako zerbitzuak eta neurriak bermatzea. | | | | | | | | | | | |
| | 33 | **B1.1.2.** Hausnarketa- eta eztabaida-taldeak sortzea, bateragarritasuna eta ardura partekatuaren beharra atzeman duten interes-taldeekin. | | | | | | | | | | | |
| | 34 | **B1.1.3.-** Ardura partekatuaren alorreko jardunbide egokiei buruzko sentsibilizazio- eta hedapen-kanpainak egitea. | | | | | | | | | | | |
| | 35 | **I1.1.1.** Martxoaren 8ari, azaroaren 25ari eta Ahalduntze Eskolari buruzko informazioa emateko hitzaldiak egitea, eta horien gainean sentsibilizatzeko materiala argitaratzea. | | | | | | | | | | | |
| | 36 | **I1.1.2.** Festetan izaten den emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko, horren gainean sentsibilizatzeko eta indarkeria hori atzemateko prozesua abian jartzea, festa batzordeekin (Emakumeen Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 2. EKINTZA). | | | | | | | | | | | |
| | 37 | **I1.1.3.** Gizonei zuzendutako ikastaro bereziak egitea, gizonek tratu txarren prebentzioaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren gainean hausnartu eta jarduerak egin ditzaten (Emakumeenganako Indarkeriarekin Aurkako Ekintza-planeko 5. EKINTZA). | | | | | | | | | | | |
| | 38 | **I1.1.1.4.** Durangoko komunikabideekin (prentsa, irratia, telebista) hitzarmenak egitea, emakumeen gaineko irudi sexistarik ez emateko, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko.. | | | | | | | | | | | |

| | | | 2009 | | | 2010 | | | | 2011 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ALORRA | EKINTZA ZBK. | EKINTZAK | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi | 1º Hi | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi | 1º Hi | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi |
| KIROLA | 39 | **Z1.1.1.** Durangoko emakumeek kirol-eremuan duten egoera, gustuak, nahiak, beharrak eta interesak azalarazteko diagnostikoa egitea, eta gomendioak eta jarduera-ildoak zehaztea. | | | | | | | | | | | |
| | 40 | **Z1.1.2.** Administrazioko langileentzat eta azpikontratatutako enpresetako langileentzat barne-hedapeneko gida bat egitea eta zabaltzea, kirol-jarduerak eta -programak diseinatzeko, planifikatzeko eta aplikatzeko kontuan hartu beharreko jarraibideei eta praktika onei buruz**.** | | | | | | | | | | | |
| | 41 | **Z1.1.3.** Administrazioaren kirol-arloko sailetako eta erakundeetako teknikariak eta politikariak eta klubetako zuzendaritza-taldeetako kideak sentsibilizatzeko jarduerak egitea. | | | | | | | | | | | |
| | 42 | **Z1.1.4.** Kirol-planifikazioaz, -kudeaketaz eta -ebaluazioaz arduratzen diren langileei aukera-berdintasunari buruzko prestakuntza ematea, kirol-arloko sailak bultzatzen duen dinamikan genero-ikuspegia sar dezaten. | | | | | | | | | | | |
| | 43 | **A1.1.1.** Herritarrei zuzendutako kanpainak egitea (hitzaldiak ikastetxeetan, komunikabideetan agertzea, ekipamendu soziokulturalak…), edozein kirol-motatan erreferente diren Durangoko emakumeak ezagutzera emateko. | | | | | | | | | | | |

| | | | 2009 | | | 2010 | | | | 2011 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ALORRA | EKINTZA ZBK. | EKINTZAK | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi | 1º Hi | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi | 1º Hi | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi |
| | 44 | **A1.1.2.** Kirol-langileei, gurasoei eta hezitzaileei zuzendutako sentsibilizazio-jarduerak egitea (hitzaldiak, liburuxkak, ikastaroak…), jarduera fisikoan eta kirol-jardueran egon behar den aukera-berdintasunari buruz, hezitzaile-lanean neska-mutilen kirol-ohitura dibertsifikatzea sustatzeko. | | | | | | | | | | | |
| | 45 | **B1.1.1.** Kirol-instalazioen ordutegi- eta baliabide-beharrak aztertzea, genero-ikuspegia kontuan hartuta. | | | | | | | | | | | |
| | 46 | **B1.1.2.** Udalaren kirol-instalazioetako zerbitzuak, ekipamendua eta eremuak emakumeen eta gizonen beharretara egokitzea, betiere aukera-berdintasuna errespetatuz eta azterketaren emaitzak kontuan hartuz. | | | | | | | | | | | |
| | 47 | **B1.1.3.** "Durango", Udalaren Kirol Institutuak egiten duen kirol-eskaintzaren segimendua egitea, eta emakumeen eta gizonen gustuak eta interesak desberdinak direla kontuan hartuta, zerbitzuak, ekipamenduak eta eremuak egokitzea. | | | | | | | | | | | |
| | 48 | **I1.1.1.** Erakundeen arteko hitzarmenak sustatzea, kiroletako indarkeria prebenitzeko eta ezabatzeko sentsibilizazio-kanpainak egin daitezen, eta gizonezkoei arreta berezia eskaintzea. | | | | | | | | | | | |

| | | | 2009 | | | 2010 | | | | 2011 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **ALORRA** | **EKINTZA ZBK.** | **EKINTZAK** | **2º Hi** | **3º Hi** | **4º Hi** | **1º Hi** | **2º Hi** | **3º Hi** | **4º Hi** | **1º Hi** | **2º Hi** | **3º Hi** | **4º Hi** |
| **HEZKUNTZA** | **49** | **Z1.1.1.** Durangoko hezkuntza-erakundeen (hezkuntza arautukoak eta ez-arautukoak: ikastetxeak, Berritzegunea, aisialdi-taldeak eta animazio soziokulturalekoak, HHE, Haurreskolak Partzuergoa…) elkargune eta lan kooperatiboko plataforma bat sortzea. Plataforma horrek egitura, lan-metodoa eta jardute-plana izango ditu, udalerrian baterako hezkuntza sustatzeko. | | | | | | | | | | | |
| | **50** | **Z1.1.2.** Durangoko ikastetxeetan (haur hezkuntza, lehen eta bigarren hezkuntzakoetan) eta hezkuntza-eremuan parte hartzen duten izaera ez-arautuko erakundeetan baterako hezkuntza eta orientazio profesional ez-sexista sustatzeko jarduerak elkarrekin planifikatzea (jolas eta jostailu ez-sexistak, baterako heziketarako materialak, baterako heziketarako jardunbide egokiak, balio ez-sexistetan hezteko ikastaroak, generoka estereotipatuta ez dauden postuetan eta karguetan emakumeak eta gizonak sartu dituzten enpresak bisitatzea…). | | | | | | | | | | | |
| | **51** | **A1.1.1.** Herritarrei zuzendutako jarduerak diseinatzea, hezkuntzaren arloan parte hartu duten eta parte hartzen duten, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatu duten Durangoko emakumeak ezagutzera emateko (filmak, liburuak, erakusketak…). | | | | | | | | | | | |
| | **52** | **B1.1.1.** Udaleko Gazteria, Kirol eta Hezkuntza Saileko teknikariak prestatzea, ardura partekatuaren eta zaintzaren etikaren aldeko kultura sustatzeko programak eta jarduerak diseina ditzaten. Egiten diren jarduera guztietan ordutegi- eta zainketa-beharrak hartu behar dira kontuan, eta, horretarako, haurtzaindegi-zerbitzua, ludoteka eta abar eskaini. | | | | | | | | | | | |

| | | | 2009 | | | 2010 | | | | 2011 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ALORRA | EKINTZA ZBK. | EKINTZAK | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi | 1º Hi | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi | 1º Hi | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi |
| | 53 | **B1.1.2.** Hezitzaileei, monitoreei eta animazio soziokulturalaren eta hezkuntzaren arloan, bereziki, aisia eta aisialdiaren arloan lan egiten dutenei metodologien eta baliabideen gaineko prestakuntza ematea, ardura partekatua eta zaintzaren etikaren gaineko balioak sortzeko. | | | | | | | | | | | |
| | 54 | **B1.1.3.** Zainketaren eremuko eta etxe-eremuko zereginak ikasteko gizonei zuzendutako lantegiak egitea. | | | | | | | | | | | |
| | 55 | **B2.1.1.** Hezkuntzaren eremuarekin lotutako zerbitzuen eskaintza eta eskaria aztertzea: jangelak, garraioa, haur-eskolak, ludotekak, ordu-poltsak.. | | | | | | | | | | | |
| | 56 | **B2.1.2.** Lekuak eta jarduerak, eta horiek gurasoen baldintzetara, egoeretara eta beharretara egokitzen diren aztertzea, eta eskaintza eta eskaria alderatzea, banaketa geografikoko irizpideak kontuan hartuta. | | | | | | | | | | | |
| | 57 | **B2.2.2.** Heziketa-eskaintza planifikatzea, jardueren ordutegiak ardura familiarrak, pertsonalak eta profesionalak bateratzera egokituta. | | | | | | | | | | | |
| | 58 | **I1.1.1.** Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko prestakuntza-ikastaroak ematea haurrei, gazteei, familiei eta hezkuntzako langileei (irakasleei, monitoreei…) (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 3. EKINTZA). | | | | | | | | | | | |

| | | | 2009 | | | 2010 | | | | 2011 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ALORRA | EKINTZA ZBK. | EKINTZAK | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi | 1º Hi | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi | 1º Hi | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi |
| LANA ETA ENPLEGUA | 59 | **Z1.1.1** Lan-zerbitzuetako eta erakunde kolaboratzaileetako langileak prestatzea, lanbideratzeko prozesu osoko fase bakoitzean genero-ikuspegia nola sartu jakiteko, bai informatze-, orientatze- eta prestakuntza-faseetan, bai lan munduratzeko babesa emateko eta jarraipena egitekoetan, bai enpresa eta autoenplegua sustatzekoetan. Prestakuntza horretan kontuan hartu behar da bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lanekoa bateratzen diren, ordutegiak jartzeko eta zerbitzuak emateko. | | | | | | | | | | | |
| | 60 | **Z1.1.2.** Enpresak eta langileak kontratatzeko, aukera-berdintasunarekin bat datozen klausulak ezartzea. | | | | | | | | | | | |
| | 61 | **A1.1.1** Emakume gutxi dauden lan-sektoreetan ETEak sustatzen dituzten emakumeei pizgarriak ematea. | | | | | | | | | | | |
| | 62 | **A1.1.2** Emakume langabetuak ekonomia sozialeko enpresetan sar daitezen sustatzea, bazkide langile edo lan-bazkide gisa. | | | | | | | | | | | |
| | 63 | **A2.1.1** Desberdintasun- edo diskriminazio-eremuak eta -adierazpenak identifikatzeko diagnostikoa egitea, eta administrazio publikoaren eta mendeko enpresen enpleguan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ziurtatzeko neurriak proposatzea, negoziazio kolektiboaren bidez. | | | | | | | | | | | |

| | | | 2009 | | | 2010 | | | | 2011 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ALORRA | EKINTZA ZBK. | EKINTZAK | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi | 1º Hi | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi | 1º Hi | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi |
| | 64 | **A2.1.2** Merkataritza-sektorean emakumeek duten egoera eta kondizioak aztertzea. | | | | | | | | | | | |
| | 65 | **A2.1.3** Administrazioan lan-kondizioen kudeaketaren ardura dutenei beharrezko prestakuntza ematea, erakundeetan berdintasuna sartzeko. | | | | | | | | | | | |
| | 66 | **A2.1.4** Administrazio publikoak eta haren mendeko enpresek beren langileekin izaten dituzten negoziazio kolektiboetan, enplegu publikoaren alorrean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ziurtatzeko neurriak proposatzen dituztela ziurtatzea.<br>- Enpresa edo erakundeak kontratatzeko eta esleitzeko oinarrietan, enpresa horiek beren barne-dinamikan aukera-berdintasunik eta berdintasun-politikarik sustatzen duten balioestea.<br>- Oposizio publikoen lehiaketak arautzeko oinarrietan genero-berdintasunaren alorrean esperientziarik eta prestakuntzarik baduten aztertzea, eta gaitegietan emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunari buruzko edukiak sartzea. | | | | | | | | | | | |
| | 67 | **A2.1.5** Enpresetan aukera-berdintasunari buruzko “jardunbide egokiak” hedatzea. | | | | | | | | | | | |
| | 68 | **B1.1.1.** Udalerriko enpresei zaintzaren etikaren gainean gizonei (oro har) eta bereziki zuzendariei zuzendutako prestakuntza-ikastaroak eskaintzea. | | | | | | | | | | | |

| | | | 2009 | | | 2010 | | | | 2011 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ALORRA | EKINTZA ZBK. | EKINTZAK | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi | 1º Hi | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi | 1º Hi | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi |
| | 69 | **B1.1.2.** Sentsibilizazio-ekintzak egitea, gizonek aitatasunagatiko eta mendeko pertsonak zaintzeko baimenak eta lizentziak eska eta erabil ditzatela sustatzeko. | | | | | | | | | | | |
| | 70 | **I1.1.1.** Udalean ardura-karguak dituztenei prestakuntza espezifikoa ematea, bereziki, giza baliabideak (langile-ordezkariak) kudeatzen dituztenei, arazoa prebenitu eta modu eraginkorrean konponduko dela bermatzeko. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko prestakuntza ere sartu behar da, prebentzio-jarduera gisa. | | | | | | | | | | | |
| | 71 | **I1.1.2.** Udalaren eta mendeko erakundeen lan-hitzarmenetan honelako neurririk badagoen aztertzea, eta ez badago, sartzea. | | | | | | | | | | | |
| | 72 | **I1.1.3.** Sektore pribatuan, lan-esparruan emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeari eta kentzeari buruzko informazio-kanpainak egitea, bai eta esparru pribatuko emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta kentzeko dauden zerbitzuei, baliabideei, neurriei eta laguntzei buruzkoak ere. | | | | | | | | | | | |

| | | | 2009 | | | 2010 | | | | 2011 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ALORRA | EKINTZA ZBK. | EKINTZAK | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi | 1º Hi | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi | 1º Hi | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi |
| GIZARTARATZEA | 73 | **Z1.1.1.** Gizarte Ekintza, Lankidetza eta Immigrazio Saila aztertzea, genero-ikuspegia zenbateraino sartu den jakiteko. | | | | | | | | | | | |
| | 74 | **Z1.1.2.** Gizarte Ekintza, Lankidetza eta Immigrazio Saileko teknikariei zuzendutako prestakuntza-ekintzak egitea, genero-ikuspegiaren diagnostikoak, plangintzak, esku-hartzeak eta ebaluazioak egin ditzaten. | | | | | | | | | | | |
| | 75 | **Z1.1.3.** Gizartean parte hartzeko faseetako bakoitzean, genero-ikuspegia kontuan hartuta, izan diren hobekuntzen segimendua eta ebaluazioa egitea. | | | | | | | | | | | |
| | 76 | **A1.1.1.** Administrazioko langileak eta hirugarren sektorean lan egiten duten erakundeak prestatzea, emakume horien egoera hobetzeko eta haien ahalduntzea sustatzeko programak diseinatu eta planifikatzeko. | | | | | | | | | | | |
| | 77 | **A1.1.2.** Baliabide ekonomikoak ezartzea, alarguntasunaren ondorioz ekonomia-estutasunean dauden emakumeen eta pentsio osagarriak eta elikadura-pentsioak jasotzen ez dituzten emakumeen errenta bermatzeko. | | | | | | | | | | | |

| | | | 2009 | | | 2010 | | | | 2011 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **ALORRA** | **EKINTZA ZBK.** | **EKINTZAK** | **2º Hi** | **3º Hi** | **4º Hi** | **1º Hi** | **2º Hi** | **3º Hi** | **4º Hi** | **1º Hi** | **2º Hi** | **3º Hi** | **4º Hi** |
| | **78** | **A1.1.3.** Informazio- eta aholkularitza-zerbitzua sortzea edo osatzea, alarguntasun-egoeran daudenentzako. | | | | | | | | | | | |
| | **79** | **B1.1.1.** Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako langileei prestakuntza-ikastaroak ematea, generoko “zaintzaile-rolaren” gizarte eraikuntzaren eta autonomia funtzionalik ez duten pertsonak zaintzen dituzten emakumeen zama ekonomiko, sozial, psikologiko eta sindrome berrien (“*burn out*” sindromea) artean dagoen zuzeneko erlazioari buruz. | | | | | | | | | | | |
| | **80** | **I1.1.1.** Udalerriko herritar-sektoreetan emakumeen aurkako indarkeriaren egoerari buruzko ikerketa kualitatiboa egitea, emakume immigranteak, emakume zaharrak, gazteak eta herritarrak, oro har, nola bizi diren jakiteko (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 1. EKINTZA). | | | | | | | | | | | |
| | **81** | **I1.1.2.** Herritarrak sentsibilizatzeko, indarkeriaren zikloari buruzko informazioa eman eta hedatzeko, eta indarkeria jasaten duten emakumeentzat dauden baliabideak azalerazteko kanpainak egitea, indarkeria garaiz atzematea eta herritarren konpromisoa lortzeko, babes-eragile ez-formal izan daitezen. | | | | | | | | | | | |

| | | | 2009 | | | 2010 | | | | 2011 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ALORRA | EKINTZA ZBK. | EKINTZAK | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi | 1º Hi | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi | 1º Hi | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi |
| | 82 | **I1.1.3.** Gizarte zerbitzuetako langileek eta udaltzainek emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko prestakuntza espezializatua jasotzea, indarkeria-zikloaren hasiera garaiz atzemateko, eta indarkeria fisikoa eta nork bere buruaren aurkako indarkeria prebenitzeko (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 7ª EKINTZA). | | | | | | | | | | | |
| | 83 | **I1.1.4.** Elkarteei eta herriko beste talde batzuei hiru ikastaro ematea, era askotako diskriminazioa jasaten ari diren emakumeen aurkako indarkeriari buruz (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 10. EKINTZA). | | | | | | | | | | | |
| | 84 | **I1.1.5.** Durangon topagune bat prestatzea adin txikikoak utzi eta jasotzeko, edo tratu txar eta indarkeria-kasuetan, baita bisitak egiteko ere, langile kualifikatuak aurrean direla (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 15. EKINTZA). | | | | | | | | | | | |
| | 85 | **I1.2.1.** Herritarrei dauden protokoloen berri eta mankomunitatearen mendekoa den doako Laguntza Psikologikoko Zentroaren berri ematea (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 12. EKINTZA). | | | | | | | | | | | |
| | 86 | **I1.2.2.** Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko legeen eta jurisprudentziaren berri ematen duen gida egitea (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 13. EKINTZA). | | | | | | | | | | | |

| | | | 2009 | | | 2010 | | | | 2011 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **ALORRA** | **EKINTZA ZBK.** | **EKINTZAK** | **2º Hi** | **3º Hi** | **4º Hi** | **1º Hi** | **2º Hi** | **3º Hi** | **4º Hi** | **1º Hi** | **2º Hi** | **3º Hi** | **4º Hi** |
| **OSASUNA** | **87** | **Z1.1.1.** Haurrei eta nerabeei zuzenduta dauden osasunerako hezkuntza-programen barruan, gaixotasunak prebenitzeko eta bakoitzak bere burua zaintzeko lantegiak sartzea, genero-ikuspegia kontuan hartuta. | | | | | | | | | | | |
| | **88** | **Z1.1.2.** Familiak, irakasleak eta gizarte-eragileak bakoitzak bere burua zaintzeak duen garrantziaz informatzea eta sentsibilizatzea. | | | | | | | | | | | |
| | **89** | **A1.1.1.** Arriskurik gabeko sexu-harremanak izateko, gazteei Durangon dauden baliabideen berri ematea. | | | | | | | | | | | |
| | **90** | **A1.1.2.** Neska-mutilen artean sexu-portaera autonomoa eta arduratsua sustatzeko informazio- eta heziketa-programak egitea, kultura-talde guztietan gizonezkoek duten erantzukizuna nabarmenduz. | | | | | | | | | | | |
| | **91** | **A1.1.3.** Hainbat talderi sexu-harreman osasungarriei buruzko prestakuntza eta informazioa eskaintzea (immigranteei, helduei). | | | | | | | | | | | |
| | **92** | **B1.1.1.** Autonomia funtzionalik ez duten pertsonak zaintzeak sortzen dituen zamak arintzeko dauden laguntzak aztertzea, eta Durangoko benetako beharrekin konparatzea**.** | | | | | | | | | | | |

| | | | 2009 | | | 2010 | | | | 2011 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ALORRA | EKINTZA ZBK. | EKINTZAK | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi | 1º Hi | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi | 1º Hi | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi |
| | 93 | **B1.1.2.** Bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lana bateratzen laguntzeko eskualdeko zerbitzu eta baliabideen direktorioa egitea. | | | | | | | | | | | |
| | 94 | **B1.1.3.** Herritarrei eta administrazio publikoko eta haren mendeko erakundeetako langileei direktorio horren berri ematea. | | | | | | | | | | | |
| | 95 | **B1.1.4.** Informazio- eta sentsibilizazio-jarduerak egitea, zaintzaileek egiten duten lanaren eta horrek dakarren kostu pertsonalaren berri emateko, zeregin horietan gizonen ardura partekatua sustatzeko. | | | | | | | | | | | |
| | 96 | **I1.1.1.** Teknikariei ikastaroak ematea, etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak gertatzen direnean nola jardun jakiteko tokian tokiko protokoloak garatu eta bultzatzeko (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 9ª EKINTZA). | | | | | | | | | | | |
| | 97 | **I1.1.2.** Herritarrak sentsibilizatzeko eta dauden laguntzen berri emateko kanpainak egitea (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Ekintza-planeko 9. EKINTZA). | | | | | | | | | | | |
| | 98 | **I1.1.3.** Autolaguntzarako taldeak sortzea. | | | | | | | | | | | |

| | | | 2009 | | | 2010 | | | | 2011 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ALORRA | EKINTZA ZBK. | EKINTZAK | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi | 1º Hi | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi | 1º Hi | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi |
| HIRIGINTZA, GARRAIO PUBLIKOA ETA INGURUMENA | 99 | **Z1.1.1.** Kargu publikoak eta teknikariak sentsibilizatzea, hiri-hobekuntzarekin, -diseinuarekin eta -plangintzarekin eta ingurumenarekin zerikusia duten gaietan genero-ikuspegia sartzeak duen garrantziaz. | | | | | | | | | | | |
| | 100 | **Z1.1.2.** Kargu publikoak eta teknikariak prestatzea, hiri-hobekuntzan, -diseinuan eta -plangintzan eta ingurumeneko gaietan genero-ikuspegia sar dezaten. | | | | | | | | | | | |
| | 101 | **Z1.1.3.** *Durangoko Emakumeentzat Debekatutako Hiriaren Mapan* jasotako gomendioen segimendua egitea eta nola aplikatu den aztertzea. | | | | | | | | | | | |
| | 102 | **Z1.1.4.** *Durangoko plangintza urbanistikoa hobetzeko gomendioen dekalogoaren* segimendua egitea eta nola aplikatu diren aztertzea (aurretik aipatutako mapan zehaztu da). | | | | | | | | | | | |
| | 103 | **A1.1.1.** Hirigintzako eta ingurumeneko plangintzak, diseinuak eta hobekuntzak egiteko ardura dutenak herritarrek (emakumeak eta gazteak nabarmenduz) plangintza- eta erabaki-prozesuetan parte hartzeak duen garrantziaz sentsibilizatzea. | | | | | | | | | | | |
| | 104 | **A1.1.2.** Emakumeei zuzendutako prestakuntza- eta informazio-jarduerak egitea, hirigintzako eta ingurumeneko plangintza-, diseinu- eta hobekuntza-prozesuetan parte har dezaten gaitzeko. | | | | | | | | | | | |
| | 105 | **A1.1.3.** Parte-hartzeko kuotak eta mekanismoak ezartzea, hirigintzarekin eta ingurumenarekin zerikusia duten eztabaida-foroetan, diseinuan eta erabaki-hartzeetan emakumeak egotea bermatzeko. | | | | | | | | | | | |

| | | | 2009 | | | 2010 | | | | 2011 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ALORRA | EKINTZA ZBK. | EKINTZAK | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi | 1º Hi | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi | 1º Hi | 2º Hi | 3º Hi | 4º Hi |
| | 106 | **A2.1.1.** Kale, plaza, parke, monumentu eta herriko elementu sinbolikoen izenak aztertzea, emakumeek zer aintzatespen sinboliko duten jakiteko. | | | | | | | | | | | |
| | 107 | **A2.1.2.** Kale-izendegiko eta monumentuen izenak hautatzeko prozesuak erregulatzeko arautegia egitea, kaleei, plazei, monumentuei eta abarri emakumeen izena ematea sustatzeko. | | | | | | | | | | | |
| | 108 | **B1.1.1.** Hiri-plangintzan eta -diseinuan dauden beharrak aztertzea, bateragarritasun-irizpideei erantzuteko. | | | | | | | | | | | |
| | 109 | **I1.1.1.** *Durangoko Emakumeentzat Debekatutako Hiriaren Mapan* jasotako gomendioak aplikatzea. | | | | | | | | | | | |
| | 110 | **I1.1.2.** Udal-arautegian, genero-ikuspegia kontuan hartuta, segurtasun-irizpideak sartzea, eta horiek hobetzeko edo aldatzeko esku-hartzeetan nahiz eremu berriak eraikitzekoetan aplikatzea. | | | | | | | | | | | |

# 9. GLOSATEGIA

- **Ekintza positiboak:** ekintza hauek emakumeek herritar gisa dituzten eskubideak berdintasunean betetzea ahalbidetzea dute helburu, horretarako eragozpenak haustea. Ekintza positiboak aukera-berdintasuna lortzeko jarduera konkretuak eta aldi baterakoak dira, abiapuntu eta tratamendu bereizikoak. Zuzeneko, zeharkako edo ezkutuko diskriminazioa konpentsatzean dautza**.**
- **Etxeko eremua:** etxeko erantzukizunei, eginkizunei eta lanei dagokiena. Etxeko eremua emakumeen esku dago, eta horrek murriztu eta zaildu egin du emakumeek beste eremu batzuetan parte hartzea. Emakumearen lana, gainera, doakoa izan da eta etxeko eremuan eta familia zaintzeko arloan egin beharreko guztiaz arduratu da. Emakumeari, gainera, ez zaio onartu eta ez zaio onartzen lan horren gizarte balioa. Haurren lehen hezkuntza-prozesuetan hasten da (jolasak, jokabideen aldaketa...)
- **Eremu publikoa:** hainbat modutan onartu eta saritutako erantzukizunei, eginkizunei eta gizarte-lanei dagokie (soldatak, estatus soziala...). Tradizioaren arabera, gizonezkoen ardura izan da eta bertan egiten denaren boterea eta kontrola eskaini zaie.
- **Genero-azterketa:** gizon eta emakumeen arteko aldeak identifikatzen eta ulertzen saiatzea du eginkizun, betiere, haien eginkizun eta erantzukizunen, baliabideak erabiltzeko eta kontrolatzeko modua izatearen eta behar eta interesen arabera.
- **Androzentrismoa:** gizonezkoa da gizartearen elementu nagusia; gizarte joera hau honetan datza: gizartea egituratzeko, antolatzeko eta legeria ezartzeko, gizona ardatz gisa hartzean.
- **Generoen arteko aldea:** gizon eta emakumeek bizitzaren hainbat eremutan (gizartea, hezkuntza, kultura…) dituzten posizioen eta baldintzen arteko aldea; generoak, desberdintasun-eta diskriminazio-iturri da eremu horietan.
- **Diskriminazio positiboa:** politika soziala da, aukera gutxiago dituztenen bizitza-kalitatea hobetzeko; hartara, gizartean eragozpen handiak izateko egoera parekatzeko aukera eman behar zaie pertsona horiei. Horretarako, politika horretan, tratu berdinaren printzipioaren salbuespena erabiltzen da, legerian ere ezarrita dagoena, hots, berdin tratatzea oinarrian egoera desberdina duena. Sexu edo gizarte talde jakin baten egoera okerragoa onartzea da, baita desoreka hori konpentsatzeko joera ere. Justizia eta ulermena izateko ekintza da, baina ez da beste sexuaren kontrakoa.
- **Diskriminazio anitza:** faktore bat baino gehiagorengatik pertsona batengan edo talde batengan diskriminazio sor dezakeen gizarte-desabantaila egoera. Emakume eta gizonen berdintasunaren testuinguruan, sexu-diskriminazioaz gain bestelako diskriminazioak bizi dituzten emakume edo emakume-taldeen egoerari egiten dio erreferentzia. Diskriminazioa hainbat arrazoirengatik eman daiteke: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edo bestelako iritzia, ondarea, ezintasuna, adina, orientazio sexuala edo beste edozein baldintza pertsonala edo soziala.

- **Lana sexuaren arabera banatzea:** banaketa hori bi sexuek ekoizpenaren aldetik dituzten aldean oinarritu da. Gizonezkoak toki publikoan egiten du lan eta produzituriko merkantziaren truke (produkzio-denbora) soldata jasotzen du. Emakumezkoak, ordea, familia zaintzen egiten du lan, etxeko lanetan aritzen da (produkzio denbora). Gizonezkoaren lanak gizarte-balioespena du, eta hainbat ordainsaritan islatzen da. Etxeko lana, berriz, gizarteak gutxietsi egiten du, ez da produkzio-bideetan sartzen (ekonomi ezkutaketa) eta estatuak ez du araurik eman behar hori betetzeko. Etxeko lana erabilera-denbora bat da, nekez trukatu eta balioetsi daitekeena.
- **Genero-berdintasuna:** Gizarteratzeko prozesuan eta gizartean zein etekinetan parte hartzeko berdintasuna. Prozesuan gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzea du xede, eta berdintasun hori garapenaren bidez lortzea.
- **Genero-estereotipoak:** gizarte-jokabidearen eredua da, aldez aurretiko iritzietan eta balioetan oinarriturikoa eta komunitate jakin bateko kideei inposatzen zaiena. Bi genero-estereotipo bereizten dira: femeninoa eta maskulinoa. Oposizioz definitzen dira eta elkarren “osagarri” legez aurkezten; hierarkizatuta daude, betiere, maskulinoa (gizonezkoari ezarria) femeninoaren (emakumezkoari ezarria) gainetik. Aurreiritzi eta iritzi subjektiboak agertzen eta bultzatzen dira, gehienbat emozionalak, eta gizartean indartu eta transmititu egiten dira; era horretara, iritzi, jokabide eta jarrera jakin batzuk finkatzen dira gure gizarte-harremanetan. Kanpoko ezaugarriak, rolak eta funtzioak izango dira generoa osatzen duten genero-estereotipoak. Genero-estereotipoen bidez, neska-mutilen gizarte rola moldatzen da; rol horiek, argi eta garbi, baztertzaileak dira eta errealitatearen desitxuratzea errazten eta sustatzen dute, zeren eta rol horien oinarrian emakumea gizonaren mendean jartzen da.
- **Igurikapenak eta itxaropenak:** gainerakoen mundua ulertzeko moduak, jokabide-baldintzatzaileak eta lorpenak. Gizonek eta emakumeek gizartearen genero estereotipoaren arabera jokatzea da gizarte-itxaropenaren helburua.
- **Feminismoa:** gizon eta emakumeen estatus sozialak parekatzeko xedea duten gizarte-mugimenduen eta -doktrinen multzoa; gizonen eskubide berdinak aldarrikatzen ditu emakumeentzat; berdintasun zibila, juridikoa, ekonomikoa eta profesionala bereziki.
- **Generoa:** gizonen eta emakumeen arteko aldea adierazten du ikuspegi psikologikotik eta gizarte-kulturaren ikuspegitik. Errealitate konplexua du aztergai, gehienbat alderdi psikosozialetik. Rolak, estereotipoak, maskulinotasuna, femeninotasuna, etab. generoaren errealitatearen barruan sartuko lirateke. “Genero” kontzeptua aldatu egiten da kulturen arabera; sexu bakoitzak garaia eta egoera zein, gizarte mailako jokabide-itxaropen batzuk edo besteak adierazten ditu.
- **Aukera-berdintasuna:** sexuaren, gizarte mailaren, etniaren, eta abarren araberako aldeek eragiten dituzten gizarte-eragozpenak desagerraraztean datza.
- **Matxismoa:** aurreiritzi soziala da, oro har, gizartean gizonezkoen balioak eta ezaugarriak lehenesten dituena eta emakumeei inposatutakoa.
- **Patriarkatua:** aitaren boterea da, hots, gizonak nagusi direneko famili sistema eta gizarte-, ideologia- eta politika-mailako sistema. Sistema horretan, emakumeak egoera orotan gizonaren mendean egon daitezen, gizonek, ezartzen dute emakumeek bete behar duten eginkizuna,

besteak beste, indarraren, zuzeneko presioaren, errituen, tradizioaren, legearen, hizketaren, etiketaren, hezkuntzaren eta lanaren banaketa sexualaren bidez. Emakumezkoak menderatzeko, gizonezkoek ezarritako egitura da; bi sexuek bereganatutakoa, ordea: sistema horretan gizonek zein emakumeek parte hartzen dute. Feminismoa sistema hori hausten ari da. Gizon eta emakumeei ezarritako eginkizun eta itxaropenen multzoa; izan ere, eginkizun horiek eragiten dute sexuen arteko aldea, sexuaren arabera, izateko eta sentitzeko moduari eta jarduteko moduari dagokionez.

- **Segregazio horizontala:** gizon eta emakumeen lan-baldintzen arteko aldea.
- **Segregazio bertikala:** emakumeek erantzukizuneko lanpostuetan duten aldea eta partaidetza murriztean datza.
- **Sexismoa:** gizarte joera da, pertsonak sexuaren arabera diskriminatzeko; bereziki emakumezkoak, emakume izate hutsagatik.
- **Sexua:** alde biologikoa (maila genetikoa, endokrinoa eta neurologikoa) deskribatzeko gordetako hitza da, eta ez ditu, ezinbestean, jokabideak finkatzen.
- **Gizarteratzea:** banakoak gizarte jakin bateko kultura bereganatzeko prozesuari deritzo, betiere, gizartearen balioak bereganatuz eta haren ohituretara eta joeretara egokituz.
- **Balioak:** antolaturiko eta hierarkizaturiko kontzepzioak sortzen dituzten gizarte-eraikuntzak dira, gizakien jokabideei eta jokamoldeei eragiten dietenak. Aldatu egiten dira gizarte, kultura eta garai batetik bestera.

# 10. ERANSKINAK

**Helburuak denboran betetzeko fitxa, lehentasunen arabera**

| ARDATZA | HELB. OROKORRA | HELB. OPERATIBOA | 2009 | | 2010 | | 2011 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 1. S | 2. S | 1. S | 2. S | 1. S | 2. S |
| ZERBITZU OROKORRAK | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| EUSKARA ETA KULTURA | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| KIROLA | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| HEZKUNTZA | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| LANA | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| GIZARTERATZEA | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| OSASUNA | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| HIRIGINTZA, GARRAIOA ETA INGURUMENA | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |

**Programatutako ekintzen jarraipenerako fitxa**

| HELBURU ESTRATEGIJOA | ESPARRUA |
|---|---|
| | |

| HELBURUA |
|---|
| |

| EKINTZA |
|---|
| |

| JARDUERA |
|---|
| |

| | |
|---|---|
| EKINTZAREN DESKRIBAPENA | |
| JUSTIFIKAZIOA | |
| JASOTZAILEAK<br>PERTSONAK EDO ERAKUNDEAK | |

| GAUZATZEAREN ARDURADUNA | | | |
|---|---|---|---|
| ARDURA DUEN SAILA | PERTSONA ARDURADUNAK | ELKARLANEAN ARITU DIREN SAILA(K) | ELKARLANEAN ARITU DIREN PERTSONA(K) |
| | | | |

| GAUZATZEKO DENBORA | | | AURREKONTUA |
|---|---|---|---|
| 1ºT | 2ºT | 3ºT | |
| | | | |

| PROZESUAREN ADIERAZLEAK |
|---|
| |

| ESPERO DIREN EMAITZAK |
|---|
| |

| IRUZKINAK |
|---|
| |